



Ondareztat

gorrotoa

Salbador Zampirain "Ataño"





Salvador Zapiain “Ataño”

Salvador Zapiain Ezeiza, 1913-an jaio zan Errenteriko Bordaxar baserrian eta 2000-1-2-ean il Iruñan.

Jose Zapiain bertsolariaren semea zan, eta Juan Krutz bertsolariaren illoba. Enborretik ezpala beraz.

Idazle ugaria izan da, bai prosaz eta bai bertsoan ere. Baiña bere idazlanak *Ataño* izenordearekin agertu ditu, danak ere Auspoa Liburutegian.

Bere liburuen zerrenda: *Txantxangorri kantaria* (1979), *Txori* (1981), *San Frantziskoren bizitza* (bertsoan, 1981), *Espetxeko negarrak* eta *Zigorpean* (1984), *Eltzaorra* (1985), *Odol-kutsua* (1986), *Maitasunaren lanak* (1988), *Etorkizuna* (1988), *Maite itzazute etsaiak* (1989), *Aztia usnari* (1990), *Azkeneko saskigillea* (1991), *Lotsaren iges* (1995), *Askatasun billa* (1996), eta onako au: *Ondareztat gorrotoa* (2000).

Aurki agertuko diranak: *Markesgaiak* (nobela) eta *Jesusen bizitza*, bertsoan.



Ondareztat gorrotoa

Auspoa Liburutegia

267



AUSPOA • SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Salvador Zapiain
“Ataño”

Ondareztat gorrotoa

Auspoa Liburutegia
(2000)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa: Irudi, S.L. Lizarra

ISBN: 84-95378-16-7

Lege gordailua: NA. 684-2000

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

Itzaurrea

GARAI batean, Ataño eta nere arteko artu-emanak asi ziran artan, eskuz idazten zituan arek bere lanak. Era ortan jaso nizkion *Txantxangorri kantaria* eta *Txori* liburuak, aspaldian argitara emanak. Baita ere bertotan tajututako *Jesusen bizitza*, inprentarako prestatzen ari naizena.

Baiña gero idazteko makinatxo bat bereganatu zuan, eta aren bidez jantzitako orriak ematen zizkidan.

Aren idazlan oiek ordenadorez pasatzea etzan neretzat ez aspergarria eta ez pixua. Batekoz bestera: gozamina izan det beti. Naiago nuke gainontzeko zeregiñak Atañoenak bezin gustagarriak banitu. Izan ere, nork ez du atsegin izango, alako euskera jator, ugari, aberats, dotore eta garbiarekin?

Ala, illabete batzuk badira *Ondareztat gorrotoa* nobela ordenadorez pasa nuala. Azken abenduan, berriz, orduko lan ori aztertu egin nuan, oker idatziak zuzentzearen. Ondoren, itzaurretako bat eransteke txolarte bat noiz arrapatuko gelditu nintzan. Urrena, berriz, nere lana Atañoari eramanez. Bideabar, nere dudak eta zalantzak berari galdetu, eta kopia bat utzi, goitik beera irakurri eta azter zezan, ori egindakoan liburua inprentara bialtzeko.

Baiña 2000-garren urte onen bigarren egunean, apalondon, dei bat izan nuan: Ataño illa zala eta biaramonean illeta izango zala, bere urtetako bizilekua izana zuan Ondarribiko Amuteko komentua elizan.

Albiste illun orrek goibeldu ninduala esan bearririk ez dago, noski. Izan ere, orain ogei ta bost urte ezagutu genduan alkar, arek bere *Txantxangorri kantaria* liburu zoragarriaren esku-idazkia nere eskuetan jarri zuanean. Geroztik, berriz, alkarrengana sarritan bildu izan gera, beste amairu bat liburu plazaratu arte. Bera umil eta txintxo, argi eta burutsu agertzen zitzaidan beti. Nola ez giñan, bada, alkarren lagun min biurtuko?

Batean, biok joan giñan aren jaiotetxera, Errenteriko Bordaxar baserrira. An ere ongi artu ninduten beraren anai Manuelek eta familiko guziak. Leendik ere ezagun ninduten eta adiskide zaar bati egiten zaion arrera eskeiñi zidaten. Arratsalde gozo bat pasa eta illuntzerako bere Amuteko komentuan utzi nuan gure Salvador.

Esan bezela, aren amairu bat liburuk ikusi dut argia. Beste batzuk, berriz, txandaren zai daude. Alako uzta bildu aal izateko beta nundik ateratzen zuan arek?

Bere idazlanak, izan ere, gizon baten bizitza betetzeko ainbat badira. Baiña oiek txolarteetan egiten zituan, eginkizun nagusia beste bat zualarik. Illetaren biaramonean *El Diario Vasco* egunkarian Ataño il berriari buruzko lantxo batean onela nion:

“Bere eginkizuna, Ondarribiko komentuan baratza zaintzea zan. Andik etxerakoan, neguan batez ere, egunak laburrak diranean, bere gelan sartu eta idazteari ekiten zion. Langille amorratua zan, beraz. Minuturik alperrik galtzen ez duten oietakoa. Ezin, bestela, eman zituanak eman. Aren alderdi onek ni arritu egiten nindun”.

Ala, illetaren ondoan, komentuko lagun batek onela esan zidan:

–Ez txolarteetan bakarrik; jai-arratsaldeetan ere aren gelatik *tiki-tiki tiki-tiki* makina-otsa maiz entzuten zan.

Urteetan, berak aitortu izan oi zidanez, orixe izan zuan bere iganderoko martxa, sasoiak lagundu zion bitartean beintzat: goizean Guadalupera igo eta ango meza entzun: gero, arratsaldeetan, siesta egin ondoren, lagun orrek esaten zuana: bere literatur-baratza ortan beste atxurkada-pare bat eman.

Ez degu igerle edo azti izan bear, arek, igitaia edo segarekin-eta ari zala ere, bere liburuetako gaiak eta pasarteak buruan erabiliko zituala, gero gelara erretiratutakoan, eguzkitan pentsatutakoa bonbillatxo baten argitan papereratzeko.

Ala, bi gauza izan ziran arek bere denbora guzian gogoz eta maitasunez landu zituanak: euskera eta lurra. Eta ondo kontuan ar dezagun biak ere bere Bordaxar jaiotetxean itsatsi zitzaizkiola.

Bein baiño geiagotan, ni arengana joandakoan, lanean arkituko nuala esan oi zidan atezaiñak. Antxe arrapatzen nuan, loretegi bat bezin txukun eta dotore edukitzen zuan bere baratzen.

Baiña lurgintza bere egin bearra zuan. Idaztea, berriz, bere bokazioa, berezko sena, barrutik sortzen zitzaion zaletasuna, ez ordea tantaka ur ematen duan iturria bezela, mendi aundi baten oiñetik indarrean ateratzen dan erreka ugari baten antzera baizik. Ezin, bestela, prosaz eta bertsoan ainbeste liburu eta idazlan osatu, lan-orduetatik kanpora, gaiñera.

Beraren anai Manuelek onela esan zidan bein batean:

-Gure anai Salbadorrek oso gaztetik agertu zuan idazteko gogo ori. Antxe jarduten zan paperak beztutzen, betarik arrapatzen zuan guzietan.

Ortaraiñoko zaletasuna jaiotzez artista eta idazle aundiak diranak izan oi dute. Baiña gizonaren jabe biurtzeraiñoko zaletasuna, eta ez gizona zaletasunarena.

Ortaz gaiñera, berriz, euskerarenganako maitasuna. Onek ere bete egiten zuan Ataño izenordeaz ezagutzen genduan gizona.

Leen aitaturako komentu-lagunak onela ere esan zidan:

–Burua galduxa zuan ezker, azken bolada Iruñeko gure gaixotegian igaro du Salbadorrek. Antxe zegoala, inork erderaz itzegiten bazion, etzuan kasorik egiten. Baiña euskeraz zerbait esandakoan, xuperralditxo izaten zuan.

Nere bisitatxo oietan, nunbait eta noizbait esan izan dedanez, gure zeremoniatxo bat bagenduan biok, bein eta berriro bete genduana. Nik ari inprentatik ateratako liburu berriren bat luzatzen nioanean, berak neri beste orijinal bat ematen zidan ordaiñetan.

Baiña mundu ontako gauzak bukatu egiten dira, nai degula edo ez degula; eta gure oitura ori ere oroipen gozo bat besterik ez da izango neretzat emendik aurrera.

Ataño zanari buruz beste gauza jakingarri asko konta nezazke. Baiña beste aldi baterako geldi ditezela. Onako auek, itzaurretxo bat egin bear eta ura il berria dalarik gogoratu zaizkidanak dira.

* * *

Orain, berriz, *Ondareztat gorrotoa* nobela berri onengatik itz bi esan ditzagun.

Leenengo, Ataño ez diola liburu oni, orain artekoei bezela, azken irakurketa egin. Nik ere ezin nere dudak eta zalantzak berari galdetu. Ala ere, aren testuari zuzenketa eta aldaketa batzuk egin dizkiot: erratak edo okerrak zuzendu, repetizio batzuk kendu, itz bat edo besteren utsunea bete, batzuetan aditzaren sujetua jarri, nork zer dion ondo

mugatu... Bera bizi zala alkarrekin egiten genituenak egin alegia, baiña betiko irizbideekin, alkarren berri ondo genekian eta.

Atañok, izan ere, eta bai *Auspoa*-ren prosa-liburuak eskeiñi dizkiguten erri-gizonik geienak ere, idazkera bakarra egin oi dute. Ala, nere eskuetan jartzen dutena leen *borradorea* edo zirriborroa da, ortik aurrerako lana nere gain gelditzen dala: aztertu, egokitu, puntuazioa jarri, bi eratan papereratu-ko itzak batera jarria, ataletan banatu, garbira pasa eta abar eta abar. Leen idazkeratik azken testuraino zenbat bide dagoan probatu duanak bakarrik daki. Ori dana, egilleari galdetuz eta beraren baimenarekin egiten det. Azken itza berari utzi, alegia. Bi edo iru egun edo arratsaldetan arengana joan eta idazlan guzia alkarren artean arretaz pasa ere bai...

Baiña liburu onen gaiari buruz zerbait esan dezagun. Liburu onen leen atala Ataños egiten duan itzaurre-moduko bat da. Ondotxo jabetzen zan zerbait puntuk argitu bearra zutela. Ona, beraz, nola asten dan:

“Euskal Errian, karriketari ez dakit, baiña baserrietan, Jainkoak dakien ezkerre eta askotan zergatik ez dakitela, sartua zegoen ezin ikusi ori. Bati baiño geiagori galdetu diet:

–Zergatik zuek asarre?

–Gurasoak ori erakutsi ziguteken eta...”

Urrena, gorroto orren frutuak azaltzen ditu. Batek bi meta belar erre auzoari. Onek ari arto-soro bat ondolik moztu... Eta ondoren:

“Jainkoak dakien ezkerre, zergatik zeuden ez bazekiten ere, baiña ondareztat zeukaten (ezin ikusi edo gorroto ori, alegia), eta gurasoak semeek ori erakusten zieten. Modu ortan beti etsai izango dira fameliak”.

Argibide jakingarria Ataños itz oiekin eskeintzen diguna, liburu au ondo ulertzeko ez-ezik, beste guziak edo geienak nola moldatu zituan jakiteko

ere. Berak ikusi, entzun edo ezagutu zituan gertakizunetatik ateratzen zituala, alegia, bere gaiak. Bide ortatik jo izan dute idazle ospetsu askok: errealitatea nobelatu edo libururatu, alegia. Eta gure Salbadorrek, baserrian jaioa genduan ezkerro, beraren berri eman zigun bein eta berriro. Atsegin zitzaion jaiotetxean entzundako tradizioetan oiñarritzea.

Antzeko gaia erabiliz betetzen ditu Mark Twain ipar-amerikar idazleak bere *Las aventuras de Huck Finn* nobelaren atal batzuk. An ere bi famili edo talde dira, Shepherdson-darrak eta Grangerford-tarrak alegia, batak bestea gorrotatzen dutenak. Alkar illak edo elbarrituak, mordoska bat lagun bada alde banatatik. Baiña famili bateko galai bat eta besteko damatxo bat maitasunak bereganatzen ditu, eta iges egiten dute. Ala ere, beren etxeetakoak ez dute ortan pakea egiteko biderik ikusten, Atañoen liburuan gertatzen danez; baizik eta amorru aundiagoa artzen dute alkar zapaltzeko. Ala, gipuzkoarraren liburuak azken zoriontsua du; ipar-amerikarraren atal oiek, berriz, illuna eta goibela.

Urrutira joan gabe, eta nik oraindik irakurri ez badet ere, gai bera erabiltzen omen du, esate baterako, Joan Mari Irigoienek ere bere *Babilonia* eleberrian.

Gai berdintsua zenbat aldiz erabili ote da mundu guziko literaturan? Naiago nuke, orren berri emateko, bear ainbat jakinduriz jantzita banengo.

Danok dakigunez, amodioak nobela, ipui eta bertso asko sorrarazi ditu emen eta nun-nai. Baiña gorrotoa eta asarrea ere ez al dira literatur-iturri oparoa izan? Nik baietz esango nuke. *Iliada*-tik asita, gaiñera. Maitasuna eta ezin ikusia, izan ere, sentimentu berbera dirala esan genezake, bigarren-go au atzekoz aurrera jiratu dana, ordea.

Atañoen liburuko bi baserri oien gorrotoa ikusten nuan bitartean, zera bururatzen zitzaidan

neri: familiak ez-ezik, elkarteak, nazioak, alderdi politikoak eta abar orrelaxe portatzen dirala, sarritan beintzat. Leendik datorren inkurrio gaizto orrek ondoren onik izango ez duala jakiñagatik, ezin amor eman eta galbide ortan segi aurrera.

Ori dana Atañok ondo gogoan edukiko zuan, liburu au osatzerakoan, bera ere gorrotoak zer dakarren bere denboran ondo probatua zan eta. Ala, aizeak beste egal batetik jotzea naiko zuan. Pakearen aldeko dei indartsu bat da, beraz, liburu au. Kasorik egingo ote diogu? Sinistek lan du, gaurko egoera ikusita...

A. Z.

Azio txarrak

EUSKAL Errian, karriketan ez dakit, baiña base-
rrietan, Jainkoak dakien ezkerro eta askotan
zergatik ez dakitela, sartua zegoen ezin ikusi ori.
Bati baiño geiagori galdetu diet:

–Zergatik zuek asarre?

–Gurasoak ori erakutsi ziguteken ta...

–Eta ez al dek azterketaren bat egin, zertatik
datorren ori jakiteko?

–Berak ere ori egiten zigutek guri. Guk ere bai aiei.

Gogoan daukat: baserritar batek bi meta belar
erre zizkion arrats batean auzo bati. Onek laster
antz eman zion noren lana zan ori. Aiek ezagutzen
ziran eta etzuten egundo elkarrengatik ondo itze-
gin-go. Guk ez genekien sutzaille ori nor zan; baiña ba-
karren batek laster jaso zuen azio ori nork egiña
zan.

Ixilik eta ori ortara bukatuko zala etsi ta gero
etorri zan ordaiña. Andik illabetetara, arrats batean,
arto-zelai bat ondo-ondotik moztua agertu zan. Jen-
deak uste zuen ori dena ero edo mozkorren baten
lana izango zala, eta baserritarrak asi ziran beren
barrutiak zaintzen ero ori arrapatzeko.

Esakupetarekin bere barrutiak zaintzen zegoen
bati galdetu zion lagun batek:

–Zer egiten dek emen?

–Bi meta belar erre zizkiteken, ta gero beste ba-

serri batean arto-zelaia. Urrengoan nerean berdin egingo ditek, eta badaezbada ere zaindu.

Esan bezela, jendeak erotzat artu omen zuten; baiña ori ez da egia. An zebiltzanak ondo zekiten zer egiten zuten. Lenengoak bi meta belar erre zituen, eta bigarrenak ordaiñez arto-zelaia. Iñondik ere au zan zeletan zegoena ordaiñaren zai. Erriak etzekien, baiña aiek bai.

Jainkoak dakien ezkerro, zergatik zeuden ez bazekiten ere, baiña ondareztat zeukaten, eta gurasoak semeei ori erakusten zieten. Modu ortan beti etsai izango dira fameliak.

Ordaiñak ematera etorri zan eskupetarekin zai zegoenarengana. Erne zegoen zelataria. Eta ango txabol txiki bati sua ematera zijoala, etorri zitzaion atzetik ipur-masailletara eraso, baiña gatzezkoa. Aren jauzi ta karraxiak! Atzera begira egon gabe aizkatu zan andik.

Norbaitekin izketan asten baziñan, bereala antz emango zenion, zuk aipatzen zenuen gizonen baten alde mintzatzen baziñan, etzuela gogozkoa. Bereala asiko baizan arengatik gaizki esaka. Zuk berriro gaizki esaka ori uzten bazenduen, arek berean jarraituko zuen.

Bi bizitzako baserriak ziran ontan beldurgarriak. Eta ortan ia gaiztoenak emakumeak. Arian-arian illerazteraiño iruzurtzen zuten senar gaixoa.

Gure etxean bertan aita zanak etzuen egundo auzoko gizonagatik ondo itzegiten:

-Zar orri, zar orri kittirriku, aiaiaika, txabuban-txabuban sartuko al zaiok abuban, debitik-debitik. Sartuko al zaiok begitik!

Egundaiño ez bere izenez.

Batez ere ezkontzeko kontuan jartzen ziran gaiztoak. Bere gustoko neska edo mutilla ez bazan, bereala erasoko zion amak edo aitak:

-Orrekin ezkontzeko asmoan al abil?

-Zer du, bada, orrek?

-Orrekin ezkontzeko asmoan baabil, baoake etxe ontatik.

-Nik maite badet, zergatik ez naiz ezkonduko? Ez al da nere egitekoa, eta ez gurasoena? Zuek zertan sarturik bai al daukazute?

-Nai dekena egin zak, baiña etxe ontako maiorazkoa galdua daukak. Gu bizi geran arte, etxe ortakorik ez dek sartuko etxe ontan. Andregaiia utzi edo sortetxea, edorrek aukeratu. Gure antziñakoetatik datorren ezin ikusia dek ori.

Etxe askotan ibiltzen dira gaizki.

Bide ondoko gurutzeak

NORBAITI entzuna daukat bide ondoko gurutze oiek geienak indarrez ildakoren baten oroigarriak dirala; gorrotoaren lanak, gizaldiz gizaldi zeto-rrin ezin ikusiaren ondorenak.

Ez nion sinistu. Bakarren batzuk litekena da. Baiña geienak ez, iñondik ere. Elkar iltzeraiño go-rrorik etzan izaten. Bakarren batzuk baliteke. Gurutze asko ikusi ta aztertu ditut, eta bi bakarrak bi-llatu ditut ari entzuna egia ote zan ziruditenak. Ia geienak, nola edo ala erorita edo biotzeko eraso gaizto baten ondorenak.

Askoren artean billatu nuen bat Landarbasoko artzuloaren ondoan, baiña ez da ain segurua. Leku basatia da ura, artzulo aundi batzuk badira, eta lu-zaroan jentillen bizilekua izana.

Gorotz edo ongarri asko omen zegoen bere ba-rruan, eta inguruko nekazariak ari ziran atera ta eramaten. Bakoitzak bere gain artu nai zuen ango negozioa. Baita azkeneko asarretu ere. Sekulako ez-tabaidak edo istilluak erabili zituzten, eta illunabar batean joka il omen zuten batak bestea.

Indarreko lana zan, baiña emen ez da ageri len-dik elkarren gorrotoan zeudenik. Berekoikeriaren lana iñondik ere,

Aritz batean egiña ere ezagutu nuen. Aritza moztu zutenean, galdu zan betiko aren aztarrena. Eriotz triste baten oroigarria izan bear zuen. Beeko emakume batek oso eriotz gaiztoa eduki baizuen.

Larraburu izeneko bi bizitzako baserria zan. Askotan joaten giñan gu ara, ango amonak zikiratzen baizituen inguru aietako baserrietako oillaskoak. Baiña kontatzera goazen gertakari auek lenagoakoak dira.

Len esan detanez, bi bizitzako baserria zan; eta, zoritxarrez, Euskal Errian –beste lurretan ez dakit–, bi aldeak elkarri lagundu bearrean, bata bestearen etsairik amorratuenak izaten dira askotan, laster ikusiko dezuten bezela. Eriotz oien zirikatzaile, geienetan emakumeak izaten dira, orduan bezela.

Bi bizitza aietako etxeoandreak ez omen ziran ondo konpontzen. Etxe batean bizi ta noiznai topo egiten; eta askotan, senarrak beren emazteak babesteko, elkarren aurka ezer etzutenak burruka jarri erazteraiño berotzen zituzten bi gizonak. Aurretik igaro ziran bi edo iru fameliak olaxe ibiliak izan bear zuten.

Artara ezin bizita, bietako batek bestearen emaztea iltzea erabaki zuen; baiña bere emazteak zirikatuta.

Orduko legeen berri badakizu. Neketsua zan benetan kaletik egiten zan joan-etorria. Tratu asko zerabilkitenak astoz egingo zuten. Orrekin erruz arintzen zuten beren lana. Besteak buruan saski txabal batean eramaten zituzten beren esne ta tratu pixarrak. Ekarri ere bai kaletik bear zutena.

Auzoaren berri ikasi zuten; eta, pakerik izango bazan, iltzea erabaki zuten.

Aldapa zakar batean beera jexten zan etxera, bide lasterretik, auzoko emakumea, ia beti ordu bearrean, amaikak alde ortan. Leku basatia zan oso. Aritz aundi batzuk baziran lerroan aldatuak.

Goiko bidetxigorretik etxera artzen zuen lekuan gure gizona aldapak gora igota, aritz aundi aietako baten atzean, ixil-ixilik, urduri samar. Emakumea

betiko orduan etzala ageri ta bi emakumeen aurka jarduna izan bear zuen, bidetxigorrera begira.

Aritz aundi aietako baten atzean ezkutatu zan, aizkora aundi bat berekin zeramala, emakumea noiz etorriko eta luzetetsirik, amorratua.

Noizbait, bere saskia buruan, erdi ametsetan noski, bere atsegin da naigabeak ausnartuz, aritz aundi aren atzetik igarotzerakoan, au, gaixoa, etzan oartu iñor ezkutuan zai zeukanik.

Eta gizonak, indarrez aizkora aundi arekin garrrondoan jota, an utzi zuen zerraldo illa, gorputza batera ta burua bestera, emakume gizarajoa, bi zati egiña eta saskian zeramazkien traste pixarrak sakanatuak.

Lasai-lasai jetxi omen zan. Eroa zan edo, beste-la, gezurra esaten dute, emazteak ondo beartutako lana izango zala ori.

Iñork ikusi etzuelakoan, aizkora putzu-zulo batean ezkutatu ta gero, guardiazibillak billatu zuten.

Bere emazteari egindako lanaren berri emanta, ezer gertatu ez balitz bezela, bere lanera joan omen zan.

Emakume ori etzala ageri ta asi ziran aren billa. Illa arkitu zutenean, alargun berriak beste bizitzako gizonaren susmurra egin zuen bereala. Baitu zituzten senar-emazteak, eta txuxenean Donostira eramane. Auek, berriz, dena ukatu; baiña alperrik.

Baserri ori altuxka batean dago, baiña bi mendiren erdian. Iltzaillea aietako batetik igo zan; baiña beste mendi-egalean lanean ari ziranak ikusi zuten gizon ori amarrak aldean igotzen. Gero, andik ordu bat inguru, nola igotako bidetik jetxi zan. Bestela ere etzeukaten babesik, auzoak bazekiten nola zebiltzan ta.

Justiziak etzituen il erazi. Beren aldeko aringarriak izango zituzten eriotz ortan. Baiña luzaroan

espetxean egon ziran. Il ere an il ziran biak, lenengo emaztea; eta askatuko zuten bi egun aurretik, senarra. Beren etxean baiño bizimodu ohea eramane omen zuten baitegian.

Bide ondoko gurutze auek badituzte, bada, beren kondairak, eta zergatik jaso zituzten beren arrazoiak ere bai. Oien berri azalduz, liburu interesgarria egin liteke.

Auzoko aitona

AUZOAN bizi zan aitona bat ikusten nuen, ango gurutzearen aurretik igarotzerakoan, txapela erantzi ta errespeto guziarekin ziñatu ondoren, aita gure bat errezatzen zuela, an ildakoaren oroigarri bezela noski.

Gurutzeak garbitua eta zaindua zegoela zirudien. Untza zijoakion gerrian gora biurrika, bere besoetan barrena bururaino. Askotan lore-xorta bat ere bai, jakiña, aitona xaar arek bidean bildu ta jartzen zizkiona.

Gorputz aundiko aitona bat zan ori, ordurako zaarra ta benetan aurrera eroria, eta bi eskuak bizkar gaiñera. Xarraka-xarraka bide artan barrena bere atzera-aurrera egingo zuen, etxe batetik bestera.

Aitona orrentzat gurutze ori zer oroigarri ote zeukan, ia egunero ori ezin antolatuz ikusten nuen eta? Irakurri nuen gurutzearen buruan idatzia zegoena, letra zakar batzuekin jarria:

“Ernesto Makatzaga emen erori zan billaukeriz illa, 1890-ko urriaren 10-ean”.

Jakin naiak eraginda, egokiera nuen batean, galdetu nion gure aitonari:

–Gurutze orri eraspén aundia diozu?

–Bai, benetan. Neretzat, beiñepén, oroigarri bikaiña dauka. Ez da oraintxekoa, baiña ezin aztua gurutze pake-egille au.

-Orren gora-beeren berri jakingo dezu noski,

-Ez litzake, bestela, orren zaindua egongo. Ni jaio baiño illebete batzuk lenago jaso da. Len ere esan dizut nik *pake-egille* deitzen diodala.

-Agian zuetakoren baten oroigarria?

-Bai; nere aitonarena.

-Eta zergatik ere jakingo dezu?

-Baita. Ori ere badakit, ni mundura jaio baiño len gertatua dan arren. Amaika aldiz aren alaba ta nere amak kontatua.

-Illunpetako lana orduan?

-Bide-bazterretako eriotz auek guziak bezela. Baiña eriotz onek moztu zuen. Gizaldiz gizaldi ondare bat bezela gurasoetatik seme-alabetara zetorren elkarganako gorroto edo ezin ikusia zeukaten bi fameli, emen, onen aurrean, adiskide egin ziran, asarre zergatik zeuden etzekitenak.

-Interesgarria da orduan onen istoria?

-Denak ez dute ori esango; baiña neretzat benetako ezin aztua.

-Gurutze auek orrela jasotzeko, badirudi errian zarrastada aundia egiten zutela. Etxekoak jarri eraziak izango dira, gaiñera. Bestela, bat il dala zeñi ajola bear dio? Gurutzea jasotzeraiño ez beiñepein.

-Bai; gaur baiño aundiagoa noski. Gaur egunean, txakurraren berdintsu iruditzen zaigu. Egunik ez degu orain, indarkerizko eriotzik egiten ez danik. Berebillak lerdekatua, katu zaar bat ikusi edo gizona bide-bazterrean illa ikusi, berdintsu zaigu. Ez digu batere zarrastada aundiagorik egiten. Eriotz-leku oietan gurutzeak jartzen asiko bagiña, bazterrik geienak beteko genituzke. Orduan banakak erortzen ziran. Garai aietan pertsonari benetako begirunea zitzaion, eta il zuten erri artan benetako naigabea eman ere, aurrean daukagun onek bezela. Oso mai-

tea zuen au erriak. Orregatik jasotzen zituzten gurutzeak ildako oien oroigarri. Garai artan, gaur ez bezelako sinismena zegoen Euskal Errian.

–Orain, jarri bearrean, kentzen asiko zaizkigun beldurrak nago.

–Nik ainbeste maite detan oni ere. laster etorriko zaio ordua. Ez degu olakorik nai; baiña ni bizi naizen arte ez dezatela olakorik egin.

–Eta iltzaillea arrapatu al zuten?

–Bai. Etzan oso zailla izan. Bere merezia eman ere bai. Erriko enparantzan, jendearen aurrean, urkatu omen zuten, orduko oitura zan bezela. Zintzilik jarri ta ito baiño lenago, iru aldiz jo omen zuen ostikoz bere burua. Irugarren jauzitik zuzendu zanean, bat-batean illa geratu omen zan. Eskarmen-tagarri, alegia, ikustera joanak ere bai omen ziran. Berentzako! Nik biotz biguiñagoa det. Neretzako ez litzake atsegiña ori. Txakurrak egin omen zuen testigu.

–Nai nuke kontatuko balidazu. Zure adiñean, gaiñera, lan-presarik ez dezu edukiko. Goazen aurreko tabernatxo ortara. Merienda-lege bat egiñez, jaulki bear didazu ori dena, zuk dakizun bezela, ondoren liburutxo bat egiteko gairik badauka beiñepain; eta, bukatzean, bat bialiko dizut.

–Eskerrik asko. Ez dago gaizki esana. Tabernatxo orrek zer ikusi aundia dauka gertakari auekin. Ortik etxera zijoala il zuten. Libururik egiten badezu, euskeraz idatzia bada, agindu bezela biali bear didazu bat.

Taberna txuloan

—1 880-tik goragoko kontuak dira auek denak, eta oraindik orduko taberna txutik dago. Nik eraspen aundia diot. Beste bi badira errian, baiña neretzat ez balira bezela. Ez da oraintxe jasotakoa izango. Jakiña, erria azitzen dijoa eta urbildu zaio kalea. Bai jendea ere ugaritu. Nik ezagutu nueneko itxurarik ez dauka. Dena berritua, aurrerapen guziak jarri dizkiote orain. Orduan joan-etorri aundia zeukan jendeak, gurdibide kaskar baten ondoan egon arren. Urbillenko erritik kilometroren bat inguru urrun zegoelako noski, erriko ertzaiñak erabat utzia zeukaten. Ez ikusia egiten zuten. Bitartean, arrats guzian izaten ziran parranderoak. Txikia zan; oso txikia. Alare, tarteka jana ere ematen zuten. Kontrabandisten kabia zala ere esan gentzake. Or konpontzen ziran bi aldeak.

Ori dena kontatu zidan, bada, aitonak, merien-datxoa ekartzen zuten bitartean.

—Orduan emengo bezela zaituzte zu. Etxeko bat bezela, alegia.

—Bai. Ez degu leku txarra aukeratu. Irurogei urte auetan au da nere erriko taberna. Konpromisoz ezik ez naiz ni besteetara sartzen. Taberna txiki onek izketan baleki, nik baiño obeto kontatuko lituzte nere bi aitonen gora-beerak. Len esan dizudanez, beren istilluak emen asi ziran. Bukatu ere bai noski. Nik ez nituen ezagutu, baiña bi amonak bai. Aitonak il da gerora ere, asarre jarraitu zuten elkarrekin.

-Bi aitonen gora-beerak esan didazu?

-Gurasoen ondare bezela zetorkien ezin ikusiarri, indar ikaragarria eman zioten bi aitonak. Biak ere indartsuenetakoak ziran. Elkar nork menderatu, sekulako burruka-saioak egin zituzten. Baiña erruduna nere aitaren aita zan; ez amarena. Or goian dagoen baserri kaxkar ortan jaioa zan nere amaren aita. Alako fameli batentzat kaxkarregia. Inguru auetako gizonik indartsuena bera izango zan. Eta bere semea, nere amaren anaia, oraindik indartsuagoa. Baiña biak ere paketsuak ziran. Oso gizon atsegin ta goxoak. Baserriz gaiñera, beste lantegi batetik bizi ziran. Lau benetako eraspenak zituen nere aitona Ernestok, amaren aitak alegia. Ala zuen izena, eta emendik aurrera izenez deituko degu.

Lenengoa, bere famelia. Oso bereen maitalea zan, gerora kezka gaiztoak izan bazituen ere. Emaztea bere antzekoa zuen. Etxe artan ondo konponzen ziran beren gurasoak begiak betiko itxi zituzten arte. Gazteak erdi goseak biziko baziran ere, zaarentzat etzan ezer ere paltako.

Bigarrena, eliza. Jendearen aurrean zakar xamarra bazirudien ere, sinismen berokoa. Jakiña, etzan egunero mezetara joango. Bere lanari lotua bizi zan ura ere. Baiña bearrezkoa zanean, bai beti. Arek urteetan etzuen illetarik utsegingo. Orduan semea bialiko zuen bere orde z egurketara.

Irugarrena, kirola. Euskal Errian oso ezaguna zan Ernesto, batez ere idi-apustuetan. Ortatik mantenu ona ta dirua ere polliki ekartzen zuen. Ortara deitzen dutenekin, idi-jabeak ez dira zurrak izaten.

Laugarrena, taberna txiki au. Iru etxe auetan eta itzai joan zan aitonaren bizia. Etxean bear ziranak irabazteko, etzuen alperkerian egun asko galdu.

Onen jaiotetxeak Bidegain du izena. Kaxkarra. Barrutiak, berriz, aldapa legor batzuk. Baiña nonbaitik sortzen zuen etxean bear zana.

–Orduan etzenduen zuk aiton ori ezagutu?

–Ez, Len ere esan dizut ni jaio baiño illebeta batzuk lenago il zutela. Nik dakidana, aren alaba zan nere amak esanta dakit. Artaz itzegiten asten giñanean, ezin aspertua zan ura. Nere aitaren aita ere ez nuen ezagutu. Ni jaiotzerako, bada, aldegiñak nituen betiko bi aitonak mundu ontatik. Gure etxeak Zurgindegi dauka izena, eta baserri bikaiña da. Aitona, berriz, gizon ederra omen zala. Aita ere bai.

–Bai. Ainbeste maite zuen batek ondo itzegitea ez da arritzekoa.

–Zuk usteko dezu santuren batzuk genituela bi aitonak.

–Gutxi gora-beera badakigu emengo baserritarren pekatu ta birtuteak nolakoak diran: ondo jan da edan ezkeru, kontentu.

–Oartu nintzanez, Euskal Erriko sendi geiagotan ere bada itxura gabeko pekatu bat, eta gurean ere bai, bi fameliak berexten zituena; eta, amak esaten zidanez, kendu nai etzutena.

–Zer zan, bada, olako pekatu biurri ori?

–Gurasoetatik ondare bezela zetorren gorrotoa; bi famelien elkar ezin ikusia.

–Nik ere ezagutu izan ditut olakoak, bai.

Ta oraindik ere badira. Gizaldiz gizaldi naiz fameliak berritu, zaarrak ilda, gazteak, aien lekua artuz, itxura gabeko ezin ikusi ortan jarraitzen dutenak. Galdetzen badiezu ori zergatik, ez dizute arrazoi garbirik emango. Bai; txikitatik datorrena. Aiton-amonak auzokoezin ez ibiltzeko esaten omen ziela beren seme-alabei. Baiña ori zergatik zan, egundo ez. Anbat berak ere etzuten jakingo; eta beti, egokiera zuten guzietan, beren seme-alaben aurrean aiengatik gaizki esaka. Orduan adiskidetu etziran ezkeru, bere artan jarraitu zuten gero. Agurtu bai. Ez ori ere beti. Baiña ortik aurrera gutxi.

Gurasoak seme-alabei eransten zieten gaitz kutsakor bat zan ori. Kontuz oietakoren batekin ezkontzeko tratuan asi. Bestela, laster moztuko zuten ori. Baita etxetik bialtzeko zemaiz gaiztoak egin ere.

–Maitasunari ere atepak itxi?

–Bai; al bazuten beiñepein. Nere amarekin ere ala ibili ziran. Berdin aitarekin ere. Bestela, botako zituztela etxetik ezeren laguntzarik gabe. Larru gorririk, kanpora ezkondu bearko zutela.

–Diruaren kontua ere bazan zerbait orduan. Zenbat ontzako urre ekarriko zituen ondare bezela garbi azaldu bearko zuten. Ezkondu aurretik etzegoen txorakeririk.

–Baiña elkarrekiko ezin ikusi txoro ori askoz okerragoa zan. Bi etsaiak elkarrekin zebiltzala oartu orduko, Jesus sanedriñean bezela artuko zuten semea edo alaba beren gurasoak. Uzteko neska ura. Sendiarekin Jainkoak zekien ezkeroz asarre bizi ziralara. Alare, jarraitzen bazuten gurasoei entzungor egiñez, laster etorriko ziran zemaiak: “Or konpon adi. Etxetik kanpora joan bearko dek. Xentimorik gabe geratuko aiz, gaiñera. Etxe ortakorik ez dek emen sartuko”.

–Oiek lengo kontuak izango dira.

–Bai, Jaunari eskerrak, ontzako urreak bezela betiko bukatu ziran ta. Beste ezin ikusi ori ere badijoa gutxitzen. Baiña oraindik elkarrekin konfiantza gutxi, eta mingaiñean beti prest gaizki esakak.

Bi baserrietakoak olaxe bizi ziran, bada: beti elkarren etsai. Eta, zaartzen ziranean, besteko gazteen igesi. Nik olaxe ezagutu nituen nere txikitari.

Sendi bikaiñak zeuden bietan ere, baiña Bidegaingoa jatorrena.

Bidegain eta Zurgindegi bi fameli auek ziran, bada, aspaldi artan elkarren gorrotoan bizi ziranak. Beti indar-kontuan nor geiagoka, erriko buru izan naia, aspalditik zetorrena.

–Ni, berriz –zion nere aiton izlariak–, bietako frutua naiz.

–Gizarajo oiek beren buruak mantentzeko aiña ateratzen ote dute baserri miserable ortatik? –zioten nere baserrikoak, Zurgindekoak alegia.

Nere aita zanak *Auzo-kalte* esaten zion Bidegaiñi. Lapurretatik bizi zirala, alegia.

–Etzekit zuek urretan igari bizi bazerate ere. Baiña, bere miseri ta guzi, itzal aundia zeukak baserri orrek –erantzungo zion norbaitek–. Edo zuek laguntzen al diezute? Beti ezagutu dizkit orko gazteak indartsu ta langilleak.

–Bai. Ori ez dit ukatuko. Zaarrak joatean, gazterik bai al zetorrek or? Oiek, berriz, katuak txakurraren aurretik lasterka dijoazen bezela, urteak dituk nere igesi dabiltzala.

–Kontuz arrokeri oiekin. Ik ere ez ote dek an ala ibili bearko?

–Ume mukizu bat besterik ez dit ikusten nik or.

–Bai geiago ere dotore askoak. Ernesto, zaarrena, ez al dek ezagutzen?

–Bai; mukizu bat oraindik. Ori azitzerako, txalak ere umea egingo dik. Orren aita xaarrak, gogorra izan bada ere, orain bear dik laguntza, orain. Aspaldi ontan, len esan detanez, nere igesi zebillek.

Ori omen zan Zurgindegiko Santi nere aitona-
ren arrokeria. Bere gazte denboran gizon bikaiña ta indartsua bera ere, eta Bidegaingo zaarrari, len gogorra izana, tratu txarra ematen omen zion. Au, berriz, orren iges zebillena, baiña bere seme Ernestoren itxaropenetan, ordaiñak emateko. Lasaitu bearrean, azitzen zijoan bi sendien ezin ikusia.

Ernesto gaztea, ordea, azi ta azi goraka zijoan. Bidegaingo semerik zaarrenak eta onek amar bat urteren aldea zeukaten.

Gazte onen aitak, berriz, esan degunez, seme gazte onen itxaropena zeukan, auzokoen arrokeriak mozteko. Baiña gaztetxo oraindik. Au gizontzen zan arte, auzokoen arrokeriak artzen eta aien isekak entzuten bizi bearko zuen. Ura sartzen zan lekutik igesi. Tabernatik berdin.

Bitartean, Ernesto seme gazteari auzokoak nola zerabilkiten eta sasaira zetorreanean ez barkatzeko zirika beti, gorroto ori piztu erazten, ari zitzaion aita.

Semeak, berriz, etxeko ondare bezela artu zuen aitaren eskari ori. Alegia, ari bere ordaiñak ematea. Alare, semea etzan ain itxua. Besteak ez bazion erasotzen, orrengatik pakean biziko zala. Ori zan beti semearen erantzuna. Okasioak etzeukatela bein ere gauza onik.

–Ez al dituk ik gurasoak maite? –esaten zion aitak aserre.

–Maiteko ez ditut, bada? Baiña pakean datorrenari zertarako eraso bear diot? Berdin mundu ontan ez da etsai txikirik. Eskuz ezin badu, erremientaren batekin ondatuko zaitu. Aurretik ezin badu, atzetik.

–Eta arek erasotzen badik?

–Orduan nere burua babesteko beartua nago, baiña ez zurekin garai batean aserre bizi izan zalako. Nik ez daukat iñori besteren ordaiñak emateko gogorik. Ori, gaiñera, ez da kristau legea.

Aitak antz eman zion semea bera baiño indartsuagoa zetorkiola, baiña askoz paketsuagoa ere bai. Aitari arek egindako iseka ta erasoak aztuta geratuko zirala. Baiña egun batean Santik berak sutu zuen, Ernestok moztu nai zuen gudua.

Santi eta Ernesto

NONBAIT esan degunez, Ernesto baiño amar bat urtez zaaragoa zan Santi. Onen beldurrak zebillen gaztearen aita zaarra. Au kaskaildu zanean, jotzeraiño ausartzen ez bazan ere, onen lagunak babesten zutelako. Oien beldurrak, bada, gaizki tratatzera etzan ausartzen; baiña beti isekaz eta desai rezka zerabilkien, eta zaarra orren iges.

Gazte dotorea omen zan Santi, nere aitona. Bera ere aundia eta indartsua. Baiña Ernesto ere mutil bikaiña zetorren. Bere aitak zionez, aurki ordaiñak emateko modukoa. Baiña gorputzez Santi ederragoa eta egokiagoa omen zala, bestea baiño. Baiña arro utsa, ordea. Santik ogei ta zortzi bat urte ta Ernesto gazteak emezortzi zituela eduki zuten lendabiziko talka, orain meriendatzen ari geran taberna txiki ontan. Bere amak ala esan zidan.

Goiko soro baldar ortan, aldapa legor zakar ori aiena baita, eguzkia galgal zegoela egoarte santu guzia segan igarota, suillarekin ura botata bezela bustia, bere lana bukatu ondoren, zerbait artzeko asmoan, taberna txiki ontara, sega soroan utzita, sartu zan Ernesto. Ordurako luzatuko zana egiña, baiña ez oraindik bear bezela sendotu ta trinkotua, emezortzi urteko mutil gazte indartsua.

Tabernan, oillotegian oillarra kukurrukuka bezela, an ari zan Santi bere aunditasunak kontatzen, batzuek atsegiñez eta besteak nazkaz entzuten ziotela. Baiña etzan iñor ere aurka egitera ausartzen.

Ernesto tabernara sartu zanerako, Santik arro begiratu zion. Bai besteak aguro antz eman ere, bere kontuak artuz.

-I al aiz Bidegaingo semerik zaarrena? -galdetu zion arro.

-Bai. Egia diozu. Ala esaten dute.

-Ondo aitaren antzekoa aiz. Gizonaren itxura baiño ohea daukak artzarena, ire aita dan bezelakoxea.

-Itzetik ortzera iseka egiñez zeren billa abil? -galdetu zion tabernariak.

-Irekin etzeukat ezertxo ere. Orrekin dizkit kontuak -erantzun zion.

-Ni nauk tabernaria eta emen nik agintzen dit. Ez dit okasiorik nai.

-Ez al didak neri erantzun bear? -galdetu zion arro Ernestori.

-Ezer galdetu al didazu? -erantzun zion onek, badaezbada ere erne eta zuka.

Geiago ere baziran an, eta igerri zioten Santik nolako asmoak zerabilzkien: begiondoko bat eman ta andik bialtzekoa.

-I bezelako mutil mukizuak ez ditek tabernara sartu bear,

-Ez al da, bada, ori tabernaria? Lasaitu zaitte. Neronek ordainduko det eta berealaxe aterako naiz emendik.

Santik, itzez erantzun bearrean, gazteak uste gabeen, sekulako ukabilkazoa tira zion, Ernestoren erantzuna burlatzat artuz. Baiña ala bear ta etzuen ondo arrapatu. Bertan zerraldo botako zuelakoan noski; baiña au txutik geratu zan. Bai onek erantzun bera eman ere, eta ondo xamar arrapatu gairera, bala baiño biziagoko ukabilkada batekin. Eta naiko lanekin geratu omen zala Santi txutik, ortze-

tatik odola zeriola. Biak lotzera zijoaztela, sartu zan begira zegoen jendea.

-Ik oraindik amaren magalean egon bear uke -esan zion, amorratua, Santik.

-Bai. Ala izango da. Baiña nere ukabilkadak ere min ematen dutela. Santi, badakit nere aitarekin nola zabiltzan. Ori dena aaztu ta pakeak egiteko asmoan nenbillen ni. Baiña baliteke geiagotan elkar ikustea, okasio billa bazabiltza.

-Zemai egiten al didak?

-Ori ez da egia. Oraindik garaiz gaude gure ase-rre txoroak utzi ta bein betiko pakeak egiteko -erantzun zion gazteak.

Elkarri erantzun zorrotzak emanez, berotzen ari ziran biak.

-Joan adi, joan, Santik zer egin diken aitari esatera.

-Ez ote dezu zerorrek aundiagoa artu? Ez didazu beiñepein gizalege aundirik erakutsi. Baiña orrela bazabiltza, arrapatuko nauzu.

-Joan adi, joan, onekin burruka ibiltzeko oraindik gaztetxo aiz ta -aolku eman zioten begira zeudenak.

Ikusten baizuten asarrealdi ura gero ta okerrago jartzen ari zala. Baiña Santik urte gutxi barru gaztearen mende geratu bearke zuela zan tabernan zeudenen iritzia.

-Ez dakit, baiña larri zan bera ere. Nik ez diot eraso. Bai; joango naiz. Baiña, tabernara naizen ezkerro, baxoerdi bat bederen artu gabe ez.

Eta ausarditsu aurrera sartu zan. Berak eskatu zuena artu ta ordaindu ondoren, begira zeudenak, baita etsaia bera ere, arrituta utzirik, lasai-lasai denak agurtuz atera zan tabernatik, ordaiñak emateko asmoan, bereak ordea, ez aitarenak.

Ura andik atera zanean, ikaragarriak esan zizkioten Santiri tabernan zeudenak:

-Bear gorrian tabernara sartzen dan besteren semerik ez dek orrela jotzen. Arek itz erditxo bat txarrik esan gabe gainera. Oso ondoren gaiztoak ekarriko dizkik orrek. Etsai gogor bat, lagun bear uana, egin dek. Gaur ere, utzi bagenio, bere emezortzi urterekin etzekiagu nola ibiliko inun. Aita zarrak ere zirikatuko dik. Oraindik orren mende ibili bearra augu.

Gaztea etxera joan zanean, aitak ala galdetu zion:

-Zer dek arpegian? Erori egin al aiz edo...?

-Zurdingeko Santik jo nau, tabernara joan naizelako.

-Ez nauk batere arritzen. Biotzik ez duen gizona dek ori -erantzun zion.

-Baiña ez dakit berak ez ote duen aundiagoa artu. Aren erasoak ez nau beldurtuta utzi. Nik ere ordaiña eman egin baidiot. Lotzen asi geranean, bertako jendeak "Oa etxera, Ernesto. Obe dek" aolku ori eman dit. Obe detala, oraindik gaztetxo naizela ta. Baiña zergatik diozu etzerala batere aritzen?

-Ez al dit milla bider esan gizaldiz gizaldi ni orko jendearekin burruka ibili naizela? Etzidateken zergatik esan; baiña bi fameliak aserre bizi gaituk, batez ere orren aitarekin. Ni zaartu naizen ontan, berriz, Santirengandik igesi nabillek. Bere aita baiño geiagoa dek au.

-Eta ez al dakizu zergatik?

-Ezta deusik ere, aserre gaudela besterik. Neri aitak, nik iri bezela, ori erakutsi zidaken. Baserriko ondaretzarekin batera zetorrek ori. Etxera ezkontzen danari tokatzen zaiok etsaiari ordain emate ori. Azken urte auetan ni Santiren igesi nabillek.

–Ondo dago. Ni ez naiz, bada, ibiliko. Egokiera obean arrapatuko det, nere atzetik badabil. Ez nuen olako asmorik, baiña berak sutu dit gerra. Ori nai badu, nere aldetik etzaio paltako.

–Bejondeikela, Ernesto –goraipatu zuen aitak–. Nere odolekoa aiz i ere. Aren ukabilkadak nere sermoi guziak baiño geiago berotu aute. Baneukaken orren itxaropena.

Ori joan zan. Urte batzuetan pakeak izan zituzten gaztearekin. Afrikara soldadu joatea tokatu zitzaion. Baiña bere aitarentzat urte gaiztoak izan ziran aiek: etsaia zebillen tokitik beti igesi.

Ango lanak bukatuta, gizon bat egiña etorri zan. Ez soldaduskagatik; urteak egin zuten gizon. Aita arkitu zuen ondatu samarra. Semea etorri zanean, arek zerabilkien lantegia artu zuen gazteak, zaarra etzan gauza ta. Malkar legor aiek ere naiko utziak arkitu zituen, gaiñera, Gazte sasoikoa etorri bazan ere, bazeukan non joa, dena bere bizkar geratuko baizan.

Aspalditik, gurasoetatik asita, sendiari zetorkion lana, idiekin menditik okindegira pagota ekartzea zan. Baiña, al zuenean, etxearen lurra ere jo bearra zeukan. Bera baizan Bidegaingo maiorazkoa.

Ala bear-ta, alako batean, lengo okasioko soro ura ebaki ta taberna artan bertan sartu zanean, an arkitu zuen Santi, beti bezela arro-arro, jendeari kontatzen batez ere Ernesto nola etorri zan eta arekin kontuak garbitzeko asmoak zituela. Tabernako batek aolku au eman zion:

–Len ere orrekin gaizki atera intzan, eta orain ez dek eskasagoa etorriko.

–Orduan suerte ona eduki zin. Baiña, ez balute biali, erakutsiko nioken norekin zebillen. Ordaiñak eman arte ni ez nauk lasaituko.

–Edorrek kontuak atera. Nik olakoak lagun naiago dizkit, etsai baiño.

Ernesto sartu zanean, bada, ala esan zioten:

–Lentxeago esan bauan, lenago azalduko uan. Kontuz, Santi, orrekin.

Inguru artan indartsuentzat zeukaten Santi. Ogei ta amar urte izango zituen laster. Elkar ikusi zuten. Bai biak ondo neurtu ere. Ernesto gizon sendoa etorri zan andik, eta benetan sasoikoa. Soldaduskan, berriz, burrukari ikasia. Ortarako giltza guzien berri zekiena. Edozein sartzan zan arekin!

Jendeak bereala jan zuen:

–Barea baiño motelagokoren bat ez bada, ba-zeukagu puska bateko jauntxoa. Baita okasioa ere. Santik ordaindu naiko zioke len gertatua. Baiña Bidegaingoa ez dek emezortzi urteko mutilla, gizon gazte sendoa baizik.

Ernestok bere baxoerdia eskatu zuenean, ala esan zion Santik, goitik beera neurtu zuenean:

–Ez al aute moroak il?

–Emengoa baiño paketsuagoa dek ango jendea.

Lengo eskarmentua gogoan zeukan eta erne zegoen badaezbada, billaukeriz urbidu zala iruditu baizitzaion.

–Aitaren ordezen lantegian sartu omen aiz.

–Biziko bagera, zerbait egin bearra zeukagu. Aita ez dek oraintxe ezertarako gauza,

Len zuka itzegiten zion, baiña orain ika ari zaio. Zer du, bada, besteak baiño geiago? Berdin bazekien burrukarako urbidu zitzaioa, eta jendea zai zegoen ea Ernestok mozten zituen betiko aren arrokeriak. Geiagok ere pozik egingo luteke, erria arrunt nazkatua zeukan ta. Baiña eziñak atzera erazten zituen.

–Nere anaia sartu nairik nenbilleken, ta ik aurrea artu al didak?

–Ori ez dek egia. Aitak bere semeari lekua eskeintzea ez al dek, bada, bidezkoa? Nere ustez, geiagorentzat ere bazegok an lekua ta lana.

-Zuen etxekoren bat dabillen lekuan, ez dek guretarik sartuko.

-Or konpon. Aitak esan zidaken, bada, zerbait olako.

-Lepoa biurtuko ziot nik ari, arrapatzen badet.

-Lepoa biurtu gabe ere bazerabilzkik arek naiko lanak.

-Nik arrapatzen badet, azkeneko arnasak emango dizkik, bada.

Ernestok antz eman zion burrukarako aitzaki billa zebilela; eta txuxen, beldurrik gabe, ala erantzun zion:

-Zeren billa abil? Aita babesteko aiña uste dit bagerala. Arekin sartzen danak, laster egingo dik nerekin topo.

Ori gaztearen arrokeri bat iruditu zitzaion Santiri. Bere beldurrik etzeukala, alegia; eta, itzik trukatatu gabe, sekulako ukabilkazoia tira zion. Bestea erne zegoen, ordea, eta etzuen ondo arrapatu. Baiña zapetako pollita eman zion. Zer egin etzekiela, pixka bat zerbait naastu ere bai. Alare, segundo bat baiño lenago ernetu zan; eta, Santi bigarrena ematera sartu zanean, gaztearen erantzuna artu zuen. Bai bizi askoa ere. Onek ere etzuen ondo arrapatu, baiña naikoa. Begiak zuritu zitzaizkion Santiri, eta mostradorearen gaiñera erori zan. Ernestok joka jarraituko zuelakoan, ari eltzen asi ziran tabernan zeudenak.

-Utzi neri pakean. Nik nere burua babestu besterik ez det egingo; ta, ez badit berriz erasotzen, negatik libre dago. Orain zerok pentsatu arrazoi detan edo ez. Au badet bigarren erasoaldia. Oraindik garaiz gaude pakeak egiteko.

Bere onera etorri zanean, Santik etzeukan burrukarako gogorik.

–Au ez dek ortara geratuko –zion amorruz bere eziñaren aurrean; erru guziak, berriz, bereak izaki.

–Or konpon. Edozrek ikusi. Ez orren aitzakirik iñori eman.

Eskatu zuena artu ta ordainduz, etxera joan zan Ernesto, bere aita ta aurrekoei arrazoi emanaz.

–Ni ere erne ibiliko nauk –zion berekiko gazteak, gertatu zanagatik naigabetua–. Ezer egin gabe, bi aldiz edozrek jo nauk lenengo. Ez dit nere burua babestu besterik egin. Irugarrenean arraixkuak izango dituk.

Ernestok ogei ta iru urte zituen; besteak zortzi-amarren bat geiago. Gazteak, errespeto guziarekin, artu zuenaren ordaina besterik etzion eman, bere burua babestuz.

–Erri ontako oillarra gazterik zikiratu zigutek –zioten tabernakoak.

Santik, arrazoi umilgarri oiek ez entzuteagatik, sumindua ta purrustadaka, ixil-ixilik, iñor agurtu ere gabe, taberna utzi ta aldegin zuen andik. Ernestok aitari kontatu zion tabernan gertatua. Bai au benetan poztu ere, eta atsegiñez goraiatu zuen:

–Bejondeikela, seme. Baneukaken ire itxaropena. Orain bai: lotsatua atzeratuko dek betiko nere borrero ori.

Santirentzat, erriaren berriketak umilgarriagoak ziran Ernestoren garaipena baiño. Onek alako arro-aizea zerabilkien, oillarra tontorra moztuta geratu zalako. Bi aldiz, gaiñera. Damutu zitzaion Santiri aurreragi sartua.

–Oraindik gazte bat dek, eta orrek orren errez Santi menderatu? –zion jendeak. Beren ustez etsairik gabe zegoken inguru ontan guzian.

Irugarren erasoia

ANDIK aurrera, Ernestoren belarrietan beti durundan zebillen Santik egindako desapioa. Bazter guzietan erne zebillen, batez ere arratsean. Bai-baizekien etzala esku utsik ausartuko. Bi aldiz ere naiko eskarmentua eman zioten.

Tontorra moztutako oillar gazteari ain umilgarria iruditzen zitzaion, berak zionez, ume mukizu batek menderatzea. Etzan geroztik taberna artara azaltzen.

Baiña bere azio koxkorra nola egin buruan ausnartzen eta egosten ari zan, txeetasunak ikasten, lengo bi erasoak bezela au ere oker atera etzedin. Egokiera on baten zai, aren ibilleren berri ondo zekien. Etzebillen, gaztea geiagoa zala-ta, atzera egiteko asmoan. Merezi zuena eman gabe etzuen utziko.

Andik illebete batzuetara, Ernesto bere andre-gaiari etxera lagundu ta pake-pakean ametsetan zetorrela, gutxiena uste zuen leku eta orduan, bidera erten eta makilla sendo moztaka batekin egundoko kolpea eman zion Santik.

Baiña ez, alare, berak nai zuen moduan arrapatu. Biotzaren naiaren kontra, arrokeriak agintzen ziona egitera joan baizan; eta, ez bazuen ondo arrapatzen, zetorkion ordaiñaren beldurrak.

Luze ainbat zabal erori zan Ernesto bidearen erdira. Bere onera etorri zaneko, etsaia gaiñean zeukan. Ebaki ederra egin zion buruan. Betiko aztarrenak utzi ere bai.

Oraindik kordea ondo etorri gabe, zorabiotua, zutitu baiña lenago lurrean zegoela, ostiko batzuk eman zizkion saietsean. Baiña Ernesto, polliki-polliki, segundo batzuetara, non zegoen eta zer gertatzen zitzaion oartu zanean, eroriaren lepoa arrapatu naiean zebillen Santi. Orduan asi zan bien arteko sarraskia eta elkar txikitzea.

Odola arpegian bera zetorkiola oartu zanean, eta etsaia egiñaletan lepoa arrapatu nairik ari zitzaiola, sumindu zan Ernesto. Antz eman zion betiko ondatzeko asmoan atera zitzaiola, eta amorruez ala esan zion joka ari zitzaionari:

–Kasketako ederra eman didak, baiña benetan erruki aut. Ordaiñak artuko dituk.

Santik etzion erantzun. Etzuen ondo arrapatu, illun baizegoen, eta Ernestok zemai ura beteko zuen beldurrak artu zuen.

Zutitu zan Ernesto, oraindik bere onera ondo etorri gabea. Santik ostiko gaizto bat eman zion saietsean. Illebetetan etzitzaion ango oiñazerik kenduko. Ernesto berriro lurrera erori zan, baiña ez kordea galduta. Gazte gogorra izaki ura. Santi, txikitzeko asmoan atzera lotu zitzaion. Baita ozka egin ere.

“Deabru au ni jatera etorri ote da? Dena libre dek onentzat: makillak, ostikoak, ozkadak. Au il edo biziko burruka dek. Etzegok emen txorakeritan ibiltzerik”. Bere estuasun artan ala pentsatzen zuen Ernestok.

Makillaren ondorenak asi zitzaizkion joaten. Ostikoenak ere bai. Baiña ondo ernetu arte etzan Ernesto zutituko.

Iñondik ere, Santik lepoa arrapatu nai zion, itozeko asmoan noski. Alare, Ernestok etsaiaren lenengo eraso gaiztoak garaitu zituenean, onen egiñalak alperrik izan ziran, eta gazteak antz eman zion berea zala garaipena.

-Ire makillazo ta ostikoak alperrik izan dituk. Ondatua utzi niotek. Baiña, ni oraindik korde gabe nagoela, sekulako ondatu nairik, joka, ostikoka eta ozkaka aritu aizen bitartean, ni indarberritu egin nauk. Ai, Santi, Santi! Oraintxe erruki aut benetan. Errezatzea al dek *Nere Jesukristo Jauna*. Kolpe gaiztoak eman dizkidak. Ordaiñak alakoak izango dituk.

-Nor garaituko dan ikustekoa zegok oraindik -erantzun zion Santik.

-Obe uke belaunikatu ta barkazioa eskatu baidake. Oraindik ere irekin pakeak egingo nizkian.

-Oraindik ori ik egin bearko dek.

-Ik ez uke barkatuko, ez. Segundo batzuetan ire mende eduki nauk. Alare, indarberritu naizen ontan, garaipena nerea dala ikusia zegok.

Lurrean ziraldoka zebiltzala, bein gaiñera eta bestean azpira, jolasean balebiltz bezela, olaxe ari ziran elkarrizketan, Ernestoren odoletan biak gorri-gorri egiñak, buruko zauritik erortzen zana.

Artu zituenak artuta, orain lasai ta argiago zebillen gaztea. Bestea, berriz, nekatu samarra. Asierako arrokeriak bukatu zitzaizkion. Ederki damutu zan egin zuena egiña.

Ziraldoka zebiltzala, bat-batean zutitu zan Ernesto. Besteak etsaia non zegoen ikusteko buruari buelta eman zionean, ukabillarekin bete-betean arrapatu zuen gazteak, eta bere gaiñera erori zitzaion Santi, arrunt kordea galduta. Begian jo zuen, eta arekin etzuen geiago ikusiko.

Menderatu zuenean utzi egin bear zion Ernestok. Baiña labana, oraindik zabaltzeko, eskuan arkitu zionean, sumindu zan. Orduan benetan antz eman zion etsaiaren asmoak nolakoak ziran. Iltzekoak, alegia.

Bi edo iru ozkada ere bazituen. Buruan, berriz,

alako ebakia. Arpegian beera odola zetorkion. Ura geiegia zan; eta, urrikaldu bearrean, itxutu egin zan gaztea, eta ikaragarriak eman zizkion babesik etzeukan gizon gizarajoari, arrunt ondatua uzteraiño. Berak gero zionez, iltzat utzita etorri zala etxea, bestea ere zalantzarik gabe ortaraxe atera zitzaion ta.

Uste zuen baiño etsai gogorragoari eraso zion Santik. Orren eskarmentua bazeukan, bada. Bi aldiz probak egiñak ziran. Baiña arrokeriaren lanak. Orra atera galduan. Betiko pakeak egin zituzten, baiña gorrotoa azi.

Geroztik, bere lagun batzuei ala omen zien Santik: ura buruan jo edo Txoritokietako arkaitza berdin-berdin zala. Il arteraiño makillarekin joka ez jarraitua damutua bizi zan. Zearo lotsatua, bere etxeko lanetara eta baserri-txokora erretiratu zan gizon gaztea; eta, iñora ateratzen bazan, bere emazteak lagunduko zion.

Baiña bereak zituen erru guziak. Iru erasoaldietan bera asi zan, eta billaukeriz gaiñera. Errian zan gizonik ederrena olaxe geratu zan betiko ondaturta ta begi-bakarra.

Baiña Ernestok ere etzuen arrokeri geiegirik. Kolpe asko zituen, eta batzuk gaiztoak. Doi-doi iritxi zan etxera. Aita atera zitzaion; eta, sartzen ikusi zuenean odoletan zetorrela, izutua, ala galdetu zion:

–Motell, zer ibili aiz? Arpegi guzia odoletan gorri daukak. Erorikadaren bat izan al dek? Edo berandu ibiltzearen lanak al dituk oiek?

–Andregaiari etxera lagunduta, txuxen asko nentorren ni.

Gertatuaren txetasun guziak eman zizkion.

–Ez nauk batere arritzen. Nere gogoa ezkerorrelaxe ibili gaituk gaur arteraiño Bidegaindarrak. Len aserre bagaude, ez gaituk orrekin asko adiskidetuko. Baiña ondo egin dek. Ire bizia dek le-

nengoa. Ez bazan bidera atera, ez uan olakorik ger-tatuko.

—Ona emen makilla. Onekin jo nau burutik beera. Eta, jakiña, zuk diozuna: nik ere bizia maite detala. Baiña geiegi itxutu egin naiz. Ez dakit ez ote dan illa izango, korderik gabe luze-luze bide-bazte-rean geratu da ta.

Eguna argitu baiño len, larri joan zan Ernesto. Baiña, onen zorionerako, Santi aldegiña zan andik. Au betiko begi-bakarra gelditu zan, eta itxura gal-duta. Baiña gazteak bere burua babestu besterik etzuen egin.

Ernesto bera ere gaizki ibili zan. Buruan alako ebakia. Bi edo iru ozkada gorputzean. Batez ere, sa-beleko miña egunetan, ostiko arek ematen ziona. Baita txarrena pentsatu ere, ez ote zuen esterren bat lertua izango? Urtetan Bidegaiñen eduki zuten Ernestori buruko ebakia egin zion makilla.

Sarraski onen berri Santiren emazte, guraso eta anai-arrebak —seme-alabak txikiak zituen oraindik— jakin zutenean, deabru baten berdiñeko jarri zituzten Bidegaingo aita-semeak, eta arrazoiaren izpirik gabe. Asiera Santik eman baizuen. Jakiña, besteak ere geiegi jo zuen, baiña eskuekin. Azkenean, auzitara deitu zuten gaztea. Ura ere zaarrak galdu zuen.

Errian orren berri jakin zanean, Ernestoren kontra itzegin zuten. Txeetasunak jakin ziranean, orde, denak arrazoi eman zioten.

Ernestok eta Santik, bizi ziran arte, etzuten geiago elkarrekin itzegin.

Geroztik, gizon eder ura begi-bakartua ikusten zuen guzietan, malkoak asten zitzaizkion gazteari. Ainbesteraíño berotu baizuen egin zion azioak; eta, bientzat kalterako, erriak etzuen ontzat eman elkar txikitze ura.

Santi il aurretik, ordurako biak ere urteetan sartuak, pakeak egiteko asmoan joan zitzaion Ernesto. Baiña etzuten etxean artu. Gorrotoan joan zan, bada, mundu ontatik Santi. Errukituko al zitzaion Jainkoa!

Arrokeriak

SANTIRI bereak eta bost eman ondoren, ezkondu zan Ernesto bere jaiotetxera, Bidegaingo baserri kaxkar artara.

Baserrian oso lan gutxi egin zuen onek. Bere idi-galerarekin kanporako joera artu zuen lanerako. Bere guraso eta emazteak eraman zuten baserriko martxa. Gero, seme-alabak azi ziranean, auek.

Sasoi ona zeukan. Erri artan eta bere inguruetan zanik gizonik indartsuena bera zan, eta gogorragorik bolara batean azalduko etzitzaion itxaropentan bizi zana. Pakean denak geiagotzat zeukaten, eta erriak maite zuen.

Batzuek ziotenez, arro xamar oietakoa zala. Arroa? Itz orrek esan nai duen ainbestekorik ez beinpein. Alare, erriak aitortzen zuena zabaltzeko, bazuen arrokeri puska bat. Egia zioten, ordea; eta ortarako bere arrazoiak bazituen. Etzion, bakarka beinpein, inork arpegirik emango, onez-onean saioskada batzuk egin naita ere.

Tabernan zerbait berotzen zanean, ego zakarra aldapak beera bezela, arro-aizeak etortzen zitzaizkion. Batere malezi zuenak zirikatu ere bai ederki. Baiña etzuen inork txartzat artzen. Gizon gozoa zan. Esan degun fameli arekin izan ezik, beste geienekin ondo konpontzen zan.

Batere gaiztorako asmorik gabe bere indarrak probatu naia, baiña probatu gabe egon bear.

-Erri ontan neri arpegi emango didanik etzegok. Pozik saioskada bat egingo nikek. Nerekin neurtzeko moduko gizonik etzegok inguru auetan.

-Ezta ire buru aundi orren neurriko beste bururik ere.

-Ez dek agian izango. Baiña gorputzari tokatzen zitzaion neurrikoa egin zidaken Jainkoak. Ez ire kuxkulu ori bezelakoa. Gorputza ere alakoa daukat, bai.

-Saioskada bat egin nai badezu, nik esango dizut norekin.

-Orain ere sator-zulotik burua atera al dek ik? Esaidak, proba txiki bat egiteko. Etzidak kalterik egingo.

-Ezagutu nituen auzoko bi anai, zein baiño zein arroagoak. Baiña zure ondoan txikiak ziran. Bi ankako askorekin probak egin zituzten. Baiña, aiek zebiltzan lekuan, ortzak egiten zuten lana. Etzan ozkadarik paltako. Batzuetan irabazi, besteetan jipoi ederrak artu, amaren semerik geienak bezela, biak batera proba egin nai zuten.

Nor aukeratuko ta etxeko txerria. Amak txerri-tokitik ateratzerakoan, biak batera elduko ziotela. Baiña amak bazekien bere semeak nolako asmoak zituzten. Aiek eltzen ziotenean, zer egin erabakita zeukan. Baita bere neurriak artu ere.

Atez kanpora atera zaneke, ortxe eunen bat kiloko txerria, mazal-mazala, lotu zitzaizkion. Bi anketatik artu ta bota zuten lurrera gizarajoa. Ukabilarekin muturrean joka, ala zioten:

-Menderatu zaitugul!

Txerri gaixoa, berriz, azpian kurrixkaka.

Amak ori ikusi zuenean, asarretu-itxurak egiñez, eskutada bat arto bota zuen txerria joka ari zuten baiño aurreraxeago.

Txerriak, bere tirabidean artoa ikusi zuenean, alako jauzi batean bota zituen bi jokariak bi aldeetara, eta lasai-lasai arto jaten asi zan. Etzuen orduan amak parra gaizki egin, semeak ziraldoka ikusita.

–Emen txerrienak nor zerate: au edo zuek? Zer-bait bazeratela? Zuetako lauk ez litekek au azpian edukiko.

–Ikusiko degu ori iltzerakoan –erantzun zioten bi arroak.

–Ez baliote okozpetik kakotx ikaragarri ura sartuko, zuengatik lasai iges egingo likek arek; eta, errenditezkeroz, tiroz asi bearko litekek.

Itz oietxek esan zizkion tabernan zegoan batek Ernestori. Bai onek erantzun ere:

–Zure errian gertatzeko, etzegok gaizki. Bi ankakoak naiko nizkikek nik; ez laukoak.

–Erriz erri ortan dabiltzanak ere badira. Zoaz oietara. Ez dute zuregatik atzera egingo –erantzun zioten.

–Lantegi ori ez dek neretzat egiten dana. Oiek etzeukatek beste zer egiñik. Ortatik bizi dituk; eta, beren arrokeriak ikustera joaten diranei dirua kenduz, jauzika ta arrastaka, ik kontatu diguken txerriaren antzera, erdi larru-gorririk ibiltzen dituk. Nik ala ikusi izan dizkit beiñepein.

–Bai. Zuk eskaxagoarekin jolastea nai zenduke. Apustu txiki bat egin nai al zenduke, etzerala gu bion aurka ausartzen?

–Jotzea zillegi balitz, bai. Bestela, ez, motell. Bi txikik aundieneko bat egiten ditek. Gaiñera, lau beso ta lau anka. Bat azpian artzen badet, an zegok bestea gaiñean. Eziña dek ori bakarrarentzat.

–Zertarako orduan zure arrokeriak?

–Badakik alako esaera ura: biotzeko aukeratik datorrena itzegiten degula.

–Nik jokatuko dizut emendik Bidegaiñera joan-
-etorria zeiniek lenago egin.

–Ori gaztetxoek lana dek.

–Ez, Ernesto, ez. Greko-romanaren zaleak bai-
ño ots geiago daukate munduan zear lasterkariak
eta beste kirolak. Nik naiago det bertsolari on bati
entzun, zuek txerriak bezelaxe lurrean arrastaka
ikusi baiño. Ikusten danek, zuretzat munduan balio
duen bakarra indarra da. Gizonak baditu indarrak
aiña meritu daukaten beste egokitasunak. Burru-
kan ere ez da beti indarra gaillentzen. Jinasiak asko
esan nai du.

Kontu kontari olaxe ariko ziran, batere asarre-
rik gabe. Gizon indartsua bai, baiña ona, mazala,
pakezalea. Errian zerbait zirala uste zutenentzat,
aukeran arroxkoegia.

Gutxitan jarriko omen zan txarrera, eta gutxia-
goetan iñori eraso, bere gorputz aundi artan eta be-
re indarrean babestuz bestea umiltzeko. Bere kon-
tra ari zanak arrazoi zuela igertzen bazion, amor
eman ere bai. Ori, berriz, zenbaitentzat eziña da.

Orregatik, bera zebillen lekuan, etzuen okasio-
rik ikusi nai izaten. Bein iñongo tabernetan edo gi-
zartean sartu ezkerok, jolasa eta elkarriketa atsegin
izaten zitzaion. Pakea, al bazuen beiñepein, berak
etzuen autsiko.

–Zer zabilzate, txakurra ta katua bezela, alka-
rri zaunkaka, kozk egin nairik? Bein tabernan sartu
ezkerok, txakurkeri oiek utzi bearrak zeudek. Emen
jolasa ta elkarriketa lasaia arkitu bear diagu. Inda-
rrak probatzeko, eldu gogor biarko lanari. Ola ibili
baiño, ez al dezute obe zuen jenio gaiztoa moztea,
bertso batzuekin aurrean daukazuten jendea alai-
tzeko?

–Nor zera zu gure juez egiteko?

–Juez egiteko gogorik iñork etzeukak emen.

Baiña tabernak denontzako jarriak zeudek; ez zuentzat bakarrik. Ni askotan eguneroko berriak ikastera etortzen nauk onera. Barrun ontan ez dik iñork zuen iskanbil au ontzat artzen. Mutur joka ibili bear badezute, zoazte kanpora.

–Zuk ez gaituzu gu emendik bialiko.

–Pakean bazaudete, ezta beste iñork ere. Ortan arrazoi dezute. Baiña, txarrean asiko banintza, biak batera. Tabernak ere badik, ordea, bere jabea, eta ez dit aren lekurik artu nai. Kakatsuak aleenak zuek! Ordu betean olaxe jardungo dezute, elkarri desapioka; eta, azkenean, elkar ukuitu gabe bat batera eta bestea bestera bereziko zerate. Bitartean, ango ta emengo berri ikasi nai genduenok, zuen iskanbil eta zalapartagatik ezer ezin entzun.

–Zerbait bazerala ta arrokeri puska bat badarabilkizu beiñepein. Ez gera gu ere umeak. Bizar-labain zorrotz askoak badauzkagu, gizon bezela tratatzeko.

–Zabiltzate orduan gizon bezela.

–Zuk ere arrapatuko dituzu gogorrangoak.

–Zuetakorik ez beiñepein, eta erri ontan ain gutxiago. Dezuten pixarra mingaiñari eragiteko bestetarako ez daukazute.

–Guk ez degu, zuk bezela, gizonik ondatu.

–Zuentzat arrazoi.

Bera ere, pake-eske asita, geiegi berotzen asizan, eta ixildu egin zan. Bai orduan besteak ere.

Ori zan Ernestoren eztabaida guzietako leloa. Bera urteetan aurrera zijoan, eta errian beren ustez zerbait ziranak, gazte oiek alegia, etzuten aren arrokeririk ontzat artzen; eta, jakiña, arekin proba txiki bat gitera, berriz, ezin ausartu.

Zurrutak gaiztotzen zuenean –gutxitan ori–, orduan barruko espiritu geiegiak berotzen zuen oieta-

koa izaki. Ez omen zala orduan arekin atsegin izaten. Itz erdi bat biurria esaten bazioten, jauzi batean zutitzen omen zan, artza bera baiño ere beldurgarriagoa, itzik ezin asmaturik. Orduan bakarrik utzi ta lagunak joan egiten zitzaizkion. Benetan sumintzen zuen gure gizona orrek.

Santi gizarajoa txikitu ta ondatua utzi zuen. Au etzan gizartera bakarrik ateratzera ausartzen. Betiko lotsatua geratu zan. Baiña, alare, entzuten zituen bere etsaiaren arrokeriak. Esan ere bai bein baiño geiagotan:

-Tximistak kiskaliko balu...

Alare, bereala pasatzen zitzaizkion Ernestori olako isekak. Urrengo egunean basoerdi banarekin egingo zituen aiekiko pakeak, eta sekula bezin adiskide geratuko ziran.

Olakoxea zan, gurutzea dagoen leku ontan il zuten nere aitonaren etsaia.

Euskal Erri guzian ezaguna

EUSKALDUNA jokolaria omen da berez. Ala diote. Ez da noski dena gezurra izango. Izketan ari geranean ere, zenbaitek birao zikiña bezin errez, askotan ala diogu:

–Burua jokatuko nizuke, orrek gezurra esan digula.

Batzuek Jainkoaren izena madarikatzeko bezela, euskaldunak “apustu egingo nitek edo jokatuko nitek” esan gabe ez gera luzaroan izketan ariko. Berez datorkigu ori.

Ez da arritzekoa Ernesto ere ala izango zala. Baiña *jokolari* itz onek esan nai duena ez beñepein. Amaika apustuetan iritxi zan, baiña arek etzuen dirurik jokatuko.

Indartsua zan eta bere izena erritik kanpora ere oso ezaguna zan. Zabaldua zegoen bere indar-otsa, eta idi-apustuetarako onen laguntza eskatzen zuten. Euskal Erriko idi-proba geienetan ibilia zan. Ez Gipuzkoan bakarrik; baita Bizkai alde guzi ortan ere, bere patrikatik xentimorik kastatu gabe. Baiña bapo jan eta edan, ta beti dirua ekarri. Ortan oso etxekoia zan. Emazteak, etxean ezik, kanpoan ere egiten zuen aren goratzarrea.

Itzai edo laguntzaille bezela, baiña sekula ez bere idiekin.

–Nik etziet nere idi gaixoei olako tratu txarrik emango: arra beteko mingaiña zintzilik eta, urrikaldu bearrean, oraindik joka ta zastaka ezten zorro-

tzarekin, bizkar gaiñetik odoletan jartzeraño. Guk gure indarrak neurtzen dizkiagu. Ezin degunean, kitto. Oiek, gaixoak, ez, ordea. Eziñean lertzeko zorian eta oraindik purrustadaka ta gaiñetik joka. Benetako basati batzuen lana dek ori: lezateken baiño geiago eskatzea. Baita aste guzirako azienda gaixoak ondatu ta ezertarako gauza ez dirala utzi ere. Bein baiño geiagotan ito erazi ere bai. Nik agindu bear banu, multa emango niekek oiei. Nik nere idiak lagun on batzuk bezela maite dizkit. Jan-truke nere famelia aurrera ateratzen laguntzen didatenak dituk, eta esker onekoak gaiñera. Etzidatek oraindik uelgarik egin. Ematen dietenarekin konforme. Etzidatek erantzun txarrik ematen. Nik deitu-zai beti, lanari ekiteko prest. Nik etzeukat nere idi gaixoak eztenka odolkia bezela zulatzeko gogorik. Orixe baiño geixeago maite dizkit, eta jolas goxoagoak atsegin zaizkidak neri.

Idi-apustu guzietan aipatzen omen zuen ori: lezateken baiño geiago eskatzen zitzaiela eta jipoi ikaragarria artzen zutela, alper-alperrik, idiak.

—Jakiña, denok ez gaituk iritzi berdiñekoak.

Baiña deitzen zioten eta joan egiten zan. Bere idiak ler erazi gabe, irabazia baizekarren beretzat. Geienetan etzuen akuillurik artzen. Bultzagille bezela, idi on baten lana egiten omen zuela, ikusten zutenak ziotenez. Arrastaka zeramaten arriari indarrean bultza eta zuzendu, ori izaten zan bere eginkizuna. Idiei ondo agintzeko, burua bear zan; ez indarra. Edozein gizon eskas izan ziteken bera baiño itzai obea.

Beste arrokeri bat ere bazuen: garai artan bera bakarra omen zala lan ori egiten zuena. Oraingo berri ez dakit. Erriko jaietan egiten zuen ori. Zerbait emango zioten noski.

Lagunartean indar-kontuan asten zanean, ala erantzungo zien:

-Indarra saltzeko ere badaukadala emen ari zerate esaten; alare, lan askotarako baldarra ta astunegia naizela. Baiña nik egiten detan lan bat ez dezutela egiten! Ez dik indar askoren bearrik, taju pixka bat eduki ezkeru.

-Zuk diozunez, dena dezakezu. Badirudi zu bakarra zerala indartsua.

-Ez. Gutxi edo geiago, denak baditek berea. Apustu txiki bat jokatuko nizuteke, indar asko bear ez duena, oraindik zuetako edozeiñi irabazi baietz. Leku askotan egin dit lan ori; baiña lan berbera burutzen ez dit besterik ikusi.

-Nolakoa da, bada, apustu ori?

-Lau kargako kupel utsa, seireun litro kabitzen dituen, ortxe gutxi gora-beera eun kilo inguru samarrekoa, metro batzuk dituen ziri edo zutoi zutikako batean, bere muturrean, zeinek denbora gutxiagoan sartu.

-Lurraren gainean ez da sortu olakorik.

-Zenbaitek lurretik egingo likek -esan zuen norbaitek.

-Ez. Lau bat metro bear dizkik zutoiak.

Ernestok egiten omen zuen orduan ori, eta ortan etzeukan etsairik. Errietako jaietan nonaitik izaten zituen deiak, eta joan egiten zan. Lanaren sari beti zerbait ematen zioten, eta dena ondo etortzen zitzaion baserri legor eta aldapatsu artarako, geigarri bezela.

-Emengo meta-ziri-muturrera, edozeiñek.

-Bai. Motx samarrak izaten dituk. Baiña erriko jaietan metro batzuk dituen jarriko ditek, eta ara igo bearra zegok. Alare, beti egin dit nik lan ori. Bein kupela ta guzi erori banintzan ere, ziria bustia zegoelako. Baiña bigarren saioan zutoiaren muturrean geratu uan kupela.

-Jartzen ikusi arte, ez dit sinistuko.

-Ni prest negok nai dezutenean jokatzeko. Zuek aukeratu eguna eta lekua, eta jarri meta-ziri bat, emen erabiltzen ditugunak baiño ondrosoagoa; eta kupela, zirian sartzeko zuloarekin. Bost minutu baiño lenago bukatu baietz lana.

Ordurako, berrogei urtetik gora izango zituen Ernestok.

-Gure saillean ez da olakorik -erantzun zioten.

-Zer ari zerate orduan indar-kontari? Ezta bes-tetan ere ez dek. Ez dit ikusi, ezta entzun ere, beste iñork jaso duenik, amaika proba egin ditek baiña.

-Zuk ere dituzun urteekin, ezetz egin jokatuko dizugu.

-Bai. Berrogei urtetik gora natxiek, eta asko moteldu nauk. Alare, bost minutuan igo baietz jokatua zegok apustua. Baiña ez iñondik ere dirurik. Ori bakarrarentzat gelditzen dek; irabazten duanarentzat, alegia. Emen gaudenontzat apari bat. Galtzen duenak ere aprobetxa dezala. Zuentzat zama ariña dek. Asko baizerate. Neri geiago iritxiko zaidak. Alare, bijoa. Pake-pakean, zaar eta gazteak naastuan, elkarrekin jango diagu.

Gazte jendearekin egindako apustua zan, eta denak erabat ontzat artu zuten Ernestoren eskaria.

-Zuk, indarra ezik, doai geiago ere badituzu onak.

-Txarrak eta onak, mundu guziak bezela.

-Zuk eskatzen dezuna, beiñepein, oso ondo iruditzen zaigu.

-Guk elkarrekin ez diagu dirurik jokatuko. Baiña jendeak apustu onen berri ikasitakoan, baiezkoan eta ezezkoan, ez dituk jokatu gabe geratuko.

Ernesto etzan gizon luze oietakoa. Bere neurri polita bazeukan ere, gorputzaren jarrerarekin mo-

txagoa ematen zuen. Zenbait bezelako tentea ta lerdena ez baizan. Gorputza etzana, pixka bat aurrera eroria, bular-inguru zabalekoa. Arpegia ere berdin. Ibili nagia bearbada, baldarra, bi aldeetara balantzatsua. Besoak sendoak eta eragiñean, gorilak berak baiño ere luzeagoak, Ezin gentzake, bada, gizon egokitizat artu.

Santi, bere etsaia, askoz dotoreagoa zan. Ernesto baiño luzeagoa. Ez, ordea, ura bezin sendoa.

Ernestok beso aietan indar ikaragarriak zeuzkan. Bere lagun ta ezagunak *Lanbros* esaten omen zioten. Berak ori aipatzeko oitura omen zeukala. Eun kilotik goragoko gizona; ez gizena, gaiñera, zaartzarogan gilbor pixar bat ateratzen asi bazitzaion ere.

Esandako ordurako an izango zan Ernesto. Kupela ta meta-ziria ere ordurako jarriak izango zituzten.

Apustu xelebre ori ikustera jende-mordoska bildu zan. Bere gaztetan askok ikusia zeukaten lan ori burutzen. Baiña, orain zeuzkan urteekin, egingo ote zuen, gero? Gazteentzat ere, ziri legun oietan igo ta jetxi egitea ez da beti erreza izaten.

Ezeren erreminta eta loturarik gabe, zutoiaren muturrean sartu bear zuen kupelak bere kiloak izango zituen. Baiña ori etzan ezer ere. Bere bueloa zan okerreana. Aundia, enbarazo ikaragarria egingo zion igotzerakoan. Ia bi metro bederenik izango zan gerri-buelta arekin nola igo?

Ordua iritxi zaneko, jende asko bildu zan. Alako tranparik bai ote zeukan ikusi nai zuten, eta ea nola egiten zuen bere lana.

Zutoian sartzeko zulotik esku batekin artu zuen kupela. Igotzeko enbarazorik egin etzezaion bizkar gaiñera jaso, esku ezkerrekin berari bizkar gaiñean eutsiz, bi oin ta beso batekin igoko zan zutoiaren gerrian goraiño. Ori zan lanik zailena. Indar ikaragarria bear zan bi belaunetan.

Zutoiari eutsiz, golpe txikika joan zan geratu gabe goraiño. An pixka bat itxogin. Gero, bi belau-
nekin zutoiari eutsiz, kupelari buru gaiñetik buelta
eman zion esku bakarrarekin. Gero, bi eskuekin
sartu zuen kupela ziri-muturrean. Etzeukan ezere
ezkuturik lan orrek; indarra bear.

Begira zeudenak, bai galtzailleak ere, txaloka
eraso zioten. Denak zeuden konten. Lenengo, taber-
naria, paotx ederra aurrean jarri ziotelako, xentimo-
rik kostatzen gabe alako jende-mordoa ekarri araziz.

Bost minutuan baietz zuen apustua egiña; bai-
ña lau minutu eskaxetan bukatu zuen. Alare, gazta-
roan gutxiagotan egiten oitua zegoen.

—Orain badakizute lan au egiten duena badala
erri ontan.

Ondoren, zerbait zirala uste zutenak beren
saioskadak egin zituzten. Baiña oiñak lurretik ken-
du orduko erortzen ziran.

—Nola arraie egiten dezu zuk au?

—Ez al nauzute lanean ikusi?

—Bai; baiña gu ezin gera lurretik gora abiatu ere.

—Taju pixar bat bear dik ortarako. Baiña inda-
rra dek bearrezkoena. Bestela, ez dezute kupela me-
ta-ziri-muturrean sartuko. Biak dituzute bearrezko-
ak: belaunetako indarra eta taju pixar bat ere bai.

Olaxe ariko zan gure gizona, beti indar-kon-
tuan. Aren inguruan zebiltzan gazteak zirikatuko
zuten; baiña oraindik bera zebillen gaillen.

Alare, aren indar-kontuari neurria eramaten
zekienak, ume bati bezela adarra joko zion, bere go-
gozko elkarrizketari lagundu ezkerero.

Jipoia

Aitonaren betiko leloa etzan besterik:

–Berrogei ta amar urteak urbil zeuzkat, eta oraindik ez dek erri ontan eta bere inguruetan ni menderatuko nauen amaren semerik. Gaurko gazteak, zurruta edo ez dakit zerekin, aultzen-aultzen ari dituk. Itxuraz mutil bikaiñak bazeudek, eta etzeukatek ordu erdi batean irauteko algorik. Beren buruari gogor egiteko gogorik ere ez. Ogei ta iru urte bete nituen ezkeru, erri ontako oillarra ni nauk.

Amaren seme asko ziran inguru artan indar-puska bat zutenak ere. Baiña oraindik Ernesto gizon gordiña zegoen. Adiñean aurrera zijoan. Burua erdi soildua, baiña gorputz baldar samar ura zaulia, sekula tratu txar bat artu gabea. Alper oietakoa etzan, baiña nekerik gabeko lantegi erreza aukeratu zuen, baserriko gora-beerak emazte ta seme-alabentzat utzita. Burrukari bezela zerbait ikasitakoa. Orduan ere eun kilotik gora izango zan, eta ez gilbor aundi oietakoa.

Aren arrokeri ta desapioak etzieten batzuei atsegin aundirik ematen. Baiña etzuen iñork aren atzaparretan jarri nai izaten. Or konpon zedilla. Urteak joan aiñean bukatuko ziran aren arrokeriak.

Bazan, ordea, erri artan, kuarteletik etorri berria, mutil gazte eder bat, Ernesto baiño luzeagoa. Etzuen, inguratzekorik ere, arek aiña pisu izango; baiña ezurrez aundiagoa. Oso gazte egokia. Iru ur-

teko soldaduzkako morrontzan ikasi zuen burruka-rien eskola; baiña etzeukan opizio orri jarraitzeko gogorik. Alare, sumindu egiten zan, aren erronkak entzuten zituen bakoitzean.

–Ori ez dek ni baiño geiagoa, eta egunen batean orren arrokeriak nik moztuko zizkiot betiko –bere kasa askotan zion ori.

Aste-egunean etzeukan neurketa ori egiteko gogorik. Egokierarik ain gutxi. Idien burutan askotan txakurra ekartzen zuen, eta gazteari etzitzaion komeni. Onek, etxekoa zala-ta, ezagutu egingo bai-zuen.

Laiñotsua ta illuna zan illunabar batean, arpegia ondo estaliarekin, baldar-itxurak egiñez, atera zitzaion bidera, baiña bi lekukorekin.

–Zu zera noski Ernesto Makazaga? –esan zioten lekukoak.

–Bai. Etzeukat nere burua zertan ukaturik. Zer nai zenduteke?

–Zurekin burruka-saio bat egin nai luke gazte onek. Arrokeri-puska bat badarabilkizu lan ortarako. Gu lekuko etorri gera, asarretuko baziñateke, pakeak egitera. Ortarako, ezeren erremintarik badezute, ekarri onera.

–Gauza bazera, atoz onera! –oiu egin zuen gazteak.

“Nor arraie ote degu au? Zaarra ez dek, gaztea ere etzirudik” zion berekiko Ernestok.

Eta gero:

–Oa, oa emendik, mozkorra ator ta –goitik beerraiño neurtuz.

–Nerekin beldurtu egiten zera orduan? –erantzun zion gazteak arro.

–Oraindik ez nauk iñoren aurrean beldurtu. Ezta irekin ere. Onez-onean datorren batekin inda-

rrak neurtzeko etzeukat kupirik, ez dit bein ere eduki-ta, nere sasoirik onena aspaldi igaro bazan ere.

-Iñori kalterik egiteko asmoan ez gatoz, bada. Nik ere, ea noraiño irixten zeran, orixe nai nuke probatu.

-Esku utsik, erremintarik gabe, orduan?

-Bai, jaunak. Len eskatuko dizuegu, labanen bat-edo iñork badu, guri emateko. Galtzen duenak, eskua luzatuz, "ni baiño geiago aiz" esanez, zorionak eman bear dizkio irabaztunari, batere asarrerik gabe.

-Olako gizon gaztea ta paketsua, aingeruren bat ote degu au? Erri ontakoa al aiz? Emengo berri ondo badakik beiñepein -esan zion.

-Baiña kanpo alde ortan ibili ta etorria, ta oraindik berri samarra. Emen kontatu dizkidate zure arrokeriak, eta proba txiki bat egitera nator. Ez dezu gaizki artuko noski, desapioka ari omen zera ta.

-Egia diok. Onenbeste urtean ni beste gizon indartsurik ez azaltzeak lotsatu egiten niok. Presaka nauk eta ator, gauza baaiz -desapio egin zion zaarrak.

Lotu ziran biak, eta zaarrak bota zuen lenengo. Baiña gaztea, gomazkoa balitz bezela, bein lurra ukuitu orduko aidatu zan, Ernesto erdi etzana utzirik.

Lotu ziran berriro. Oraingoan ere zaarrak bota zuen; baiña ez alperrik! Lengo joera bera egin zion gazteak. Au ere burrukan ikasia izaki. Beraizik egiten zuen ori zaarra nekatu erazteko. Bera gaztea zan; eta zaarrak, oraindik indar ikaragarriak bazeuzkan ere, ez gazteak bezelako iraupen ta bizitasunik.

Lotu ziran berriro irugarren aldiz. Bai zaarrak arrapatu ere, baiña gazteak nai zuelako. Ordurako

Ernesto arnaska asia baizan, eta bestea gailenduko zitzaion etsipena. Malezi aundiko etsaia zan gaztea.

–Orain probatuko dezu nor dan erri ontako oillarra!

Azpian artu bazuen ere, zaarrak antz eman zion laster, ura azpian edukitzeko indarrrik etzeukala. Geiegi berotua zegoen; eta, jira-bira batzuk eman ondoren, gazteak gañña artu zion. Zituenak jo zituen azpitik zaarrak gaññera ateratzeko, baiña dena alperrik.

–Zaartu nauk. Nor baaiz ere, ni baiño geiago aiz. Ire aurrean makurtzen nauk. Ez daukak sasoi txarra, motell!

Gazteak kukurruku luze bat egin zuen:

–Orduan ni naiz erri ontako oillarra.

–Bai. Nik aiña irautea aski dek ik ere. Orain urte batzuk arrapatu baiñut, etzekit. Baiña urteak ez ditek barkatzen.

Irabaztunak, bi lekukoekin zaarrari eskua emanenez, ixil-ixilik, beste itzik trukatu gabe, alde egin zuen andik. Galtzaillea, aiek ezkutatu arte begira egon ondoren, zer pentsatu etzekiela, joan zan etxe aldera. Baten eta bestearen zalantzak egin ondoren, bi edo iru izen pasa zitzaizkion burutik. Baiña bere semerik ezta pentsatu ere.

–Santiren semea ote da ori? Ederki geratu nauk orduantxe. Ura izan bazan ere, etzeukaken ezer egi-terik. Ura baiño luzeagoa dek au.

Nor bazan ere, garbi-garbi menderatu zuen. Oraindik etzuen sinisten aren azpitik ezin aterarik geratu zitekenik.

“Pipiak joa natxiok –zion berekiko–. Orain amar bat urte izan balitz, ez nian ikusteko ere”.

Orduantxe lenengo antzeman zion biotzetik etzebillela ondo. Orregatik, noski, menderatu zutela.

“Ez gaituk, bada, gu betikoak eta...”.

Andik aurrera desapio gutxi egin bearko zuen. Bestela, norbaitek laster artuko zion bere enbidoa.

Emazteak zabaldu zion atea. Au izutua geratu zan.

–Zer dezu, Ernesto? Zurrutean asi al zera?
–galdetu zion.

–Bidera atera ta jo egin naute, jo.

–Batek baiño geiagok agian.

–Bakarrak eta txukun. Zaartu naiz, Xeledoni.

–Beti arrokeri-kontuan, zere burua Sansontzat egiñez, or ari zera ta...

–Proba txiki bat egin nai duela nerekin, bi leku-korekin etorri zait. Onez-onean egin degu saioa, eta garbi menderatu nau.

–Eta alare jo?

–Ez nau jo, baiña ler egin det; eta biotza asi zait abisuka.

–Eta ez dezu ezagutu?

–Santiren semea ez da beiñepein. Au meago ta luzeago iruditu zait. Gaiñera, legez egin du bere lana, bi lekukorekin etorri da ta. Jakin nai nuke, bada, nor dan: etxekoa edo kanpokoa.

Baiña garailea ixilik zegoen. Arritzekoa, benetan. Ernestok banaka-banaka erriko mutillak aztertzen zituen, eta onela esaten zuen:

–Oietan ez dek ni menderatu nauenik.

Ezin zion antzik eman nor zan. Gaztea zala bai, ordea.

–Esan zaiozu Inaziori gaur nere idiekin joateko pagotara, nik ezin nezakeala ta.

–Zer du, bada, aitak?

–Bart bidera atera ta jo egin ditek.

-Nere aita jo? Bakarrak edo geiagoren artean?

-Bakarrak esan zidak neri, eta txukun-txukun gaiñera.

-Nik nor dan jakiten badet, bereak artuko ditu.

-Aitak ezin badu, ik zer egin bear diok?

Inazio joan zan, bada, amaren agindu orrekin goizean mendira.

Amak, goizean obeto ikusita, ala esan zion bere senarrari:

-Ez dizute arpegian markarik txikienik ere egin.

-Etzidan golpe txar bat ere eman. Lenbizi, erdi jolasean, nekatu erazi niñun; eta, atzo esan nizunez, antz eman nion indar egitea alperrik zala. Biotzak ere abisu txiki bat biali zidan. Orduan, neri esku eman ta bertan utzirik aldegin zuten iru gazteak. Baiña bakarrak menderatu niñun.

Errian etzuen iñork azaiña ori jasotzen, eta susmur txarra artu zion amak. Ez ote zan bere seme kaskailluaren lana izango ori? Beste norbaitek bere senarra ondatuago utziko zuela. Egindako lana bai aguro zabaldu ere, testigu ta guzi gaiñera. Erri artan iñor aita menderatuko zuenik izatezkeroz, Inazio, bere semea, izango zala; eta ala galdetu zion illunabarrean, lanetik etorri zanean:

-Gutxi gora-beera ik jakingo dek nork eman dion aitari jipoi ori.

-Nik, ama, bi lekukoren aurrean. Ea bein betiko uzten dituen arrokeri oiek.

-Baneukaken ire susmurra. Baita beldurra ere. Asta-lapikoa aleena i. Egurren batekin jota, agian. Aren arrokeriak ik artu naiko dituk orduan.

-Aita menderatzeko ez det nik egur bearrik.

-Jotzezkeroz, arintxeago ibili inteken.

-Nik ez nion golpe txikienik ere eman. Azpian artu ta etsi zuen arte eutsi, eta gero utzi. Orixe izan zan nere egiteko guzia.

Amak denaren berri aitari eman zion, onek askotan galdetzen ziolako ea ikasten zuen nor izan ziteken ori: errikoa edo kanpokoa.

-Bai. Badakit errikoa dala. Etxekoa, gaiñera: gure seme Inazio buru-aundi ori.

-Gure semea diozu?

-Bai; Inazio. Arrokeri onarekin esan dit.

-Ixil asko zeukan, bada. Burua ezik, beste zer-bait ere badu orrek aundia.

-Egurren batekin joko ziñun ta...

Amak ezin zuen oraindik sinistu semea aita baiño geiagoa izan zitekenik.

-Len ere esan izan dizut: garbi-garbi menderatu nau, legeen arauera. Illun zegoen eta oso antz aldatuak etorri ziran. Ez nituen ezagutu, ez bera eta ez bere lagunak. Gazteak zirala bai. Esaiozu etortzeko. Itz bi egin bear ditut.

-Inazio, aitak bere gelara deitzen au.

-Eta kontatu al diozu?

-Bai, beti galdezka ari zaidak eta.

-Ondo dago. Joango naiz.

-Ederrak aditzeko ago.

-Ori besterik ez bada, entzun eta erantzungo diogu.

-Joka asiko zaiken beldurrak al ago?

-Len ere ortarako ez nion aukera txarra eman. Orduan ezin izan zuenak, orain gutxiago. Bai; bere-ala igoko naiz.

-Zerk ikaratzen au geiena?

-Etzetik bialiko ote nauen. Ori da nere beldurra.

-Ez dek aita asko ezagutzen. Nai al dek apustu txiki bat egin, benetako zorionak ematen dizkikela?

Lasai-itxurak egiñez joan zan; eta, bere aurrera azaldu orduko, ala galdetu zion:

-Jipoi au ik eman al diok aitari?

-Nik ez dizut jipoirik eman. Baiña nere lana da. Etziñan bein ere ixiltzen, "ni menderatzeko moduko gizonik etzegok erri ontan" beti oiuka ta.

-Ekatzak, ekatzak, seme, esku ori, aitak galdu duen txapela, semeak jantzi dik eta.

-Eskerrik asko, aita. Orduan ez nauzu etxetik bialiko.

-Ez, motell, olako seme bat edukitzea aita barentzat arrotzekoa ere badek eta.

Erantzun ori artu zuenean, poztu zan Inazio.

Olakoxea omen zan nere amaren aita: erronka ugari, baiña mazala.

Pagota karraio

NOIZBAIT len esan degun bezela, Ernestoren baserria kaskarra zan. Alako fameli batentzat kaskarregia. Txikiegia noski. Malkar elkor aietan lanaren diña etzuen jasoko andik. Nekearen saririk ez beiñepein. Alare, aldapatsuak izan arren, larre aundiak zeuzkan. Lau bat bei mantentzeko aiñakoak bai. Urtearen egunik geienetan an larrean ibiliko ziran.

Goizean, beiak jetzi, zerbait suspergarri eman eta urrengo goiza arte. Ukuillu artan, fameli aundia nola baizeukan, auek egiten zuten ango lana. Ori zan baserri artako martxa. Beste askotakoa ere bai orduan.

Baserriaren izena ere alamoduzkoa da Bidegain. Etxe ederra ta berria, baiña aldamenekoak nai ezik utzitako barrutietan jaso.

An Altzando zan etxe xaarra, baiña aberatsa. Barruti bikaiñak.

Txo ta *berri* izenez bukatzen diran baserriak, geienak beiñepein, Uztapidek *Lengo egunak gogoan* bi liburu marduletan dion bezela, ez dira onak. Nere iritzia ere arenarekin bat dator. Olako bat baiño geiago ezagutzen baiditut, fameli batek, beste diru-sarrerarik gabe, bizimodua ezin atera lezaken oietakoak.

Etxea berritua zan. Etzan ain txarra. Bidea ere etxeraño, beste askok baiño obea. Alare, or nonbait bizi ziran.

Eskerrak beste lantegi batetik Ernestok dirua zekarrenari. Baiña geigarri ori gabe pasamoduan bizitzeko, txikitxo.

Ta, guzira, zortziraiño biziko ziran. Bat, erori-kada batean betirako elbarri geratua. Ama galxoak txintxo neurtu bearko zituen bere eskuetara zetozen diru pizarrak.

Len ere esan degunez, askok, batez ere auzokoa, baserriari bere izenez deitu bearrean, *Auzo-kalte* esaten zioten. Lapurretatik bizi zirala, alegia.

Bidegain, Ernestoren baserria, olakoxea zan, bada. Baiña berak etziran lapurrak. Ori gaizki esaka bat besterik etzan. Etxekojaunak irabazbide obek bazeuzkan. Idi-apustueta laguntzaille bezela ere, xox batzuk ederrak ekartzen zituen etxera, berak ezer ere arraiskatu gabe. Bizimoduz, berriz, oso etxekoia zan.

Alare, beiñepein, aitona zanak lan gutxi egin zuen baserrian, bein bere seme-alabak kozkortu ziran ezkeroztik. Ordurarte, berriz, bere emazte ta gurasoak.

Ogei urteetarako aitona zanak ekartzen zuen bere irabazi pixarra. Idi-pare bat bikaiña bazeukan gurasoak emana, eta aiekin aterako zuen baserriari ezin kendu ziotena, bere bizimodurako fameliari laguntzeko ere.

Goizean goiz Errenderiko mendietara joango zan. Ia argitu orduko zeukan etxetik atera bearra, garaiz lekuraiño irixtezkeroz. Eguzkia goi samarraiño igoa izango zan udara aldean beiñepein.

Bere idi eta len guk *karroa* esaten geniona, aundia zalako, benetako kurpillak zabalak zituena-ekin.

Emen erabiltzen genituen gurdiak baiño beste bentaja aundi bat bazuen, idientzat beiñepein: galgaduna zala. Ia dena, Errenderiraiño, aldapak beera

zeukan, eta idientzat neke aundikoa. Zamari ezin eutsirik, ler egiten zuten.

Baserri-lanetan erabiltzen genituenak *gurdia* zuten izena. Txikiagoak ziran, eta galgarik gabeak. Gero azaldu ziran galerak, askoz egokiagoak. Zama aundiak eramateko aukerakoak. Karroak bezela, etzuten auek drangurik.

Kristaurik ezin ibili liteken gurdi-bide zakar aietan barrena, aldapa, lokatza, arri-kroskak, zuloak, arri askeak eta urbideak besterik etzegen lekuetan barrena, Malmazar aldeak beera, zenbait ekaitz-alditan etzan atsegin izango. Nekearen nekez irabazitako xoxak eramaten zituen Ernestok etxera, eta egunero.

Idientzat beiñepein askoz egokiagoa zan galera, beren martxan joateko, atzeraka zamari ezin eutsirik baiño. Aurrerapen aundia zan, bada, lana errezteko.

Askotan ixtilu txarrak ikusi ta gero, okindegiraiño joango zan. Baiña beretzat oso neke gutxikoa zan ori. Udalak ortarako zeuzkan langilleak kargatuko zioten galera; eta, bere lekura irixtean, okindegikoak.

Berak gosari-legea egiten zuen bitartean, dena bete ta ustu langilleak egingo zioten. Bestela etzuten txango bat egiteko betarik izango.

Egurrari *pagota* esaten genion guk; pago aundiak, erdi igartuak. Oiek, aritzak eta gaztaiñak mugarratuz, aien adar aundiekin egiña izaten baizan, ortxe metro ta erdiren bat luze, gutxi gora-beera. Askotan, enbor zaarrak ere bai, igartu ta gero zaiñetik atereak. Iru bat edo lau ibiltzen ziran pagota-karraio.

Len esan deguna, Malmazar eta Landarbaso alde ortatik Errenderiko okindegiraiño txango bat bakarra. Beste bat egiteko etzeukaten betarik.

Idiak ere atsedean artu bear zuten, naiz perra-
tuak izan. Bestela, anak gorberatzen zaizkie.

Egurra udalak kobratuko zuen. Lana, berriz,
okiñak eta bear zuenak ordaindu. Etzan bakarra
ibiltzen. Lagun geiago ere baziran, gorago esan de-
gunez.

Baiña bakoitza bere kontura. Ortik mantendu
bearko zituzten beren buruak eta idiak. Sobratzen
zana famelirako. Zerbait geratuko zan noski.

Bazkaria emazteak jartzen zion. Kaxuelkada
oparoa, gosaltzeko, bazkaltzeko eta meriendatzeko,
alegia. Aparia, berriz, etxean, bere maiteen artean.

Lanera bidean zeukan tabernatxo batean erosi-
ko zuen zato koxkor bat ardo. Bidean, norbaitek ez
bazuen konbidatzen, etzan iñon ere sartuko.

Idientzat, berriz, uztarri gaiñean beren burue-
tan belarra. Ura aurrean jarriko zien, eta gurdikada
kargatu arte jango zuten.

Txakur bat ere erabiltzen zuen berekin, ondo
ezia. Aundiagokoren batek erasotzen bazion, idien
burutara, uztarri gaiñera jauzi egingo zuen, eta an
bertan etzango zan beste txakurraren beldur aundi
gabe, eta zainduko zituen nagusiaren interesak. Ari
ere emango zion Ernestok bere bazkari-legea.

Au, bada, bixi-bixi ibiliko zan, karroa bete or-
duko ateratzeko, okindegira pagota bikaiña zerama-
la.

Bide zabalera atera bitartean, iraultzeko beldu-
rrak, geldi-geldi jetxiko zan. Etzeukan presaka zer-
tan ibilirik, egun artan beste gurdikada bat erama-
teko aiña denbora etzuen edukiko ta.

Idientzat ere galera zaar aundi aiekin oso neke
gutxiko lana zan. Geiena gainbera edukiko zuten; ta
bera, berriz, lantegirakoan eta andik etxera gaiñean
joango zan. Baiña etxerakoan, askotan beiñepein,
baziteken lotan etortzea ere.

Bere lagun ta langille txintxoak lagunduko zion idien buruetatik. Auek etzuten etxera txuxen etortzeko iñoren bearrik. Etziran bidean galduko. Etxerra irixtean, nagusiak ematen zien suspergarria etzizaien aztuko.

Zama ustutzerakoan baziteken baxoerdiren bat edo beste edatea ere. Amabosten bat kilometroren bidea bazeukan zama artzen zuen lekutik okindegira. Naiko lanak izaten zituen zama ustu ta illuntzerako etxera etortzen. Negu aldean beiñepein, askotan eziña.

Itzaiari ondo ordaintzezkeroz, diru-puska bat bota beariko zuen okiñak. Baiña egurra ezer gutxi alperrik ondatu beariko zuena ekartzen zuten erriko mendietatik. Gero ogia garesti saltzen dala ez da batiere arritzekoa.

Egun on ta txar, jaiak utzita, aitonaren egitekoa ori zan. Etxera etortzerako nekatua edo aspertu samarra beiñepein.

Ibilkari ona omen zan. Etzan batere arritzekoa. Zailtzeko ainbeste kilometro igarotzen zituen, aste-egunik utsegin gabe.

Etxera etortzen zanean, bere emazte ta seme-alaben erdian, sendiaren pakean artuko zuen bere atsedena, eta ondo irabazia gaiñera. Berarentzat etzan leku atsegiñagorik.

Bera etorri arte apaltzeko zai egongo ziran. Baiña berak ere, etortzean, bere emazte maite Xeledoniren galderei erantzun beariko zien.

Egun guziko berririk garrantzitsuenak kontatuko zizkioten elkarri, eta bereala lotara. Bitarte ortan, urrengo egunerako bazkaria jarriko zion Xeledoni emazteak.

Etzan irabazi aundiko lana, baiña etzuen ori galterik nai. Aitona galdu zanean, oni jipoia eman zion seme Inaziok artu zuen, lendik eskeiña zeukan ta.

Mutil gazte indartsua, aita bezela. Euskal Erri-ko aritz sendo oietakoa. Jenioz ere antz-antzekoa. Nolako enborra, alako ezpala.

Len kontatu degun bezela, idi-pare bikaiña zeukan aitonak. Semeak aiñaxe maite zituen ia auek. Etzuen aiekin apusturik jokatu. Arek etzien aziendei tratu txarrik emango.

Etxean, bere sendian, goxoa zan. Baita gizartean ere. Arrokeri-puska bat erabiliko zuen, baiña orixe: aizea. Lagunarterako izketa-bidea jarri. Semeak jipoitu ezker, etzan len bezela aritzen.

Pertsonekin atsegiña dana, aziendekin ere ala izaten da. Etzan “etxean otso eta kanpoan uso”, esaera zarrak dion bezela.

Idiak zaartu ta arategira eraman bearrak min ematen zion. Ainbeste urtean, bere lagunik maiteenak bezela, purrustada gaiztorik gabe, beti txintxo eta esaneko, ordu on ta txar berekin ibilitakoak zituen. Fameliko bizimodua ateratzen lagundu ziotenak. Baiña etzeukan beste alderdirik.

-Idiak zaartu ta moteltzen ari zaizkik -esango zion norbaitek.

-Bai, motell. Gu denak bezela ari dituk oiek ere zaartzen. Alare, etziogu iñori bentajarik artzen.

-Urteen bentaja ori berdin eramango diagu. Agian atzekoa joango dek lenengo mundu ontatik. Baiña urteetan aurrerik artu gabe.

-Non daukak ik ere ainbeste zaindutako ille eder ura?

-Udazkenean sartu orduko, nik nai baiño lenago aizeak eraman zidaken.

-Guk, beñepain, onenak emanak dizkiagu, nere idi gaixo auek bezela.

-Eta oiekin zer egin bear dek?

Tratalaria baizan galdetzen zuena.

-Aal banu, ni bizi naizen arte gorde. Alare, zer egingo diagu? Lengoei egin niena: berriak ekartzetan, iltzen bestetan ez dakiten arakiñei saldu. Oien eskuetan utzi bearko, errukia ematen zidatek baiña.

-Bikaiñak zeudek. Atsedean pizar bat eman akiek. Asko irabaziko litekeek. Nik pare bat ederra Asturiastik ekarria bazeukat. Auen truke emango nitek.

-Eta auekin zer egingo uke? Norbait engaiñatu ta ari saldu?

-Ez olakorik. Gizendu ta arategira eramán.

-Bai. Alako pareá izango dek ire ori. Zaar auek arategian emango luteken baiño geiágo ez badute balio, alakoak izango dituk, Ik nereak salduta negoziarik badaukak, baita nik ere. Beste iñozenteren bat iruzurtzeko gorde itzik. Baiña, nai ta nai ez, andik edo emendik berriak bear dizkit. Auek bezin piñak aterako balira, ez niñuke aserre. Eta ik ekarriak dituk?

-Oiek ziran bezin ederrak salgai dauzkadanak ere. Idi-probetan tratu txarrik artu gabeak dituk noski.

-Nere mende daudenak, pertsonak edo abereak, maitatuak izango dituk.

-Alare, arategira daramazkik, bada.

-Eziñaren aurrean zer egingo diagu, bada? Supritzen eduki? Oiek eta ni, gaiñera. Berriak erosi ta aiek ondo ezi arte, bazeukatek non joa. Len ere esan dit: emazte ta seme-alabak maite dizkit geiágo

-Eta ire lagunak atzera uzten al gaituk?

-Esaera txar bat besterik ez dek ori. Alare, zeinñekin konfiantza artu? Lagunik maiteenak askotan sartuko dik ziria. Ire negozioagatik orixe egingo idan ik ere. Nere seme-alabak ere, auek baiño lan geiágo eman zidatek gaur arte.

-Saldu nai ditan idi-parea ere bai ire lanaren diña.

-Gorde itzik, bada, besteren batentzat.

Etsaiak gailentzen

URTEAK etzaizkigu alperrik joaten. Beren ondorenak laster azaltzen zaizkigu polliki-polliki. Ia nabaitu gabe, gainbeera goaz. Gure esku eta gorputzaren beste atalen eragiña nagituz, arnasa larritu, illea erori, gerriak makurtu, arpegia ere itsusitu... Oiek dira zaartzaroaren frutu batzuak.

Gure Ernestoren gorputzari ere aztarren oiek nabarmentzen ari zitzaizkion. Moteldu zan. Oraindik zezen baten indarrak bazeuzkan ere, garai bateko bizitasuna joan zitzaion.

Bere mingaiñak dion guzia egia balitz, len beldurragatik begirune zioten guziak, etsaiak alegia, goraka zijoazen.

Lantegian eztabaida gaiztoak edukitzen zituzten. Ordaiñak eman nai zizkion bat sartu baizan saillean. Ernestok ere bazituen, bada, etsaiak. Ez oso goxoak ere.

Lau ari ziran pagota-karraio. Iru, gazte samarrak, gurasoen ordeko zebiltzanak. Baiña bat zan zaarra eta lenen asia. Ogei urte baiño lenago asi omen zan aitaren lekuan. Orain irurogei ez bazituen ere, urbil samar ibiliko zan. Ia berrogei urte bazeramazkien, bada, lantegi berean.

Garai batean ez bazeukan iñork ari aurpegi emateko ausardirik, zaartu zan, baldartu eta batez ere moteldu. Etzioten alako errespetorik, eta asi zitzaizkion zirika. Baiña oraindik aitonak ortzak erakusten zizkien, zituenak beñepein.

Semeak jipoia eman zion ezkeroztik, eta bazan urte pare bat ori gertaturik, etzan len bezela arrokeri-kontuan aritzen, etxekoak bestek ez bazekiten ere ori. Semeak errespetatzen zuen aita bere aldetik. Etzion izen onik kendu nai izan aitari.

Berak ere laster antz eman zion azkeneko bi urte aietan beerako ikaragarria egin zuela. Alare, eztabaida gaiztoak izaten zituzten gurdiak zamatzera, laurak bateratsu biltzen ziranean.

Baiña zaarrak urbillago zeukan lantegia, eta ia beti aurrea artzen zien; eta arena zamatu arte begira egon bear besteak. Ango zamatzailleak udalaren langilleak ziran, ta aiek lenen zetorrenari beteko zioten aurrea.

–Ernesto, zuk etxea bete seme-alaba dauzkazu. Ango lanak egiteko ez dute zure bearrik. Ni, berriz, bakarrik nago, eta etxean ez daukat lana besterik –esan zion sailleko batek, asarre samar.

–Zergatik etortzen aiz orduan? Ik dioken bezela, nik etzeukat olakorik. Bestela, an geratuko niñuke, emengo lanak utzita.

–Emengo xoxak ere onak dira, ordea.

–Baita neretzat ere. I, gaiñera, beste bati ogia kentzen ari aiz.

–Eta zu ez?

–Emaztearen bizimodua emendik ateratzen dit nik. Ango martxa seme zaarrenari utzi nioken. Ura ere ezkondu uan, ta ango negozio guzia aren esku zegok. Nik etzeukat, al detan arte, besteren bizkar bizitzeko gogorik. Etxekoekin pakean izango bagera, jo bearra zegok emen.

–Aske zaude; eta, norbaitek norabaiterako presa duenean, aurrea utzi bearko zenioke –eskatu zion beste batek.

–Pozik gaiñera, aurretik daudenak uzten badiote, eta aren urrena ni. Bestela ez. Zergatik ez de-

zute ori bera egiten zeron artean? Edo ni bakarra nauk emen enbarazu egiten detana? Gaiñera, ori eziña dek.

-Etzekit zergatik.

-Zamatzaileak ez dituk bigarrena noiz etorriko zai egongo. Aiek lenen datorrenari elduko ziotek, eta ortan arrazoi ere baditek.

-Zuk onuzkero utzi bear zenioke lantegi oni.

-Eta i birekin asi?

-Ez. Zaartu zeralako.

-Orregatik dek, bada, au nere lekua. Nekerik gabea, joan-etorria besterik ez daukana. Zamatu ta ustu, langille batzuen bizkar zegok. Zuek joan bear zenduteke; ez nik. Zerbait aurreratua baneuka ere... Baiña etzeukat xentimorik. Galera zaar au eta idi-para dituk nere interes guzia.

-Ez da orregatik. Anaia daukat pozik asiko litzakena.

-Baita nik ere semea. Anaiaren morroi etxean ari dek. Nik irurogei urte betetzean, oraintxe ez dizkit urruti, lantokia eta idiak berari utziko zizkiot.

-Gizona, gizona! Lenen asten zera eta illuntzerako okindegira ezin iritxirik. Okiñak asarretzen asiak dira, beranduegi joaten zeralako.

-Zer deabrukeri esaten ari aiz? Edo zeren billa abil? Okiñak beste edozein aiña maite niotek. Ni berandu joaten naizela? Gezur biribilla dek ori. Oraindik etzidak iñork aurrerik artu. Idien martxan joaten nauk ni ere. Moteldu ta kaskaildu naizela egia dek. Ez nauk lengo itzala ere. Baiña zuetakoren batek uste badu ni baiño geiagoa dala, oraintxe bertan datorrela. Proba txiki bat egiteko ez gaudek leku txarrean. Eta gaur, beti bezela, lenengo iritxi baietz okindegira, nai duenari jokatuko ziot apustu txiki bat.

-Nai luke, zu aurretik aterako zera ta.

–Zer arraie ari zerate orduan, berandu joaten naizela zirika?

Beste iru gazte baziran saillean, eta denak ala zioten elkarri:

–Aizak: eraso akiok, emen gogorrena i izango aiz ta.

–I joan adi. Nik etzeukat agure zaar bat jotzeko gogorik.

–Zer diok? Ator, ator, gauza baaiz. Agureak oraindik atzaparretan arrapatzen baau, lan gaiztoak emango dizkik.

Eta, iñor etzala ausartzen ikusi zuenean, ala zion asarre samar:

–Oilloak aleenak zuek! Oiek pizti gaizto baten aurrean bezela, kakareka ari zerate nere inguruan; eta, bakarren bat arrapatuko detan beldurrak, beti iges atzeraka.

–Ez nauzu gero ni joko, nere aita bezela.

–Ire aita nik jo? Nor augu?

–Santiren seme zaarrena.

–Auzoak izaki eta ez iñudan ezagutzen. Izan ere, eguna argitu orduko ateratzen al gaituk. Aren semea aiz orduan? Eta arek artu zituenen ordaiñak eman nai al dizkidak neri? Ator, batere asarrerik gabe. Egingo diagu saioskada txiki bat. Ni gaillentzen banauk, ez aut ebakiko. Burrukan berotuko bagiña, berriz, lagunak emen zeudek pakeak egiteko. Berex-teko, alegia. Laster igerriko diok, aita jo zuenak semea menderatzeko aiña indar badaukala oraindik. I ez bezelako gizona uan ura.

–Ori ez daukat aztuta. Baiña orain lana egin bear degu.

–Atzeraka joateko aitzaki polita aukeratu dek. Beldurrak dagoen batentzat etzegok gaizki. Baiña benetan arrazoiz mintzatu aiz. Bi aldeentzako obe,

ik eta ireak diguten erra gaiztoa utzi ta lanean jarduteko.

-Erra gaiztoa, gurea bakarra edo zuena ere bai?

-Zoritxarrez bi fameliak elkarren aurka.

-Gaurko aski degu. Urrengoren batean itzegin-go degu ortaz lasaiago.

-Bai, motell. Nai dekanean. Alare, ni ez nauk betikoa. Menderatuta gorrotoz eta batek baiño geiagoren artean jotzen banazute, ordaiñak emateko or zeudek bi legoi gazte, zein baiño zein indartsuagok. Onuzkero ezagutuko dituzute noski. Ni sasoirik onenean baiño geiagoa dek gazteena, bere ogei ta iru urterekin. Bi illebeta barru utziko dik lantegi au, eta ura asiko dek nere lekuan. Jakin zak, gaiñera: len ere esan dit, i ez bezelako gizona zala ire aita. Ni baiño askozaz ederragoa gorputzez, baiña ez geiagoa indarrez. Orrekin ez dit i baldarra aizenik esan nai. Ire aitaren seme bezela pasako intzaken. Mutilla augu. I baiño sendoagoa uan, burruka ibiltzen giñanean. Iruetan berak eraso zidaken; eta, i bere semea aizen ezkerro, ez adilla nere bidean jarri. Aztu zak ordaiñak emate ori. Biotz-biotzez eskatzen dit. Ari egiñaren damua zeukat oraindik. Ez nitek beste alako astakeririk egin nai. Errian zan mutillik ederrera itxura-txartu nin. Bein asi ezkerro, bat geiegi itxutzen baida.

-Ni baiño geiagoa zerala uste al dezu? -galdetu zion gazteak.

-Nere ustez bai oraindik. Baiña gaurko aski diagu. Nai badek, biar ere ortaz itzegin genezakek, alperrik denbora galtzen ari gabe.

-Zergatik ez orain bertan?

Exerita zegoen lekutik jauzi batean zutitu zan aitona, eta:

-Ator, gauza baaiz! -oiu egin zion-. Ez dekala pauso bat aurrera ematen!

Aren bizitasunak izutu egin zuen noski gaztea, eta etzan ausartu. Etzuen begiluze izan nai, bere aita bezela. Ura menderatzen bazuen, berriz, etzan gerora ere asarrearen paltarik izango.

-Baiña, Felix! Ire ta nere onagatik eskatzen dit: etzakela arek bezelako astakeririk egin. Bide oietan ni galtzea erreza dek. Baiña nork ordaiña emana etzaik paltako.

-Orduan zema egiten didazu?

-Ez, motell. Eskari bat besterik ez dek. Ire ta nere onagatik ez adilla ortaraiñotu. Ondoren ikaragarriak etorri litezkek ortik. Len ere badek gure famelian olaxe arratsean atera ta illa: ire aitonaren anaiak nere aitona. Oraindik an zegok, gertatu zan lekuan, gurutzea. Iltzaillea, berriz, urkatu egin ziteken. Ez dituk oraintxe-oraintxeko kontuak. Ordurako ere bi fameliak gaur gabiltzan bezela zebiltzaken. Zaarrak pakea ekartzeko ez diagu ezer egin. Ea zuek pakearen aingeruak izaten zeraten.

Bere gurdia zamatu zutenean, aurrera joan zan zaarra, naigabetua eta berak ondatu zuen gizon zoragarri ta gizarajoa oroitzuz benetan damutua, eta beste olakoren bat gertatu ziteken beldurrak. Ortatik ondoren txarrak etorri zitezkeela bai-baizekien.

-Onez-onean konpondu bear luken arazoa dek ori. Asi berri au aren semea, alazankoa! -zion aitona, bidean zijoala-. Ez dek mutil aldrebesa. Gorputz dotorekoa, baiña ura baiño txikiagoa. Aren ondoan eskasa zirudik onek. Nik, berriz, ori dena elkarri barkatu ta pakea nai nitek. Zergatik asi ote da ori emen? Neri ordaiñak eman nairik? Artzeko ere, zoritxarrez, etzebilek leku txarrean. Alako baserriko maiorazkoa lantegi ontan...

Susmo txarra artzen zion orri. Baiña geiena berak galduko zuen. Bi legoi gazte etxean zeuzkan Ernestok, bietan eskasena ere mutil ori baiño geiagoa.

Aitona joan zanean, ala zioten Pelixi bere lagunak:

–Utziok ordaiñak emate orri. Oraindik atzapar oietan, bera moteldu samarra badago ere, indar puska bat edukiko dik orrek.

–Zaartua ta kaskaildua zegok ori.

–Bai. Urte asko zeuzkak eta baldartua. Baiña ikusi al dek orren eragiña? I baiño ondotoz aundiagoa dek gero ori.

–Etzidatek orren indarrak alako beldurrik ematen. Semeak zeuzkak orrek indartsuak eta sasoirik onenean, batez ere gazteena, Inazio. Au joko banu, igesi ibili bearko nitek. Motell, ori tristea dek; eta, nai izan ezkeru, nonai arrapatuko niotek. Inguru auetan besterik ez dan bezelakoa omen dek gazteena. Aita onenean izan zan baiño ere geiagoa noski.

Banaka-banaka, zamatu aiñean, joan ziran denak. Agure kaskaillu arek umildu erazi zituen, eta bi famelietako erra gaizto ori goraka-goraka zijoan. Aitaren ordaiñak ez ote zizkion semeak emango?

Urrengo egunean ere leku berean bildu ziran denak. Baiña etzegen bezperako pasiorik. Alare, berriro eraso zion batek. Desapio egin ere bai. Baiña ez burrukarako:

–Nai al dezu zeñek lenago kargatu gurdia?

–Nola neurtu bear diagu ori?

–Erriko astailluak lenengo gurdi ta zama batera; gero gurdia utsik.

–Ainbeste tranpa egin litezkek or! Bidean geiago zamatu ere bai –zion Ernestok.

Baiña etzuten jokatu. Zailla ta garestia iruditu zitzaien neurketa ori. Alare, aitonak aitortu zuen geiagoak zirala. Berak eragin motelak zeuzkala, indarra eduki arren. Garai batean arrapatu balitu...

Aitona oartu zan, alare, etsai gaizto bat bazeu-
kala saillean, ordura arteko pakeak autsiko zituena.
Bere beste lagunei esan ere bai:

-Gure saillean zergatik sartu ote da ori? Inguru
auetan dan baserririk onenetako baten oiñordekoa.
Orrek zerbaiten egiteko berezia bazekarrek. Urte au
bukatzean, semeak artuko dik nere lekua. Ordaiñak
ematera baldin badator, erasotzea al zioke ari!

Ernestoren kezkek

AITONA, aundia, zaulia ta indartsua izan zana, arrizko osasuna gaiñera, baiña denok bezela zaartzen, moteltzen eta indarrak galtzen ari zan. Alare, etzan ori beretzat txarrena. Ajeak nabarmentzen asi zitzaizkion; eta geienei, batez ere olako gizon sendo ta indartsuei, zaartu baiño lenago ere biotzak uste gabeko joko txarrak egiten dizkie.

Aitona ere sail ortan sartzen zan, bada. Osasuna gainbeera, umore kaskarra ta saltakorra askotan, eta jenio gaiztoa. Edozer arrazoi biurri entzun orduko, aizkatuko zan. Gaztetan bazekien bere burua menderatzen, eta etsaiak etzutela geiegi zirikatuko. Begirune aundia zioten, edo beldurra. Orain, ordea, burniarekin arria jota txinparta bezela, itzetik ortzera zuen erantzun biurria; eta ori arraixku txarrekoa zan berarentzat.

Semeak ezik, iñork ere menderatu gabeko gizona. Au etxean bestetan etzekiten. Baiña oillarra moteldu zan, eta gazteren batzuk zai, eskarmentu on bat emateko zoratzen, beren izena aupatua izango zalakoan.

Santiren semea, berriz, beti gorrotoan, eta bere amak ortara zirikatua. Ordaiñak emateko asmoan lantegi ortara etorria zala igerri baizion. Berak norbaiti kontatu ere bai. Zaarraren belarrietara iritxi zan beiñepein, egia edo gezurra.

Gazteak uste zuen baiño geiagoa zegoen oraindik zaarra, eta ezin ausartu.

-Sekulako jipoia eman omen zioz gazte batek Ernestori -esango zuen norbaitek.

-Zerbait ere merezi zin. Bera ere ohea izan dek ortarako -askok.

-Orain ogei urte arrapatu balu, igerriko ziozen aurrean nor zeukan. Olako bi bear zizkin arek orduan -beste batek.

-Bai gaur bi urte ere. Baiña azkeneko aldi ontan beerako izugarria egin dik. Egundoko zaar-itxura artu dik. Erretxindua zebillek. Biotzekoa omen daukala ziotek. Olako gizon indartsuei azkeneko billaukeria orrek egiten ziek. Sasoi-sasoitan askotan eraso txiki bat eta kito. Edozein bezela, osasuna galdu aiñean eta eziña goraka, jenioa kaskartzen. Denon ondorena dek ori. Len alakoa, orain olakoa, bere burua beeraka nabaituz. Ez nauk batere arritzen.

-Ori jotzen duena beiñepein, balebilkek erne. Bestela, semeak emango zizkiok ordaiñak, aita bere sasoirik onenean baiño geiagoa omen dek eta.

-Indarrak probatzeko gogoa badauka, eltzea al zioz semeari!

Olaxe ariko ziran berriketan, batzuek alde eta besteak aurka.

Ori dena pentsatzen zuen aitonak, eta bere buruari igertzen zion arenak egin zuela, eta beranduegi baiño len obe zuela erretiratu.

Erra gaiztoa baizioten batzuek, ezin ikusia, batez ere pagota-karraio aritzen ziranak. Oraindik bakarrari eutsiko ziona, biotzak ikaratzen zuen. Ordu-ra arte errespetatu bazuten, beldur ziotelako, bi edo iru aldiz ia joan erabili zuten. Alakoetan norbaitek esaten zuen tartean:

-Utziozute pakean gizarajoari, bere buruarekin dizkik naiko lanak eta.

-Zertan ari zaiguk desapioka?

-Zuek zirika ari zeratelako. Oraindik guretako iñor ez dek ausartu orri bakarka aurpegi ematera; eta, biren arte asten bazerate, nik berari lagunduko ziot. Biren arte joko bazendute, berriz, lotsagarri geratuko ziñateke, agure bati ori egiña. Eroritako enborretik egurra aixa egiten dala ziotek. Onela esango ditek: "Oiek dituk gizon balienteak. Biren artean doi-doi menderatu omen ditek irurogei urtetik goragoko aitona. Biotzetik gaixo dabillena, gaiñera".

-"Txerrimuniak ordaiñetan" esan oi dek. Orrek nere aitari egiña, zergatik etziot ordaindu bear txanpon berarekin?

-Utziok ordaiñak emate orri pakean. Ura bukatu uan betiko. Etzazutela berriro alako okasiorik jarri. Iru aldiz eta iruetan ire aitak, billaukeriz gaiñera, eraso zioken orri. Ori bazekiagu. Eta Ernestok, iñork ametsik egingo etzuen moduan menderatu zin, oraindik gaztetxo zala. Etzin, alare, bere burua babestu besterik egin.

-Okerragoko eraso nola sortu genezakek?

-Edorrek ez uan, bada, bein esan zaarrak ez iñudala izutzen ainbesteraño, gazteak bai ordea? Idixko onak zeudek, batez ere gazteena. Uste al dek oiek, ik beren aita joka nola darabilkiken begira egongo dirala?

Zaarra umildu nai zuten, baiña idixko gazteak izutzen zituzten; eta ori bazekien aitonak, bera erori zanean gazteei esker errespetatzen zutela.

Azkeneko eztabaida eduki zutenean, ia eskuetara etorri ziran. Langille lagunak berezi zituzten. Baiña aitona larritu zan. Biotzak estu artu zuen, eta semeari jaulki zizkion zerabilzkien istilluak.

-Len nere aita bezela narabilkitek ni. Ik jakingo dituk, noski, Inazio, inguru auetako bi oillarrak, Santik eta nik, eduki genituen eztabaidak eta burrukak.

–Bai, aita, bai. Askotan entzuna orixe.

–Aren semea zebillek gurekin batera lanean. Ez dek, alderatzekorik ere, ura zan aiña. Ez daukala nik ari egiña aztuta, emen asi zan lenengo egunetik esan zidaken, ni baiño geiagoa balitz bezela, arro samar. “Orduan, neri ordaiñak ematera etorri aiz?” galdetu nioken. “Asmo orrekin etorri naiz”. “Motell, gauza baaiz, ator. Egokiera oberik ez dek arkituko ire zemai ta desapioak betetzeko”. Baiña, beldurrak noski, ez uan ausartu. Nik aren aita jo banuen ere, il edo biziko lana uan. Ni garbitzeko asmoan noski atera zitzaidaken bidera, arratsean, makil ta guzi. Gertatuaren ondoren auzitara deitu niotek. Ura ere berak galdu zin. Etzin, bada, artaraiñoko arrazoirik. Eskeintza bat egiten dit. Bi illebete eskas zeudek urte au bukatzeko. Orduan utziko dit lantegi au. I, berriz, anaiaren morroi bizi aiz. Nai badek, beñe-pein, idiak iri emango dizkit. Lantegia ere bai. Biotza zimikoka asi zaidak, eta okasiorik etzaidak komeni. Baiña etxeko pake ta atsedenean lan asko egin nezakek oraindik.

–Eskerrik asko, aita. Pozik gaiñera, jan-truke bizi naiz etxean eta.

Len ere askotan egin zizkion aitak olako eskeintzak; baiña bereala damutzen zitzaion.

–Orduan neke geiegi darabilkizu?

–Ez. Nekearengatik jardungo nitek. Baita komeni ere ibiltzea. Baiña nere buruak beldurtzen niok geiena. Supri bearrak etorri zaizkidak, beste amaren seme guziei bezela, sekula eztul txar bat izan ez badet ere. Orain jenio kaxkarra jarri zaidak, gaiñera. Gaur arte desapio bati atzera egin gabea, zaartu naizen ontan, berriz, neroni asten nauk. Gaztetan bein ere izan ez detan oitura. Len ere esan dit nere biotzari lasaitasuna komeni zaiola; baiña ez alperkeria. Zurubiak igo ta jexteko izaten dituk. Orain, berriz, neri jetxi bearra etorri zaidak; eta ezin

irentsi orain arte beetik bizi diranak gaiñera igotzea.

–Santiren semeak beldurtzen zaitu orduan?

–Ez arek bakarrak. Beste bi gazte ere bazebiltzak. Denetara lau gaituk. Elkar artzen ditek ni zirikatzeko. Len ausartzen etziranak, orain erasotzen zidatek. Gaur arte okerrago ez badira asi, zuengatik izan dek. Ori bazekit seguru.

–Benetako eskerrak ematen dizkizut berriro. Zuk lantegi ori uzten dezunerako, an nauzu. Ni pake-pakean asiko naiz. Nolako galderak, alako erantzunak artuko dituzte. Nik ez daukat iñorekin joka ibiltzeko gogorik. Baiña beldur naiz oraingoan ere bi illebeta oiek bi urtera ez ote diran luzatuko. Len ere eskeintza berak egin dizkidazu; baiña lengo moduan gabiltza oraindik biok.

–Ez. Oraingoan ez, ezin dit geiago eta.

–Ordaiñak emateko ez agindu neri, aita. Nere burua babestu besterik ez det egingo.

–Orixe bera dek nik ematen diten aolkua ere. Olakoxea izan nauk ni beti. Oraindik iñori lenengo eraso gabea. Burruka ibili bagera ere, nere burua babesteko. Indar-otsa daukana, zaartutakoan, ola xe erabiltzen ditek txori-maloak.

–Orain ere pakean gabiltzaken. Baiña ori sartu dan ezkerro, zirrikak asten zaizkidak. Nik, berriz, etzeukat gazetako umorerik. Sutu egiten nauk bereala. Ia berrogei urte bazeramazkit lantegi ortan, eta onuzkerro badit erretiratzeko garaia. Ire orde z ni geratuko nauk etxean.

–Garaiz erretiratzen jakitea jakintsuena omen da.

–Etzekit ori ala dan. Baiña neri eziñak erakusten zidak. Tristeia dek neretzat benetan urrats au eman bearra. Ainbeste urtean, erriko eta bere inguruko baillara guzietan, benetako oillarria ni izan nauk; eta orain, erori naizen ontan, edozein mukizu

desapioka asten zaidak. Baiña gaur arte denak erori dituk, eta ni ere ez nauk bestelakoa. Jainkoak ola-koak egin gaitzik. Irekin ondo konponduko ote dira?

–Nere partetik bai. Ala nai nuke. Ezagutzen det mutil ori. Pillakoa da.

–Baiña ura gaztea eta ni zaarra. Gaixo gaiñera.

Aitonak egin zuen bere testamentua. Etzuen esku txarretan utzi, ondare bezela, bi famelien ezin ikusi ori. Emen ere semeak artu zuen. Besteak ordaiñak eman nai bazizkion, aukera ederra zeukan. Nai zuenean astea al zuen! Urtea bukatu artean lanean jardungo zuen. Gero etxera, Jainkoak deitzen zion arte. Baiña Inaziok etzion sinisten.

Zaarrak itxuak zeuden, baita emakumeak ere, itxura gabeko gorrotoan jarraitzeko oraindik. Eta geiago gazteak, berritu zuten ta. Gurasoak kristau legea baiño geiago ta zoratuago erakusten zieten ori seme-alabei. Auek itzik etzuten entzungo aien aldekorik. Aitona beti sumindua etortzen zan lanetik etxerakoan, Santiren semearen zirika gaiztoak entzunda. Iseka egiten zioten.

Pelix Santiren semeak berritu bazuen ere, bereztat kalterako. Ernestoren bi semeak bezin indartsurik etzan etxe artan, inguru aietan ain gutxi, eta zetorren erasoari erantzuteko asmoan.

Arritzekoa zan kanpotik ezkondutako emakumeak ondare triste ori ontzat artzea. Maitasunak bakarrak konpondu zezaken arazo ori, eta adiskidetu bi sendi aiek. Baiña zaarren naiaren aurka bide ori artu nai zuten gazte batzuek. Errian ziran bi fameli ezagunenak, eta beti katua ta txakurra bezela.

Erabaki ori artu zutenak, zaarrak bizi ziran arte supritu beariko zuten. Baiña etzegoen gaizki pentsatua. Irauten jakin bear.

Santiagomendi

SANTIAGOREN izenez eta omenez jasotako baseliz eta ermitatxo asko dago Euskal Erriak zear; eta neronek ere, ezer gutxi ikusia izanik, inguru samar ontan.

Bi ezagutzen ditut. Bat Ondarribian, *Santiago-txo* izenarekin, igande ta jaiero meza ematen duten lekua. Gaur oraindik ere askotan igarotzen naiz bere aurretik.

Eta beste bat Astigarragan, bertako zaindaria dana Mendiak ere Santiago dauka izena. Mendixka baten erpiñean dago, zugaitz batzuk aldamenean dituela.

Ez dago Ondarribikoa bezin zaindua, eta bere egunean bestetan ez da mezarik ematen; garai aietan ez beñepein.

Ango istori politak kontatzen zizkiguten. Guk fedeko egia bezela sinistu, berriz. Baita erakutsi ere Santiagoren zaldiak mendi artan egindako anka-arrastoak.

Alako arrastoak edozein lekutan arkituko dituzu, eta zaldi-ankaren itxura geiagokoak. Itxura duanez, etzan nolanaiko zaldia izango, karaitz bizian alako markak egiteko. Gaur aiek ikusita parre egi ten degu, gazte iñoxente giñanean dena sinisten bagenduen ere.

Santiago mendixka txiki bat. Bere gaiñ-gaiñean dago ermita. Garai bateko mikelete edo karabineroen txabola diruri, utzi samarra.

Bere egunean urtero joaten nintzan, bada. Gure baserritik urbil samar geratzen baida, eta bere eguna udara-udaran. Amarretan ematen zuten meza, eta gure orduko sasoiarentzat etzan ezer eziñik.

Santiago egunean mendi ortan ezagutu nuen, gero leku negargarri batean lagun egiña, *Txadonzai* izenarekin idazle bezela oso ezaguna izan zana. Iñoizka *Argia* aldizkarian idazten zuen gizona, eta Astigarragako elizan sakristau zegoena. Orregatik deitzen zioten *Txadonzai*. Orrek alaituko zuen urtero meza. Au asi aurretik, ttunttuna berak joko zuen. Meza, bera buru zala kantatuko zuten; eta, andik ateratzean, berriro ttunttuna joko zuen, dantzatu nai zuenik bazan.

Nik, berriz, etxerakoan erroskillen batzuk eka-
rri gabeko urterik ez nuen izaten.

An ezagutu nuela esan det, baiña Ondarretako espetxean topo egin genduen. Benetako lagunak egin ere bai. Oso gizon alaia zan. Aspaldidanik illa da.

Aurrik etzuten eta senar-emazteak egiten zuten elizako garbitasuna ta ango gorabeera guzia. Ortatik bizi ziran.

Emaztea il zitzaionean, elizatik bota egin zuten. Nora etzekiela geratu zan gizarajoa; eta Ernaniko lagun batek artu zuen bere etxean errukiz, zaartua baizan ordurako.

Baiña biali zutenei orregatik etzien gorroto aundirik artu. Urrengo urtean, Santiagotan, Astigarragako karririk alaitu zituena *Txadonzai*-ren txistua izan zan. Gertakari geiago ere baditut onenak, baiña luzeegi dijoa.

Gudatean nik Ondarretan arkitu nuen, bada, au. Gu, lau anaiak, ordurako eriotz-zigorpean geunden, bera sartu zutenean; eta, nere anaien eriotzen berri ikasi zuenean, malkotsu etorri zitzaigun dolu-

miñak eskeintzera. Eta, au Ondarretan utzirik, aldegin genduen guk San Kristobalera. Abertzale ta euskaldun sutsua, arrasta polita egin ondoren bializuten.

Santiago egunean igo zan, bada, oitu bezela, Xeledoni, Ernestoren emaztea, bere alaba Inesekin. Alabarik gazteena au, emeretziren bat urte izango zituen.

Pelix, Santiren semerik zaarrena ere, igo omen zan, oitura ori zeukanez.

Urterik geienean itxita egongo zan ermita. Baiña egun ortan, erriko zaindaria zan ezkeru, zabalik.

Mezara baiña len, neska amarekin izketan ari zala, ikusi zuen mutillak Ines. Ain zoragarria irudituzitzaion begientzat, baiña auen atzetik biotza ere joan egin zitzaion. Bazekien noski nor zan. Erri txiki batekoak izanta, aiek elkar ezagutuko zutela ez det zalantzarik egiten. Zuzenean amarekin izketan ari zan lekura joanta, agurtu zituen ama-alabak.

–Jainkoak egun on.

Eta irripartsu, biei esku eman ez, agurtu zituen. Amak artu zuen mutillaren eskua, baiña naiko kopet illun. Alabak, berriz, goxo-goxo eta maitasunez artu zituen mutillaren agurra eta eskua, bi gazteak elkarri arpegira begiratu.

–Zuk ere bai al dezu gain ontara igotzeko oitura? –galdetu zion amak.

–Txikitatik asita, urterik ez det utsegingo. Berdin igande ta jaiak besterik etzaizkigu geratzen. Aske bizi naiak estutzen gaitu, bai, gu ere.

Amaren kezkak

MEZARA bitartean elkarrekin itzegin zuten. Zoragarriak al zeuden, izan ere, bi gazteak. Bien begiak ederki ase ziran, eta auekin batera baita biotza ere joan zitzaien. Ezeren okerrik ez bazan, aiek bereizten etzan erreza izango.

-Zu etzera Felix, Santiren semea? -maltzur-maltzur amak.

-Bai. Ta zu, berriz, Ernestoren emaztea -erantzun zion mutillak, bestearen enbidoa ulertuz-. Zure laguna, berriz, alabarik gazteena.

-Bi famelien berri jakingo dezu, noski.

-Bai. Ondo alare. Oraindik zure senarra ta ni ez gera ondo konpontzen; eta, Jainkoak ez badu mirariren bat egiten, zailla izango da. Etxean baidaukat nik beti zirika ari zaidan deabrua. Nere ama da ori.

Eta gertatzen zitzaionaren berri emateko, biotza ireki zien.

-Nere amak arrazoirik txarrenak esango ditu, geiago asarretzen ez geralako. "Ire aita ondatua utzi zuenari eman bear dizkiok ordaiñak. Erri ontako gizonik ederrena arek galdu zin. Ez uan geroztik etxetik ateratzera ere ausartzen".

Nik, berriz, amaika aldiz arpegira bota diot:

-Zure aolkuak entzuteko oso leku txarrean geratzen naiz ni. Zer nai zenduke: aita bezela, ni ere ezertarako ez naizela geratzea? Ori bukatu zan, ama. Ni nere burua babesten saiatuko naiz, al detan arte. Baiña ez det aita bezela gelditu nai. Len

ere esan dizut. Ezagutzen al dituzu bere semeak, zein baiño zein eder ta indartsuagoak?

–Bai. Beren jenioen berri etzekit. Baiña mutil bikaiñak dituk biak ere. Ori aitortu bearra zeukat. Lagun izateko obeak dituk, etsai baiño.

–Orduan ez nere burua ondatzera zirikatu. Ernesto bere urterik onenean baiña geiagoa da Inazio, semerik gazteena. Nik, al badet, pakeak egingo ditut. Ez ordaiñak ematearen atzetik ibili. Bestela, ordain oiek nik artu bearko ditut.

Askotan esan diot au amari.

–Etxetik bialiko aut –esaten dit berak, baiña alperrik.

Xeledonik onela esan zion mutillari:

–Arritzekoa da amak orrela pentsatzea: kanpotik besteren etxera ezkondua, pakeak egiten saiatu bearrean, gorroto orri indar ematen saiatzea.

Eta Pelixek erantzun:

–Aitak bere ituna izenpetu zuenean, ori jarri zuen, bere oiñordeko geratzeko, baldintza bezela: “Ori ez badek nai, besteren bat geratuko dek etxean”. Ori esaten dit.

–Baldintza oiek ondo ikasiak gaude, Pelix. Aitak, Ernestok alegia, ez du besterik esaten. Baiña berak asi ziran eta berak makurtu bear dute –erantzun zion Xeledonik–, Arek oraindik ere egingo du berea, kaskaildu samarra badago ere. Eta mutilla bere aurrean izutu egiten omen da. Askotan esaten digu ori. Geiena, ordea, etxeko legoi gazteak beldurtzen omen dute. Baiña askotan gaiztoa etortzen da benetan.

–Bai. Izaten ditugu alako purrustaldiak. Baiña ordaiñak ematen asteko? Xeledoni, ez naiz orren eroa.

Neskak etzuen itzik atera, baiña igerri zion Peli-xen asmoak nolakoak ziran, eta bere aldetik ontzat artzen zituen. Mutilla, berriz, dotorea zan, eta alako zarrazta bizi bat egin zion biotzean. Aitak ikaragariak esaten bazituen ere, dena egia izango al zan? Ez ote zebillen gorroto ori bere seme-alabetan iraun eta azi erazi naian? Aita zirikatuko zuela etzan bate-re arritzekoa, luzaroan erri artako oillarra bera izan zan; eta orain, eziñera etorri danean, berriz, semeak berotu nai lituzkela bere etsaien kontra.

Olako oroipenak igaro ziran neskaren burutik. Eta amaren aurrera etortzera ausartu mutilla! Ez ote zebillen bere atzetik? Eta pakeak egiteko ez dago beste biderik: maitasuna. Orri eutsiko zion neskak, oso atsegin zitzaion mutilla ta.

Mezatic atera ziranean, bero zegoen eta mutillak zerbait artzera konbidatu zituen. Jakiña, mendian, ermitaren inguruan, ez dago ezer ere. Baiña ortarako erritik saltzailleak igotzen dira.

-Eskerrik asko, Pelix -erantzun zion neskak-. Amak nai badu beiñepin, nere aldetik pozik. Emen bero dago. Aitak ikusiko bagiñu, zer ez ote luke esango?

Amaren erantzuna:

-Pozik artuko det nik ere, gain ontan eguzkiak gogotik jotzen du, ta arek ikusiko gaitun beldurrik ez dago ta.

Ezer askorik etzegoen; baiña ordurako astoan edo mandoan eramaten asiak ziran ormatutako ontzietan edangarriak, nai zuenarentzat salgai. Alako zerbait artuko zuten. Erroskillak ere etziran paltako. Nik ume-umetatik ala ezagutu izan det. Etxeraiño ere ekarriko zituzten irrifan ateratako erroskillak.

Beren eginkizun ori bukatu zutenean, berriro ala eskatu zien mutillak. Etzituen beartu erazi nai.

Neska pozik etorriko zan, baiña ama zebillen atzera.

–Orain, etxerakoan, zuekin batera jexten ametitzen al nauzute?

–Amak nai badu, nere aldetik pozik –erantzun zuen alabak.

Onek bere biotza erakutsi nai zion, atsegin zitzaiola, alegia.

Amak laster igerri zion etxeko pakeak galdu zituztela. Aitak ori jakiten zuenean, etzan izango atsegin. Zirudienez, alabari sartu zitzaion mutilla biotzera; eta amak, ezetza emateko ausardirik etzuen izan.

–Ori galdetzea ere, Pelix, ez dezu gutxi egin. Zu bezelako mutil gazte eder bat laguntzaille bezela aldamenean eramatea arrotzekoa ere bada guretzat.

–Eskerrik asko. Gure gorroto ta arrokeriak mozteko ez dago beste biderik.

Alaxe, mutilla bien erdian zutela, etorri zan etxera. Ia bertaraiño lagundu zien, agurtzerakoan neskari keiñu bat egiñez. Amak etzuen ikusi. Alabak, bai, ordea.

–Agur, Xeledoni eta Ines. Arpegiz ezagutzen zinuñuztedan, baiña beste gaiñerakoan ez. Purrustada ta ukabilkadak baiño pakerako bide obeak dira auek. Aspaldian ez naiz Astigarragan izan. Irurak alderako, zer moduzko erria dagoen ikusi bear det.

Eta ama-alaben etxea baiño lentxeagoko beste bidetxigor batetik sartu zan etxera.

–Mutil ori biotzeraiño sartu zain noski? –esan zion alabari amak.

–Ni bezelako neska batean arritzekoa al da ori? Edo, dena dagoen bezela utzita, monja sartzea nai al zenduke?

–Ezagutzen al den mutil ori?

–Bein baiño geiagotan ikusi det. Baiña gaur arte ez det itzegiteko egokierarik eduki. Zer du mutil

orrek? Erri ta inguru guzi ontan, Inazio berezi ezkerro, ederragorik ez da. Uzten al diguzute itzegiten! Gaiñera, baserri eder bateko maiorazkoa.

-Baiña aitak ez din begien aurrean ikusi nai. Tratu txarra ematen omen zion orrek.

-Inazioren iritzikoa naiz ni ere: aitak, gertatzen dan alako amar kontatzen digula. Eta bera ere nola ibiliko da arekin? Gaiñera, nik gizona neretzat bear det, eta ez aitarentzat. Mutil ori ez da orren tontoa. Orrek badaki txarrean asita ez daukala zer egiñik. Len esan deguna: maitasunak ekarriko digu pakea.

Ines alai etorri zan etxera; eta mutillaren keiñua etzan arratsalde artan Astigarragara biltzeko eskari bat besterik.

Emeretzi urte bete ta goraka zijoala ikusten zuten neskarengatik ezin esan zezaketen oraindik umea zala ta galerazpenak jartzen asi. Amari beldur gaiztoa ematen ziona etzan besterik: bi familietako zaarren gorrotoa eta bere artan jarraitu naia, kristau lege guziak zapalduz.

Bazkaltzerakoan etzuten olakorik aipatu ere. Etzuten etxeko pakea arraixku txarrean jarri nai. Ortaz itzegiteko, gerora ere bazeukaten naiko denbora.

Bera beiñepein arratsalde artan Astigarragara joango zan polliki-polliki. Mutilla ezagutu arte, etzuen egokiera ori galduko.

Bazkalondoan, bada, txukun ta dotore jantzia, bide-gurutzera atera zitzaion ordu bi ta erdiak alde ortan. Etzuen luzetetsirik egoteko astirik izan. Pelix txuxen etorri zitzaion. Onek goxo-goxo musu eman zion. Baita ordaiñez neskak ere, arpegia zerbait gorritu zitzaion baiña, gaur baiño garestiago zegoen orduan eta.

Beren maite-minketa ondo asi zan. Ernestok ikusi izan balitu, ai zer nolako oiua aterako zuena! Eta berak garai batean ez al zuen berdin egingo?

Oraindik etzuten, alderatzekorik ere, elkar ondo ezagutzen; eta begirune aundiarekin zerabilkiten beren tratua.

Geldi-geldi, lasai joan ziran Astigarragako jaietara. Orduan erri txikia izango zan, gaur ere ez da izugarria ta.

Aiek ara irixterako, ttunttuna ari zuen; eta Santiago mendian ikusi zutena bera zan Astigarragan ere txistulari: gure *Txadonzai*. Erriko aurrak, ala esan baliteke, aren otsera dantzan zebiltzan. Amalau urtez gorakorik etzebillen orduan enparantzan. Baiña bazekiten dotore asko dantzan, txistua- ren doiñura txuxen asko jauzi eta birak egiten. Puska batean begira egon ziran. Bai mutillak esan ere neskari:

–Gu ere dantzatuko al gera oiekin batera?

–Bai itxura ona eman ere. Oraindik ez naiz iñon ibili. Txilibituaren doiñuari oiñak jarraitzeko onak gaude gu. Gure menditik gutxitan jexten gera jolas auetara, eta beti aitarekin edo amarekin. Aien ondolik berezten ere ez digute uzten. Baiña ez det uste gure ama orren lotua artuko zutenik. Sei urtetarako, profesional batek bezin ondo dantzan egiten omen zuen eta.

Aiei begira minutu batzuk igaro zituzten, eta ala zion Inesek Pelixi:

–Auen adiñean dantzak utzi ta artajorran ari- tzen giñan gu, eta ari bearako. Aitak bere idi-parea eta galerarekin eguna kanpoan igaroko zuen, base- rriko lanak eta nekeak emazteari eta oraindik gazte- txo giñan ume auen bizkar utzita.

Ara-onera nolabait arratsaldea igaro zuten. Ezagun asko ikusi zituzten errian. Baiña etzan iñor arritzen, bi fameli aien elkarrekiko gorrotoaren berri etzekitenak ziran eta.

Etxera baiño len meriendatxo bat egin zuten; eta, oitura zan bezela, mutillak ordaindu zuen.

Urrengo jaian noiz eta nora joan itzeginta, illuntze-rako etxean ziran; eta mutilla goizeko bidetxigor ar-tatik sartu zan bere etxe aldera. Lenengo egunerako etzegoen gaizki.

Amak bazituen bere kezka; eta, alaba arratse-an etorri zanean, egin zizkion galdera batzuk:

-Arratsalde guzian non ibili aiz?

-Astigarragan.

-Goizeko mutillarekin?

-Bai, ama. Arritzekoa al da? Gu baiño gaztea-goko amaika bikote bazebillen an.

-Ez diñat ezetzik esango. Ni emeretzi urterekin ezkondu niñunan. Ik ere bete berriak ditun. Baiña mutil orrekin baabil, erasoia diagu gaiñean.

-Ondo mutil dotorea da. Zer du, bada, onek bestek ez dutena?

-Bi fameliak asarre gaudela.

-Adiskidetzeko zer bide oberik?

Amak etzuen aurreragi sartu nai. Berak zenbat ate jarri, ainbeste maratil bazeuzkan alabak. Zapu-tzaldiren batzuk etxean izango zirala, baiña alaba-ren joera etzuen txartzat artzen. Ordua zan txorake-ri oiek utzi ta bide berria billatzeko. Oso bikote ede-rra egiten zuten gaiñera.

Igande ta jaiero bazuten beren txangoa. Oiar-tzunera joan ziran batean, arrituta geratu ziran, eta ala esan zion neskak mutillari, an dantzan zebillen bat beatzarekin erakutsirik:

-An dantzan neska ura ikusten al dezu, Felix?

-Bai. Nere arreba agure batekin.

-Bestela, ondo bere antzekoa da. Baiña Inazio ere or dabil beste neskatx batekin.

-Joango al gera oiekin itzegitera?

-Zergatik ez? Baiña Inazio etzebillen Terexare-

kin? Orain arte ezagunen batek ikusteko beldurrak nenbillen. Gaurtik aurrera ez. Badaukat babes. Inazioaren aurka ez du aitak burruka aundirik egingo. Ez al daukagu nai degunarekin ezkontzerik?

–Kaixo, Terexa! Olako mutil gaztea emen ta orrekin al enbillen dantzan?

–Etorri zait, baiña muzin egin diot, amak ez duela naiko ta.

–Gu emen gabiltzan, bada.

Auek izketan ari zirala etorri zan Inazio.

–Kaixo, Felix eta Ines! Bikote polita egiten dezute.

–Ik ere, nai badek, nere arreba au ez daukak lagun aldrebesa.

–Merienda bat egitera konbidatu dit, eta gero etxera lagunduko diotela. Baiña muzin egin dit. Etzekit nolakoa naiko duen. Noiztik zabilzate elkarrekin?

–Santiago eguna ezkerro, au irugarren txangoa. Ines eta Xeledoniren erdian etorri niñun Santiagomenditik etxeraiño. Amaren beldurrik etzeukagu.

–Gure aita ortan gaiztoagoa izango dek. Baiña gurasoak aukeratu bear al zigutek norekin ezkondu? –zion Inaziok.

–Lengoan amak esan zidanez, emeretzi urte bete baiño len ezkondu omen zala –zion Inesek–. Ez al degu guk askatasun ori merezi?

–Ez dit uste gure amak ere eraso txarririk egingo digunik. Arek zuen etxeko Ernestori zioke benetako gorrotoa. Beste gaiñerakoan, gazteekin laster egingo lizkikek pakeak. Baiña oraindik etzekik gure berri.

–Gure amak badaki, bada. Aitak ez. Arek ikasten duenean izango dira ixtilluak. Amak, ordea, ontzat artzen zuela esan zidan. Gaiñera, arek gozatuko du aita –zion Inesek.

–Aiek nai badute ta ez badute; baiña, guk elkar maite izanik, eta ezkondu nai badegu, legez eragozpena jartzen asterik etzeukatek. Adiñez askatasunaren jabe gaituk –Pelixek.

Laurak batera egin zuten merienda-lege bat. Baita etorri ere etxera. Inor etzan arritzen aiek elkarrekin ikusteaz, eta ia illabetea bazeramakiten. Beti txoroen gisa ez ibiltzezkeroz, atzera edo aurrera egin bearke zutela eta gurasoei arazo orren berri ematea erabaki zuten.

–Ai, Pelix! Orain dator ordu estua eta gaiztoa benetan. Amarena badakit. Baiña ni ez naiz aitari eskubide ori eskatzera ausartzen. Amari bai, eta bi-tartekotza arek egin bearke du. Berdin badakit oni etzaiola gaizki iruditzen. Gure asarre txoro ori mozteko ez dagoela bide oberik esan zidan. Baiña ura ere aitak izutzen du.

–Gure amak ez daki; eta ez dauka zertan jakinik eta nasterik. Baimena eskatze ori ez da oitura on bat besterik. Errespeto on bat edukitzea. Badakit asarre erasoko digula, oraindik ere zuentzat gaizki itzegiten digu ta.

Bi aldeak gora-bera ori egitekotan geratu ziran. Oitura bete, alegia; eta ondo dago, gaiñera, ainbeste egin duten batzuei errespetoa agertzea. Legez ori galeraziko duenik ez da. Alperrik izango dira asarreak.

–Eta aien esana egiten ez degulako etxetik bialtzen bagaituzte?

–Nik ez daukat orren beldurrik. Anairik gazteenak baserrirako ez du bost xentimorik balio. Terexa, arreba, bai. Langillea da, txukun, ederra, goxoa. Doai oiek guziak baditu. Baiña Inaziorekin asi dan ontan, ez dauka aren itxaropenetan bizitzerik. Nai badu edo ez badu, ni maiorazkoa naizen aldetik, nere bear gorrian geratuko da ama.

–Ni beldurrak aidean nago, bada. Baiña ez etxe-

tik bialtzeko -zion Inesek-. Len ere leku ori ederki betea dago. Inaziok ere anka egin beariko du; eta gure etxetik, naiz batek, naiz besteak, ez du interes aundirik jasoko. An ez dago ezer ere, eta amaika lan egiñak gaude bi anai-arrebok.

Ixtilluak eta ezetzak

MUTILLAK etzuen buruausterik eduki. Ordurako, semeak berak esanez, denaren berri bazekien amak: bere semea akerraren alabarekin zebillela. Ala deitzen zion Ernestori. Bizi zan arte, onekiko gorrotorik etzan atera emakume aren biotzetik. Izan ere, arek betirako itxura galduta utzi zuen eguzkia baiño ederragoko bere senarra.

—Ez al dek inguru ontan beste neskari. aita ondatu zuen aker orren alaba artzeko? Alare, zuen egitekoa dek.

Esan zionean erantzun ori eman zion Pelixi amak. Onek etzion arrazoi zuen ala ez begiratzen. Baiña Pelixekin zebillen neskari errespeto aundia zion. Pelix ezkonduko zan. Terexa ezik, beste bi anai-arreba geratzen ziran.

Baiña aiek etzuten aizea besterik eta arrokeria. Inon arkitzen zituzten soiñekorik onen ta garestienak erosten zituzten. Beti jartzen ziran bazkari ta apari txarrak aientzat. Lanari muzin. Aietakoren bat geratzen bazan etxerako, eta beren gisako lagun bat ekarri famelira, baserria saldu ta joatea al zuten kalerera.

Oso begi onez ikusten zuen, bada, bere semeak egindako aukera. Andik edo emendik ikasi zuen; eta, naiz *Akerraren* alaba izan, alako erraiña etzan gaizki etorriko Zurdindegian. Bazekien aita asko maite zuena zala, eta Pelixekin bazituela *Akerrak* bere eztabaidak. Eta ari alaba utzi bearrak min

emango zion. Amak begi onez begiratzen zion arazo orri. Bestela, anbat ezetza emango zion; baiña alperrik, neska-mutillak beren buruaren jabe ziran ta.

Apalondo batean, ama ta seme-alaba guziak etxean zirala, arazo au azaldu zuen Pelixek sendi guztiaren aurrean.

Amak, ez balu nai bezela, bere itz txorrotx batzuk egin zituen; baiña nai ta nai ezkoa zala Ines bezelako emakume bat Zurdindegiko martxa eramateko; eta, maiorazkoa zan aldetik, eskubide osoa zeukala semeak. Berdin alabak etzeukala *Akerraren* antzik. Emakume piña zirudiela.

Terexak, entzun zueneko, ontzat artu zuen. Bera ere ez al zebillen, bada, Inazio Inesen anaiarekin?

Beste bi Pelixen anaiak su ta garretan jarri ziran. Etzala etxe artan angorik sartuko. Etxeko martxa eramateko, aski zirala berak. Aita bizi izan baltz, ango neska errain etxera artu baiño len bialiko zukeala Pelix bera kanpora.

–Ori dek! –zion naigabetua amak–. Etxeko martxa eramatea orren erreza dala uste al dezute? Beste anai-arrebak eta nik irabazten deguna, zuek ondatzen dezute. Lanerako, berriz,... Beti asarre, beti kezka txarrean. Nai ta nai ezkoa dek, bada, emen Ines bezelako neskatxa langille ta osasuntsu bat.

–Etxetik iges egingo degu, bada. Gu ez gera aren mendean biziko.

–Ondo pentsatua, bizitzeko modurik billatzen badezute. Poztuko niñuke ni, eta ez gutxiago erraiña.

–Ni alde nago. Amak, etxeko buru danak, ala nai badu, maiorazkoak berdin, nork bestek dauka ori galerazteko indarrik?

Zorrotz eraso zioten bi gazteenak.

–Bai! Iri ajola din, laster joango aiz ta!

-Aukera daukazute zuek ere, lagunik billatzen badezute.

-Eta ik bai al daukan? -galdetu zioten Terexari.

-Ia urte bete ontan bai.

-Jakin al genezake nor dan ori?

-Orain besteren gorabeerak eta arazoak nola konpondu ari gaitun, garaia datorrenean, ementxe, denen aurrean, azalduko dit.

Denak arrazoi eman zioten, eta Ines izango zan Zurdingo etxeoandre gaztea.

Amaren lanak

BEIN senargaiak fameliko ta amarekiko arazoa konponduta, Ines andregaiak berea konpondu zai geratu ziran, erretoreari beren asmoen berri emanta, onek aldez aurretik olako ta olako nola ezkontzen diran pregoiak edo abisuak eman zitzaizkan:

—Inork, auek ezkontzeko legezko eragozpenik baldin badaki, parrokoari abisatzeko.

Nik gaztetan ala ezagutu izan det. Oraingo berri ez dakit.

Baiña Ines beldurrak aidean zegoen arazo ori aitari agertzeko. Bazekien lenengo itzetik ezezkoa emango ziola. Amarekiko buruausteak uste baiño errezago konponduta, aitarengana aurrez aurre joatera etzan ausartzen. Sekulako arri-erasoa burutik beera eroriz gaiñera, oraindik ezetza emango zion beldurrak, amari eskatu zion bere bitartekotza. Au ere, ordea, kezketan, eziñean bezela aurrera joateko, beldurrak geratu zan.

Ernesto arratsero, lanetik zetorrenean, sutan jartzen zan, Pelix ta bere lagunak zirika ta isekaz zerabilkitela emazteari aitortuz, bere bizimoduari garrantzi geiago emateagatik edo ez dakigu zergatik. Ori egia al zan jakin nai zuela eskatu zion alabari amak.

—Nerekin asi berrian bai oraindik. Baiña bertako tabernariak ala esan zidan bein, Pelixekin ikusi niñun batean:

—Zu al zera Ernestoren alaba?

-Egia diozu. Ezagutzen nauzu orduan -erantzun nion.

-Bai. Eta ezin det ulertu zuk artu dezun joera. Ez al dakizu Pelix ta bere lagunak zure aitari tratu txarra ematen diotela? Geronekoan ia lotu ziran, baiña gazteak egin zuen atzera. Zure aita aundia da, eta oraindik indar zakar puska bat badauka. Baiña etzaio ori bere osasunari komeni. Biotzetik gaizki dabil ta egunen batean zerraldo illa eroriko da.

-Eskerrik asko. Ondo dago. Ori ez nekien -erantzun nion. Bai nere postura garbi-garbi agertu ere, lenbiziko nere aurrean ikusi nuenean.

-Aizu, Pelix: au ta au esan didate zuregatik. Alegia, tratu txarra ematen diozula nere aitari. Egia al da ori?

-Bai. Berak zemai egiten dit, eta egunen batean lotuko gera. Ni ere ezin ninteke arrokeriak eta barrabaskeriak entzuten bizi.

-Pelix, ori ez da egia. Nere aita ez da bera lenengo asten. Nik, alare, garbi-garbi esango dizut neretzat aitaren osasuna dala lenengo. Beraz, ez badiozu pakean uzten, gure artu-emanak ementxe bukatuko dira betiko.

Serio jarri zitzaidan, eta zakar eta amorruez ala erantzun zidan:

-Badakizu arek nere aitari zer egin zion?

-Pasatako ura da ori, Pelix. Zoritxarrez olakoak gertatu ziran. Baiña, neri denak kontatu didatenez, iru aldiz ibili ziran burruka, eta iruetan zure aitak eraso zion. An dauka oraindik buruan makillarekin egindako ebakia. Ura il zan, Jainkoak zerua diola, eta ez du zure babesaren bearrik. Nereak bai, ordea; eta, nere anaiak ikasten badute, oraindik okerrago izango da. Amak eta nik bestek ez dakigu arazo onen berri. Orduan zuk iruzurtu egin nauzu, pa-

keak egin bear ditugula askotan esan didazu ta. Beraz, ari pakean uzteko. borondaterik ez badaukazu, esan bai edo ez. Bestela, datorrena datorrela, banoa ni.

Puska batean pentsatzen egon ondoren, onela erantzun zidan:

-Zurekin geratzen naiz. Gaurtik aurrera begirune guzia edukiko diot, zaarra dagoelako eta nere aitagiarreba izango detalako.

-Beraz, aitak gaizki darabilkitela kontatzen bada, galdetu tabernariari ta bere langille lagunei; eta denak geroztik Pelixengatik ondo itzegiten dute.

Tarteka-tarteka, geroztik ere, tabernariari galdetzen dio, eta ala erantzuten dute:

-Ez tratu txarra eman, ez. Lagundu egiten dio; eta, lagunena bat asten bada aren aurka zerbait esaten, Pelixek ixil erazten du.

-Beraz, ama, ni arekin asi nintzan ezkeron, aita pakean bizi da; eta, ezetz badio, gezurretan ari da. Eta urtea bada au gertaturik. Mutillak baimena iritxi du. Etzuen bearrik ere. Bere urteak baditu. Baiña oitura betetzeko. Gurasoen magalpetik aspaldi atera zan. Ori da guzia.

-Etzekiñat, bada, zer egin, Neroni ere beldurrak nagon ori aitari esateko. Biotza gaizki zerabilkin eta ustegabeko olako berri batek ez ote lioken biotz-zimiko gaiztoaren bat egingo. Gorroto ikaragarria zien etxe ortako guziei.

-Ni jaio baiña lenagoko kontuak dira oiek, eta sekulako noizbait aztutzeko bada ordua. Ez dakit aita ez ote dabillen maleziz. Nere iritzian beiñepein, arek ez die olako gorrotorik. Santi ondatua beti damutu izan zaiola esaten ez du, bada? Bere buruari garrantzi geiago emategatik ez ote digun egi osoa garbi esaten!

-Guk onez-onean nai genduke, bada, arazo au

konpondu, zuen baimenarekin. Baiña ez badezute nai ere, gure ezkontza ez du iñork galeraziko. Adiña badegu. Beraz, eskubide osoa, legeak emana, gure biziak bat egiteko. Nik benetan maite det. Arek ere ni berdin. Bestela etzituen aitarekin pakeak egingo. Gure bidean ez, bada, oztoporik jarri.

–Ortan arrazoi den –zion amak–. Gure bidean ere etziñan iñork oztoporik jarri. Nai genduenarekin eta nai genduen garaian ezkondu giñunan. Besteak ere eskubide berdiña bear ditzen. Nere aldetik, nai dezutenean. Baiña ni ez naun joango. Senarrarekin gaizki geratzerik ez diñat nai.

–Baiña gure berri emango diozu, baimena eskatzeko edo oitura ori betetzeko. Prest gaude zurekin batera joateko ere.

–Ondo zegon. Aitak bere eskubideak badizkin. Bai amak ere, jakiña. Baiña agon lasai. Al badegu, gaur apaltzerakoan dena konponduko diñagu.

Ama-alabak ortan geratu ziran.

Arri-erasoa

ERNESTOK aurrea artu zien bere emazte ta seme-alabei. Auek onez-onean jakin erazi nai zioten arazo onen berri, baiña amorru biziz bota zien arpe-gira.

Illunabarrean aita lanetik artza berbera baiño gaiztoagoa etorri zan. Idiak ukuilluko ateetan utzita, txuxenean sukaldera. Inaziok askatu zituen idiak, eta sartu ukuillura galera zaar astun ura.

Zaarrak sarreran iñor etzuen agurtu ere. Etze-goen izketarako.

-Goxoa zetorrek -zion Inaziok-. Gaur arri-erasoren bat badiagu.

Len esan bezela, bazekien onek Ines Pelixekin zebilela, eta bera berriz onen arrebarekin. Zer ote zuen aitak? Agian Pelixen arrazoi gaiztoren batzuk. Ala bazan, onek moztuko zuen, bada, betiko, naiz bere andregaiarekin asarretu. Beretzat ere aita zan lenengo. Oraindik, alare, ez balego gaixo, bere bu-rua babesteko aiña balitzake ura.

Apaltzera urbildu ziran. Oitu bezela, aita gure batekin aitak bedeinkatu zuen maia. Erraiña zuten serbitzari. Aitagandik asi zan, eta ala esan zion oni maitasunez:

-Etxe ontan zuk bakarrik errespetatzen nauzu etxeko nagusi bezela.

-Eskerrik asko, aita. Baiña iñor ez det nabaitzen zuregatik gaizki esaka.

–Ez, noski. Baiña berak nai dutena egiten ditenta.

Ama sartu zan orduan, eta min eman zion onen erantzunak Ernestori:

–Zuk badituzu zure eskubideak, baiña bai emazteak ere. “Komonera joan nai nuke” eta belau-niko jarrita egin bear guzietarako zuri baimena eskatzen ezin ariko gera.

–Ez naiz zuregatik ari –amorruez erantzun zion.

–Iñork etzaitula errespetatzen esan dezu ta.

–Gaur nere begien aurrean ikusi detanak sutu bai nau.

–Orrela sutu zaituen ikuskizun ori nolakoa da, bada?

–Nere alaba, neska txoro au, ikusi det Pelixekin izketan.

–Ori al da guzia, olako buruausteak ematen dizkizuna? Egia da, aita, arekin nabillela. Nik etxe ontan ez daukat lekurik, eta garaiz billatu nai nuke biziko naizen etxea eta laguna. Asko maite bazaitugu ere, gure etorkizunaz pentsatzen asi bearra daukagu. Zu il arte emen ezin giñezke geratu, nork zainduaren paltarik ez daukazu ta –esan zion Inesek.

–Ernesto, etzaita eskubiderik ez daukazun lekuan sartu. Etzazula zalantzarik egin, erriko erreto-rea izango dutela lagun eta babesik beroena. Amai-ka aldiz, mezaren batzuk enkargatzera joanta, bota izan dit txorrotx asko arpegira: “Errian zeraten bi sendi sonatuenak zuek zerate, eta ortik beti berri txarrak datoz nere belarrietara: ezin ikusia, gorrotoa, okasioa andik-emendik. Jainkoaren ta gizonaren aurrerako txarra da ori. Zuengatik gaizki esaka zenbat astakeri ez ditut entzuten? Onuzkero, pake-ak egiteko badezute ordu. Erriko buru nai litekek izan –diote–. Ondare bezela ori erakusten ziek gazte-

ei". Askotan itzezin dit bikarioak orrela. Baita arrazoi gaiztoagoak esan ere. Oiek berezi nairik ibiltzea, bada, Ernesto, alperrikakoa da.

-Alabak, dakiela, saldu egin nau.

-Ori ez da egia -erantzun zion Inaziok.

-Ni bizi naizen arte, ez da nere alabarik orrekin ezkonduko.

Inesek, samindua, aitari musu ematera joan zan. Aitak, berriz, purrustan zutituta, jotzeko asmoan asi zan. Baiña Inazio sartu zan bien erdian.

-Ez beldurtu, Ines, emengo anai-arreba gazteak zurekin dauzkazu ta.

-Obe uke, ni gaizki narabilkienari bere arroke-riak moztuko baizkioke.

-Aita, barkatu erantzuna. Baiña zuk esaten dezunik ez da gertatzen an. Nik tabernariarekin itzezin det. Zuk ere obe zenduke gure izen onak zikin-tzen ez baziña ariko. Nik ortaz itzezin det Pelixekin, eta ala erantzun dit: "Guk etziogu ire aitari tratu txarrik ematen, etzaidak komeni ta. Ori gezurra dek".

Itz auek entzun orduko, sekulako zanpetakoa eman ta aldegin zuen maitetik; eta Inesek jarraitu zion atzetik. Aiek biak palta ziran; ta, itxogiñaldi bat egin ondoren, abisatzera joan zan ama.

-Lasai, bada, Ernesto. Ori ez da gure egitekoa; ta guk lagundu egin bear diegu, gure seme-alabak etxe onetara sartu ditezen. Atoz apaltzera.

-Ez, Inazioren ateraldiak benetan sutu nau ta.

-Oiek ere beren buruak babestu nai dituzte. Zer nai zenduke ekartzea?

-Oierakoan ekatzu katillokada bat kapesne be-ro, eta aski det.

Bi musu eman zizkion, ta:

-Etzagun naastu famelia.

-Zu beti bezin gozo ta maitale.

-Ez al gera, bada, zorionekoak izan?

Eta txuxenean alabaren gelara joan zan. Au Madalen bat egiña arkitu zuen; eta, lasaitu zanean, berekin batera eraman zuen apaltzera. Bizia eman-go zukean onek aitaren alde, eta aurrean biali zuen.

Ama on batek zer ez lezake egin famelia pakean edukitzeko?

Aita-amak maian etziran bitarte, erabaki sendoa artu zuten gazteak: elkar artu ta bakoitzaren eskubideak zaintzea. Etzitzaion maitasunari aterik itxi bear. Etziran aita ta amarentzat ezkonduko. Beren urteak bazituzten, aukera ori egiteko.

Goizean, artza baiño ere zakarrago ta illunago jeiki zan aita; eta, ama ta erraiñarekin sukaldean izketalditxo bat egin zuen bitartean, Inaziok idiak eta galera moldatu zizkion, nai zuenean atera. Ez bazan gauza, berriz, bera joango zala aitaren ordez.

Ukuilluko lanak zaarrenak egiten zituen, eta ama jexten zan errira esne ta gaiñerako tratuarekin. Martxa ori zegoen jarria. Aurki erraiña asiko zan kalera. Ama ere, oraindik zaarra ez izan arren, loditu ta baldartu samar zebillen.

Emakumeak agurtu zituen Ernestok, baiña Inesengandik igesi zebillen. Etzuen arekin ezer ere jakin nai. Saldu egin omen zuen arek, etxeko maitagarriena bera zuen ta.

Goizero bezela, aitaren lanerako abian, oitu bezela, alaba atera zitzaion, egun onak opatuz eta musu bat eman ez agurtzera. Baiña:

-Utika! Oan emendik Pelixi ematera!

Ukatu egin zion, Alabak, jakiña, min artu zuen. Baiña aitaren purrustadak alperrik ziran. Etzegoen atzera egiteko asmoan.

Erraiñak eraman zion egun guziko jana galera-
ra. Inaziok, zekien bezela, uztarria jarri zion; eta,
nekatuegia bazegoen, semeak bere burua eskeiñi
zion.

-Ez dit bearrik. Atzo zertan itzegiñik bai al eu-
kan? Nik alabari galdetu nioken.

-Baiña nik zuri erantzun. Etsaien kontra baka-
rrik uzten ziñugula esan zenduen. Nik orri erantzun
nion, ez baita egia. Guk ere gure izen ona maite de-
gu; eta, ez banintz ni sartu, anaia izango zan itza
artuko zuena. Baiña arek etxean zurekin bizi bear
du, eta olako igurtzi txarrik etzan komeni. Gu as-
pertuak gaude zuk tabernetan kontatzen dezunare-
kin: langille lagunak nola gaizki zarabilzkizuten, eta
guk ez degula aintzakotz artzen. "Ori ez mozteko zer
egiten ditek, bada, semeak?" bati baiño geiagori en-
tzun diet; eta arazo au okerrago ez jartzeko, ixildu
egiten naiz. Tabernariari galdetu ta an ez dala ola-
korik gertatzen. Langilleak berdin. "Olako mutil-
-parea zegok. Zer egiten ditek aita obeto ez zaintze-
ko?". Izen txar orrek min ematen digu. Ez baita
egia.

Arrazoirik etzuen ezkerro, etzion erantzunik
eman. Zezenak bezela sudur-txistu bat egin ta joan
zan, txakurra lagun zuela.

Amak beldurrak aidean pasa zuen eguna. Se-
meak eman zion erantzunak min eman aitari.
Baiña semeak zuen arrazoi. Aitak, bere buruari ga-
rrantzia emategatik, kontu kontari ari zan, lante-
gian gazteak tratu txarra ematen ziotela. Orrekin,
semeak etziotela laguntzen agertu nai zuen, eta
etzan egia.

Orko gora-beeren berri zekien batek, ala eran-
tzun zion aitari tabernan:

-Seme gazteena ordeko jarri ta zergatik etzera
geratzen? Ari tratu txarra ematen asterako, bi bider

pentsatuko dute, eta beren neurriak artu ere bai.

–Orregatik naukatek utzia –erantzun omen zion amorruz.

–Ori, Ernesto, tabernan gauden guziok dakigu ez dala egia. Pelixek esanta dakit, bera ta zure alaba Ines laster ezkontzekoak dirala. Arek zurekin egin zituela pakeak. Ori da nik dakidana.

Denak bere berri bazekitela igerri zionean, artu zuena ordaindu ta aldegin zuen taberna artatik, artzarik amorratuena baiño zakarrago, bere gezurrak argitara azaldu ziralako. Eta ezin egon ixilik.

–Goxoa joan dek –zion batek.

–Egoskor jartzen bada, goxatu bat emateko etziek leku txarrera. Atzo entzuten nin oiuka nola esaten zuen, etzala sekula bere alaba Ines mutil orrekin ezkonduko. Baiña ortarako adiñean zeudek, eta nork galerazi, maite badira beiñepein?

–Inguru artako oillarra izan dan batentzat zailla dek, motell, orain, ezin duenean, edozein kakatsuren aurrean umildu bearra.

Idiak ekarri zuten etxera. Bera, berriz, galera gaiñean lo. Ukuilluko sarreran gelditu ziran idiak. Inazio atera zan, eta txakurrak zenbait pertsonak baiño ongi-etorri gozoagoa egin zion. Semeak esnatu zuen aita; eta, zoritxarrez, erdi mozkorra zetorren. Etzan edale oietakoa. Gutxitan aterako zan bere neurritik. Baiña naigabeak aztutzeko iñoizka egiten zituen olakoak.

–Ongi etorria, aita,

Esnatu ta alako sudur-txistu batekin erantzun zion:

–Ongi arkitua.

Txuxenean sukaldera joan zan. An Ines alaba arkitu zuen, eta ari itzik trukatu gabe bere gelara sartu zan, bere muturje ta begiratu gaiztoarekin

alaba izutuko zuelakoan. Zurruta egiten zuenean, aita otsoa baiño zakarrago jartzen baizan. Baiña atzera edo aurrera egin bear zuen apartan. Etziran gazteak gurasoak nai zutenarekin ezkonduko. Inesek denak bere alde zeuzkan, aita ezik. Baita ama ere azkenean.

Inaziok ere, bere lanak bukatu ta sukaldera joan zanean, Ines arkitu zuen, koiñata falta zan eta aren lan batzuk egiten.

-Aitak itzik egin al din? -galdetu zion.

-Ezta begiratu ere. Goxoa joan dek gelara.

-Erdi moxkorra ta gaiztotua zetorren, errespeto guziarekin esanda. Baiña gaur bukatu bear diñagu arazo txoro au. Ez gero beldurrak atzeratu.

-Ez, Inazio, ez. Ondo zainduko ditut nere esku-bideak.

-Oitura dan bezela, eskatu akion baimena aitari. Nai duena esan dezala.

Aitarenak egin du

IRITXI zan apal ordua. Beste gaiñerakoak maiaren inguruan zeuden; baiña aita, Ernesto alegia, etzan ageri.

Bazekiten amorratua etorri zala, eta bera oitua zegoen baiño ondotoz geiago edana azaldu zala etxera; eta, esku artean zekarten arazoari atzera edo aurrera egiteko asmoan, seme-alaba guziak bat egin zuten. Asarreak asarre, etziran arrazoiari berea eman nai etzion aitonaren mende biziko. Aren naiera ez ezkondu ere.

Amak deitu zuen apaltzera, denak zai zeuzkala ta. Alako eztarria garbitzeko karranka bat egin zion senarrak, erantzunez:

–Or nauzu. Denak zu bezelakoak balira, etxean ez genduke orrela ibili bearrik. Onuzkero nere zai gozoak egongo dira gazte oiek.

–Oiek eskubide osoz eskatzen dutena ontzat artzen badezu, txoria baiño alaiago jarriko dira. Beren buruen jabe bailirake orduan.

Beste karranka bat egin zuen, ta berriro erantzun zion:

–Banator.

Orduan ama sukaldera joan zan.

–Zer moduz dago? –galdetu zioten amari.

–Zakar eta karrankaka, bazter guziak etentzeko asmoan.

–Bidean geratuko da aita; eta, etxeko nagusi

bera degun ezkerro, begirune osoa eduki bear diogu. Ortarako, ama, zuk dakizun bezela, seme-alabon babesa zuk egin zaiguzu. Ez dezala esan: "Gazte txoro oiek bat egin dezute"; eta dena utzita aldegin.

Etzuten itxogin bear aundirik izan. Laster azaldu zan. Bizarra mozten asi ta bukatu gabea, esku-biko oiñetakoa ezkerrean jantzia, prakak ondo lotu gabeak, ijito bat bezela azaldu zan. Geiegi irentsi zuena ezin egosirik sartu zanean, denak batera agurtu zuten. Geienak, beste norbait izan balitz, par egingo zuten. Baiña beren aita artara ikusirik, benetan naigabetu ziran.

-Aita, Jainkoak gabon dizula.

Berriro eztarriari karranka egiñez erantzun zien:

-Baita zuei ere.

Eta ixilik geratu zan.

-Ernesto, aita gure batekin bedeinka zazu maia -esan zion emazteak.

-Bedeinka dezatela gazte auek. Denaren jabe ez dira, bada, berak egin?

-Ori, Ernesto, ez da zure iritzi txar bat besterik. Oiek ez dute beren eskubideak eskatu besterik egi-ten. Ea, berandu da ta errezatu zazu, apaltzen asi gaitezen, ordua pasa da ta.

Zekien bezela, oitura ori zuten ezkerro, bedeinkatu zuen, eta asi zan aparria. Erraiñak serbitzen zuen. Au oso maitea zuen Ernestok.

Denak ixilik eta buru-makur, iñor etzan itzegi-tera ere ausartzen. Noizbait amak artu zuen itza:

-Badakizu arazo larri bat dakarkigula esku artean; eta, ori konpontzeko asmoan, denok batera mai onen inguruan bildu gerala.

Ernestok ondo zekien, baiña onela galdetu zuen:

-Zer da, bada, olako arazo ori?

Orduan itza Inesek artu zuen, ortara zeukaten elkarrizketa moldatua ta:

-Ia urte bete ontan mutil batekin nabil, eta ezkondu egin nai nuke.

-Ez den ori asmo txarra. Jakin al nezake maite denan ori nor dan?

-Pelix, Zurdingegiko semerik zaarrena.

-Zer esan den?

-Pelix, Zurdingegiko mutillarekin.

-Ezta pentsatu ere, ni bizi naizen artean beñe-pein.

-Aita, eztaietako eguna ere aukeratua daukagu, bada.

-Nere berririk gabe? Nik baimena emanta ez beñepein.

-Ondo dago. Bikarioak dauka azkeneko itza.

-Bide ondoko gurutze ura ikusia izango den, noski.

-Bai. Askotan.

-Eta norengatik jaso dan badakin?

-Ni ez naiz gurutze oien berriak ikasi nairik ibiltzen.

-Jakin zan, bada, bein betiko. Ni Pelixen aitarekin eta orain onekin bezela zebileken nere aitona-ren aita. Kinta batekoak ituan, eta koartel batera biltzen ziranak. Biak, beren soldaduzkan koartelera baiño len, amaika burruka-saio egiñak; eta, ni ire senargaiaren aitarekin bezela, beti gurea gaillentzen uan. Bein baiño geiagotan agintariak zigortu ere bai. Andik etorri ziranean, beren gorrotoak berdin jardun zian. Auen asarrea baiño lenagotik zetorrena uan, gaiñera. Pelixen amak orain zirikatzen duen bezela, orduan ere ama uan zirikatzen zuena. Jain-

koak dakien ezkeru, orrelaxe bizi gaituk bi sendiak.

Amak bixi-bixi ala erantzun zion:

–Gure asmoak babesteko, nai ta ere etzenduen argumento oberik emango. Ez naiz, bada, zirikatzaile izango. Orain gazteak elkar maite duten ezkeru, komeni litzake biak ezkontzea; eta noiztik eta zertatik datorren ez dakigun gorroto ori betiko moztea.

–Len ere esan dizut garbi asko: ni bizi naizen arte, ezta pentsatu ere.

Ernestok berean jarraitu zuen:

–Arrats batean, ordurako gurea zaartu samarra, ango seme gaztea erten zitzaion, eta nor zan agertu gabe amar labanazo eman zizkion; eta “ai” ere esateko kemenik gabe, odol-ustua, gurutzea dagoen lekuan arkitu zuten illa. Baiña iltzailleak Ameriketa alde ortara iges egin zuen. Beraren ama, zirikatzaile bezela, luzaroan espetxean eduki zuten, baiña bizirik etorri zan. Ikaragarriak esaten omen zituen guregatik; baiña, burutik erdi joana zegoen ezkeru, etzioten kasorik egiten. Beren errua zala inguruko jende guziak baizekien. Nere aitonak olaxe ibili ziran, aiek zaartu ta gero ni etorri nintzan arte. Eta orain ni nabil. Seme gazte indartsu askoak badiut; baiña ez naute aintzakotz artzen. Nik nere gurasoak aiña ez naute ni nereak maite.

–Ori, Ernesto, ondo dakizu ez dala orrela. Gerokean itzezin nuen tabernariarekin, ta bai langilleekin ere. Ori moztua dago, Inesekin asi zan ezkeru; eta Pelixek berak ala esan zidan atsegiñez lengo batean: “Aitatzat daukadan gizon bat nola ez det, bada, errespetatuko?”. Guk, berriz, ukabilka ibili gabe konpondu degu guzia –esan zuen Inaziok arin-arin, iñork gaizki artu etzezan.

Alako zeken-begiratu bat egin bai, baiña etzion erantzun aitak.

–Ori dena ala izango da. Baiña gaur onera bildu

erazten gaitun arazoa ez da ori. Inesek, adiñean dagoen ezker, ezkondu nai du. Bai edo ez, ori daukagu erabaki bearra -zion amak, lenbailen bukatzeko.

-Len ere garbi esan det: ni bizi naizen arte, ez! -erantzun zion, asarre, aitak.

-Aizu, Ernesto: amak ere baditu bere eskubideak. Etxera ezkonduko balitz, arrazoi emango nizuke. Baiña zer eragozpen dago, alaba, etxea betea dagoen ezker, kanpora ezkontzeko? Errian dan base-ririk onenetakora, gaiñera. Mutilla ere alatsu.

-Ezta pentsatu ere. Atso zimatsu aren ondoan, au ere bereala etsai egingo zaiguke. Orain arteko etorkiñak ala izan ditugu. Gure aurrekoei gertatua ez degu aztu bear.

-Ur ori, Ernesto, aspaldi igaro zan. Zoritxarrez, gazte giñanean ondo pentsatu ez genduelako, orain da ordua gorroto oiek betiko bukatzeko.

-Zu kargatu ta tira ari zera, Xeledoni. Baiña ni bizi naizen arte, ez!

-Naigabe ematen didazu zure arrokeri itxu orrekin. Berdin ori da guzia; eta, nai badezu eta ez badezu, ori galerazterik ez daukazu. Ez daude gazte auek gure mende. Beren eskubideak badituzte, nai duten bidetik joateko. Ez daukagu indarrik ori galarazteko. Laguntzailerik onena erriko parrokoa izango dute. Gure berri ondo baidaki.

-Bai; baiña gure seme-alaben etorkizunarekin ez. Gure egitekoa ez da besterik: zorionekoak izan ditezen lagundu.

Ezin irentsia

ERNESTOK okasio gaiztoak izan bazituen ere, eraso ziotelako etzuen bere burua babestu besterik egin. Pake-zalea izan zan beti, eta zurrutero eskasa. Seme-alabekin, berriz, gozoa.

Baiña zaartu ta eziñean arkitu zanean, eta gero garai batean ikusteko ere etzituen kakatsu batzuk gaiña artu ziotela-ta, ezin irentsi izan zuen ori. Baiña ez etsi ere. Orrek buruauste aundiak ematen zizkion bere zaartzera. Ori ezin irentsirik, eta ustez bere burua lasaitzeko, eta al zuen aiñean aztu ta nalgabeak arintzeko, zoritxarrez zurrutari eman zion. Orduan, berriz, deabru guziak berekin bazituen bezela, gaiztotua geratzen zan. Denen oillarra izana zan; eta orain, berriz oillaskoak ere kukurruku egiten zioten lasai.

Askotan, bere baitara bildua, gero ta aulago zi-joala igerririk, muturje illuna edukitzen zuen, iñorekin itzegiteko beldurrak igesi, eta bakarrizketan.

Lantegitik askotan amorratua etortzen zan, eta etxean etzutela sendiko buru bezela ezagutu nai. Ori etzan, ez, egi osoa. Gazteak, arrazoiarekin, beren eskubideak eskatu besterik etzuten egiten.

Zaarrena, berak nai zuenarekin ezkondu zan. Etxera, gaiñera, maiorazkoa zan ezkerre. Inesi ere etzion galeraziko. Baiña senargaia etsairik amorratuena izaki. Ori billaukeri eta saldukeritzat artzen zuen. Gorrotoak begiak itxi erazten baizizkion.

Gazteak amaren magalean babestu ziran. Ari begirune aundia zion aitak. Arek, berriz, pakea nai zuen; moztu betiko elkar txikitze ori.

Aitortzera joaten zanean, beti ori botatzen zion arpegira parrokoak:

–Sendi bikaiñak zerate, eta benetan elizkoiak. Baiña elkar ezin ikusi ori gizonen ta Jainkoaren aurrerako txarra da. Bera il zutenen alde bizia eman zuen Jesusek. Zuek, berriz, ondare bezela gorroto ori seme-alaben biotzetan ereiten.

Ama, polliki-polliki, ezin ikusi ori menderatzen ari zuen. Orrek berak erremintzen zuen aita gizara-joa geiena.

Lantegitik erretiratuko litzake pozik, eta badaki komeni zaiola. Baiña etxean zer atsegin dauka, denak ankapean artu dute ta?

Ia bi urte aietan olaxe bizi da, bada, gure Ernesto. Euskal Erri guzian ezaguna, gero ta eskasago; eta, bere iritzian, etsaiak indartzen. Baiña au etzan egia. Errian eta inguruetan bi indartsuenak bere semeak ziran.

Illunabar artan, bada, denak Inesen eskubideak zaindu ta babestu zituzten, eta aita zer erabaki artu etzekiela geratu zan, alaba jo nai izateraiñoko amorrutarekin. Au, ordea, bi anaien erdian babestua zegoen, eta etzioten utzi bere asmo gaiztoak betetzen. Bakarrik geratu zan denen aurka.

Inesi, bada, amak ala galdetu zion, bein betiko arazo ori erabakitzeke:

–Orduan ik mutil orrekin ezkondu nai den?

–Bai, ama. Olako egun eta orduan, eta erriko elizan bertan. Zertako ibili ara-onera alperrikako kastuak egiten?

–Orrekin ezkontzeko, alaba, nik ez diñat baime-nik emango –esan zuen Ernestok.

–Ori, aita, erabakia dago. Parroko jaunak ez du atzerarik egingo. Bera da zoratuena ortan, eta gure asmoa emen azaltzeko agindu dit berak, ainbeste kalte egiten digun gorroto txoro ori mozteko, eta zuk nai edo ez. Barkatu, aita: eskubide osoa daukagunez, egun ortan eta eliz ortan, ustegabeko enbarazurik ez bada, ezkonduko gera.

–Orduan nik baiño geiago agintzen din parrokoak.

–Arazo ortan beiñepein bai, nik ala nai badet.

Erantzun orrekin itxutu zan aita, eta berriro alaba jotzeko zutitu zan. Baiña semerik zaarrenak babestu zuen bere arreba aurrean jarrita, eta nai zuena egiten etzion utzi aitari.

Orduan aita zerraldo erori zan, eta bi semeen artean eraman zuten oatzera. Orrekin bukatu ziran aparria ta batzarra.

Gaubela egingo zuten. Lenengo ama joan zan, ea goxatzen zuen bere senarra. Ondoren Ines joango zan; eta gero, txandaka-txandaka, beste gaiñerakoak.

Oatzera eraman orduko, bere onera etorri zan. Emaztea aulkitxo batean errosarioa beatzetan zera-bilkiela ikusi zuenean, gure Ernesto benetan urrikaldu zan.

–Xeledoni, mesedez zoaz lotara –esan zion–. Beti izan naiz egoskorra; eta, zaartu naizen ontan, Txoritokietako arkaitza baiño gogorragoa.

–Ez, Ernesto. Etzaitugu bakarrik utziko. Maite zaitugula jakin ezazu.

–Eta semeak zertarako azi ditugu, eziñean gabiltzan orduan bakarrik uztezkeroz?

–Txandaka-txandaka, bat bestearen urren, danak pasako gera emendik.

–Nai badet eta ez badet ori egiña dagoela esan ez dit, bada, alabak?

–Gogortxoegi itzegitea baliteke, baiña arrazoi du. Bi aldeak elkar artu badute, ez dago zer egiñik. Gure agintepetik atereak dira, beren etorkizunaren jabe egiteko. Orregatik, makurtu zaite eta bedeinka itzazu. Denok irabaziko degu ortan.

–Ni il arte ez dira ezkonduko.

–Arrokeri orrekin sendi guzia supritzen daukazu.

Uste gabeen loak artu zuen, eta bitarte ortan egin zan aldaketa. Amaren lekurako Ines alaba etorri zan aita zaitzera. Puska batean lo zurrungan egon zan aita. Bai noizbait esnatu ere. Orduan amorruak lotu zion biotza.

–Aitaren aginduak ez betetzeko nor augu? Nere eziñean ere begiak atsegintzeko irri egitera al atorren nere aurrera?

–Ori, aita, zedorrek ere badakizu gezurra diozula. Nik zure eskubideak beti txuxen-txuxen bete izan ditut; eta, jakiña, nereak eskatu. Ez daukazu neri arrazoi gezurrezko oiek arpegira botatzeko eskubiderik. Mutil ori ez da zuk uste bezin gaiztoa. Amak zirikatzen du, txarrerako aolkuak emanaz. Arek ere, zuk bezela, gure ezkontza au moztu nai luke, eta pozik bialiko semea etxetik. Baiña ez du beste pulamentuzko semerik. Iru alaba ditu eta beste seme bat erdi txoraa.

–Nik ez diñat, bada, zuen ezkontza ori egundo bedeinkatuko.

–Ez diezu nolanaiko gorrotoa.

–Arek neri didana bezelakoa. Beti neregatik gaizki esaka ari den. Badin arek ere aztutzeko ordua. Erru guziak berak zizkitek, ta nik ez diñat oien erasotik nere burua babestu besterik egin.

–Jainkoak bedeinkatzen bagaitu, ez degu besteren bearrik.

Olaxe izketan ari zirala, loak artu zuen.

Urrena semerik zaarrena sartu zan gaubelara, aita lotan zegoela; eta, esnatu zanean, alabari beze-la eraso zion oni ere:

-Arro astaputza aleena i!

-Zure loa ta zurrungak zaintzera etorri dan seme bati esateko arrazoiak al dira oiek? Baiña, aita zeran aldetik, dena barkatzen dizut.

-Zertan jarri aiz alabaren aurrean? Masailleko bat ederra merezi zian arek.

-Legez tokatzen zaizkion eskubideak eskatu dituelako? Badakit jo ez dezulako orain pozten zerala. Ezkondu nai duen ogei urteko neskatxa batek errespeto geiago merezi du.

-Ez geiegi arrotu, etxe ontako nagusia ni nauk oraindik eta.

-Ori ez dizu iñork ukatuko. Baiña ezkontzeko adiñean dauden seme-alabak oinpean edukitzeko ez, beren buruaren jabe egiñak daude ta.

-Baserria maite badek, abil erne. Maiorazkoa aizelako etzegok dena egiña. Nerea dek azkeneko itza.

-Alegia, biali egingo nauzula? Ez det orrekin ezer askorik galduko. Nere lekurako nor etorriko dala uste dezu onera?

Izketa gaizto au entzunez, aitak lo artu zuen; eta geitxo edan ta gaiztotua zegoela iruditu zitzaion semeari.

Goizaldera joan zan gazteena. Aldaketa egitera-koan, ala galdetu zion zaarrenari:

-Zer moduz zegok aita?

-Edozer astakeri esango dizkik iri ere, neri bezela. Zurrungaka geratu dek. Geitxo edana ote da-
goen iruditzen zaidak.

-Badakik apaltzen bertan zenbat sartu dan orren zakuan.

–Gure aitarenak egin dik. Gutxiena uste degu-
nean, edozein lekutan zerraldo illa eroriko zaiguk.
Gaur beiñepein ez al dek egurketara joango.

–Oraindik gaztea dek, motell.

–Bai. Baiña beti ezkontza ori zerabilkik gogoan.
Galerazi nai likek, baiña alperrik. Eta, bere eziñaren
aurrean, ori aztutzeko, noski, zurrutari eman ziok.
Idi-apustuatarako ere etzeukak deirik. Ni nebillek
bere lekuan. Zearo baldartu dek, aurre aldera gor-
putza makurtzeraiño. Jendeak etziok len bezelako
begirunerik. Berak dionez, orain oillaxkoak ere ku-
kurruku jotzen ziotek. Eta Pelixekin darabilzkien ix-
tilluak, gaiñera. Etxeko pakerik eza okerrena, noski.
Oiek denak zearo goi-beeak jota utzi ditek. Lengo
itzalik ez dek orain. Azkeneko bi urte auetan egin
duen beerakada! Emendik bi urtera ez diagu aita-
rik.

–Inguru auetako gizonik aipatuena izan dan
batentzat tristea dek ori, motell.

–Autsetik sortu giñun eta autsetara giazik. Ori
garaiz ulertzen duenak eta erretiratzen danak as-
matuko dik.

Inaziok, anaia agurtu ta sartu zanean, lo bete-
an zurrungan ao zabalka arkitu zuen, bezperan
geiegi sartua ezin egosirik. Esmatu zanean, oni ere
laster eraso zion:

–Zertarako dituk ire indarrak, ire aita joka da-
rabilkitenei ez galerazteko?

–Zuk Pelix errespetatzen badezu, arek ere bai
zu. Bere amari ematen dizkio errurik geienak: arek
zirikatzen duela. Urrena, berriz, zuri. Zu ez bazera
aren arazoetan sartzan, arek pake-pakean utziko
zaitula. Ez daukala mutur joka ibiltzeko gogorik,
batez ere Inesekin asi zan ezkeroztik.

Seme-akabak, bada, gaizki esaka artu zituen,
eta kanpoan ere aiengatik gaizki itzegiten zuen.

Auek, berriz, beren izen ona babestu besterik etzuten egiten. Baiña emaztea etzuen asarre artu. Mozkorra egon arren, aita benetan urrikaldu zitzaion.

Goizaldera, garaia etorri zanean, aita lotan zurrungaka utzita, ixil-ixilik atera zan Inazio gelatik, idiak lotzera. Inesek lagundu zion. Oitura zuen bezela, zaarrenak ukuilluko lanak egin zituen. Xeledonik, amak alegia, eta erraiñak lenengo denentzat gosari txikia jarri, ta gero aitarentzat egun guzirako bazkari-zakotea, ona ta oparoa. Txakurrarentzat ere bai zerbait.

Dena bear bezela moldatu zutenean, jeikitzeke deia artu zuen aitak. Emazteak, ikusi zuen orduko, antz eman zion ondo etzegoela eta ezin zitekela arraixku artan joaten utzi, batez ere bakarrik.

-Zu, aita, nekatua zaude -esan zion semeak-. Nai badezu beiñepein, gaurko joan-etorria nik egingo det.

Unetxo batean pentsatzen egon ondoren, baietz erantzun zion, burua naastu samarra zeukala oraindik eta.

Baietza eman zionean, poztu ziran denak. Aita gaizki zegoela, denen iritzia ori zan. Emazteak goxogoxo beso ondotik artu ta sukaldera eraman zuen.

Bart apaltzerakoan egindako ondoezak zearo izutu zuen. Bidean alakoren bat gertatu ezkerro, zer egin bear zuen bakarrik, iñoren laguntzarik gabe? Pozik joango zana geratu zan, bada. Urrengo egunetik, berriz ere lan orri jarraituko zion.

Inazio joan zan, txakurra lagun zuela. Ikasi nai zuen aitak ziona egia ote zan edo bere buruari garrantzi geiago emateagatik ari ote zan tratu txarren kontari.

Etxean denak poztu ziran. Emazteak esan ere bai:

-Zergatik ez dezu lan ori betiko uzten, Inazio aspaldian lanik gabe dago ta?

-Etxean ere zer atsegin daukat nik, ez nauzute errespetatzen ta?

-Ori, Ernesto, ez da egia. Inork jaso al dizu eskurik?

Inazio ta Pelix

INAZIOK bazeukan txango ori egiteko gogo. Tabernariari, Pelixi ta langillei itzegiteko asmoan zijoan, ea aitak etxean kontatzen zituenak egiak ote ziran.

Denbora irabazteko, bixi-bixi joan zan. Lantegia alderago zeukalako, lenengo iritxi zan. Txuxenean gurdia kargatzaillei utzita, tabernara sartu zan, ea angoak zer esaten zion.

Tabernaria, semea ikusi zuenean, arritu egin zan. "Aitak zergatik utzi ote dio semeari etortzen? -pentsatu zuen-. Bestea gaixo egongo dek. Edo, agian, au emen zer gertatzen dan jakitera etorriko uan".

-Egun on, tabernari jauna -esan zion Inaziok.

-Baita iri ere. Zer dala-ta gaur semea? Aita non galdu dek?

-Etxean geratu dek. Atzo biotzeko eraso gaizto bat izan zin, ta gaur goizerako pasa zaiok. Ala ere, ez dek etortzera ausartu. Beldur gaixtoa sartu zion eraso orrek. Biar noski etorriko dek.

-Utzi egin bear liokek arek emango lanari.

-Bein baiño geiagotan esan zidak oraintxe ezin duela eta neri utziko didala lantegi ori. Baiña laster damutzen zaiok. Onera gabe ezin dik etsi. Oso tratu txarra ematen diotela, batez ere Pelixek. Amorratua joaten dek etxera.

-Lasaitu adi, ez dek olakorik gertatzen emen ta. Askotan, jakiña, arrazoi txarrak entzun bearra. Be-

ra asten baita gaizki esaka. Eta au iretzako, Inazio: litrokak sartzen dituk noski aren urdaillean. Etziok len bezela zurrutari begiratzen.

–Ondo zegok eta eskerrik asko. Bagenin orren beldurra.

Zerbait artu zuen eta lantegira joan zan. Pelix arkitu zuen urduri, Ernesto non geratu ote zan jakin nairik: “Zergatik utzi ote du?”. Inazio ikusi zue-
nean, poztu zan, eta lasaitu ere bai.

–Kaixo, Inazio. Ongi etorria.

–Ongi arkitua, Pelix.

–Aitak piper egin al dik gaur?

–Ez bere borondatez, ez uan gauza ta.

–Askok baldartu dek ura. Utzi egin bear liokek lantegi orri.

–Oraindik zaarra ez dek, baiña jenio kaxkarra jarri zaiok. Nork burutu arekin? Gaur, beiñepein, ez uan gauza. Atzo biotzeko ximiko bat eduki zin. Apaltzen ari giñala, zerraldo erori uan. Bi anaiok oiera eraman genin, gero txandaka gaubela egiñez. Gorroto gaixto ori zerabilkik buruan. Inesen ezkontza ori galdu nai likek. Atzo denak aurka atera giñun. Ama zoratuena, gaiñera. Etxeko batasun orrek moztuta utzi zizkin aitaren ametsak. Ori ta geitxo edana ere bai. Len gure aita ez uan olakoa. Dana dala, gaur goizean argi samar zegoken. Etxera joaten danean, deabru bat egiña sartzen dek: olakok au egin diola, alakok etzekit zer. Egia al dek ori?

–Ez, Inazio, ez. Gezurretan ari dek. Emen etziok iñork tratu txarrik ematen; eta, alakoren bat balitz tartean, neronek babestuko nitek zuen aita. Baiña oso zailla dek zuen aitarekin ondo konpontzen. Bera asten zaiguk arrazoirik gaiztoenak arpegira botatzen. Erantzuna ere alakoa artu bear. Baiña tratu txarrik ezta pentsatu ere. Bestela ere naiko lanak bazerabilzkik.

-Bere buruari garrantzi geiago emateagatik ari dala uste diagu. Bi seme olakoak badauzkala ta ez diotela zaartzaroan laguntzen. Ori ez dek egia. Eta, jakiña, leku bat baiño geiagotan bota zidatek neri arpegira. Aitak tabernetan ori kontatzen baidu. Geronekoan, osaba batek asarre samar esan zidaken: "Zergatik ez dezute aita geiago zaintzen, Pelix ta bere lagunak ankapean omen zerabilkitek-eta?". Ori ez dek orrela. Jakiña, guri ere min ematen ziguk, eta ala erantzun nioken, mindua: "Ankapean zerabilkitela diozute? Joan da ikusi. Arrazoi txarrak artzen baditu ere, berak lenengo erasotzen dielako dek. Aiek beren buruak babesten dizkitek. Nik etxetik zekik. Aita asarretu ta purrustadaka asten danean, aren mingaiñak etzeukak galgarik. Guri eskerrek errespetatzen ditek aita".

-Inazio, sinistra nazak: ori dek egia. Aspaldi ontan zaar-itxura aundia artu dik zuen aitak. Asko moteldu dek.

-Bai. Etzegok luzarorako, oraindik zaarra ez dalarik, irurogei urte bete berriak baditu ere. Gizon gogorra ta indartsua izan dek ori, bere buruari ondo begiratu diona. Oraintxe arte ez dit ori geiegi egiña nabaitu. Oillar samarra ere bai, eta orain edozein oillaskok kukurruku egiten omen zio. Ori berak esana, eta ezin irentsi. Azkenik, berriz, alabaren gora-beera orrek jipoi ikaragarria eman zio. Ogei urte oraintxe urbil samar zeuzkak, eta gurasoen ankapeetik aterea.

-Baldinbetan berrogei urtera arte ez gaituk mutil zaar ta neska zaar biziko.

-Eta i zer moduz Inesekin?

-Oso ondo, motell. Neskatxa ederra ezik, ona ere badek ori. Benetako andregai. Orrekin nenbillela amak ikasi zuenean, deabru guziak berekin zituela eraso zidaken, bere borondatera jarriko nintzalakoan. "Errian ez al zegok beste neskarik, ire ai-

ta txikitu zuenaren alaba besterik?”. “Ederrez ez noski; eta atsegiña ta goxoa da neskatxa ori”. “Izorra zak eta ori utzita ezkon adi beste batekin”. “Laster jauzi egingo luteke legoiak. Ori al da ama batek bere semeari emateko aolkua? –esan nioken–. Naiko al zenduke alaba Terexari ori egingo baliote? Inesen anairik gazteenarekin dabil”.

–Gorrotoak etziok zuzen pentsatzen ere uzten bati. Dena zillegi dutela iruditzen zaiek. Zaarrak eta okerrenak omen dirala ortan.

–Orain ez. Orain ondo itzegiten dik amak. Igan-de-arratsalderoko ibillaldia egiterakoan, beti sartzen gaituk gure baserrira. Bestela, amak ez likek ontzat emango ori. Elkarrekin aritzen gaituk izketan, eta ori etxerako ondo etorriko litzakela esaten zidak: “Al badek, ori ekatzak gure baserrira”.

–Gure amak ere iregatik ondo itzegiten dik, irekin traturik ez badu ere.

–Aitak ere bai?

–Gaizki. Eta, bizi balitz, nola itzegingo likek ire aitak guregatik?

–Inesengatik nere ustez balitekek ondo itzegitea. Zuengatik, ordea, ez dit uste. Zuen aitaren antzera, bera baiño goragoko oillarrik ez uan iñork ikusi nai izaten bere inguruan.

–Gu, beiñepein, ez al gaituk olakoak izango.

–Jaunari eskerrak, ez al diagu guk olako biderik artuko. Zaarrak joatean, etorriko dek gure bi famelietara pakea.

–Agur, bada, Pelix. Biartik, ibiltzeko gauza bada, etorriko dek, gaur ondo eziñak atzeratu erazi dik eta.

Inaziok bere bidean jarraitu zuen. Garbi-garbi azaldu zan aitak etzeukala arrazoirik. Tabernariari benetan sinisten zion. Aitaren galderei erantzuteko naikoa ikasi zuen.

Etxean

INES urduri zegoen, Inazio noiz etorriko zai jarria, andik zekarzkien berriak jakiteko, gurasoen eztabaida gaizto batetik aldeginde.

Noizbait, itzaiaren aurretik etortzen zan txakurra azaldu zan, nagusia ere laster bazetorrela adieraziz. Arek, askotan jotzen bazuten ere, etxeko inorentzat etzeukan gorrotorik. Denak maite zituen. Edozeiñekin joango zan noranai. Norbaiti erasotzen bazion ere, bereak zaintzeko.

Ines ukuilluko atean ikusi zueneko, lasterka etorrita, isetsari eragiñez, goxo-goxo eskuak milixkatuko zizkion. Orrela erakutsiko zion bere maitasuna. Izketan etzekien; ongi-etorri goxo bat egiten bai, ordea. Neskak ere, eskuarekin paillakatuz, erakutsi zion atsegin izan zitzaiola bere ongi-etorria.

Txuxenean etxera joan zan txakurra, banaka-banaka denei bere ongi-etorria ematera. Denak maitasunez artu zuten, Inesek bezela, bizkarrean igurtzi eta paillakatuz.

Aita eztabaidaren ondoren ain zegoen asarre eta garrastua, txakurrak besoetara jauzi egin ziolako, egunero berari laguntzera joaten zitzaion txakur txintxoari, ostiko gaizto bat eman zion.

–Alde emendik! –eta kanpora biali zuen andik.

Txakurra sukaldera sartu zan azkeneko, erraiña agurtzera. Onek, bazkaltzen sobratutako zerbait eman zion; eta, gaizki egiñak barkatuz, jauzika joan zan kanpora.

Orixe ere ez degu ikasi gizonak, utsegiñik txi-kienagatik gorrotoan itxutuak, barkatu orde zigor-tzeko. Txakurra, berriz, dena aztuta, egun guzia Ernestorekin ibiliko zan, itzaia berriro pake-pakean agurtzeko.

Erraiñak ikusi zuen aidak ongi-etorriari nola erantzun zion, eta beraizik ere al zuen goxoena artu zuen.

Aren atzetik bereala azaldu zan itzaia. Ari ere egin zion bere ongi-etorria; eta lasai asko, etxean sartu zan, zer gertatzen zan asko pentsatu gabe, txistuka euskal doiñu bat joz, akuillua bizkarrean, sorbaldan alegia, gurutzetuz, bi eskuekin ari eltzen ziola. Etxekarren gorroto aundirik. Laster naigabeko zuten. Parrez-parrez, goxo-goxo, pake-pakean agurtu zuen:

-Jainkoak arratsalde on dizula, Ines.

Eta biak besarkatu ziran.

-Baita zuri ere, Inazio. Kontentu zatoz.

-Kanpoan denekin ondo konpontzen naiz. Etxera etorrita, emen ere nere partetik berdin, askotan etxean okasioa arkitzen degu ta. Baiña serio xamar ote zauden iruditzen zait. Arri-erasoren bat eduki al dezute?

-Bai, zoritxarrean. Baiña ango berriak ikasi nai nituzke.

-Lasaitu zaite ortaz. An ez da ezer gertatzen. Gure aitari begirune aundia diote. Inork ez dio tratu txarrik ematen. Jakiña, nolako arrazoiak entzun, alakoak erantzuten dizkiotela.

-Ortan arrazoi dute. Jainkoa al da, bada, aren aurrean belauniko jartzeko?

-Zuk badezu beste zerbait. Serioegi zaude.

-Arrazoi dezu. Sukaldeko okasiotik igesi etorri naiz.

–Okasiotik igesi etortzeko zer gertatzen da, bada, etxean?

–Betiko leloa: ni Pelixekin ezkontzearen erru guziak amak omen dituela. Aitaren iritzikoak izan balira denak, ez nintzala Pelixekin ezkonduko.

–Onek etsaietara saldu gaitu –zion amari oiuka-. Eta zuk dituzu erru guziak.

–Ai, Ernesto, Ernesto! Zaartzera ta okerrago ari zera jartzen. Gorroto gaizto ori ez badezu biotzetik botatzen, amaika aldiz oroituko zaizkizu emengo tabernak, inpernuko sutan kiskaltzen zauden lekuan.

–Bai! Txorakeriak! –erantzun dio aitak.

–Sinismen ta maitasunaren gaiñetik jarri zaizu gorroto ori. Beti ori biotzean darabilkizu, nondik kalte egingo egokiera billa. Ero gaizto edo deabrua dirudizu, Pelixengatik izketan astean; eta, ez bazera garaiz zentzutzen, ondoren ikaragarriak ekarriko dizkizuna. Aiengatik, alabari ere, ainbeste maite zenduena, benetako inkurria artu diozu.

Ukuilluan aztarrika ari dan zezen baten gisako marrua eginda, bertan geratu da ixil-ixilik. Ez dio erantzun. Amak egiak, eta zorrotzak, esaten baidizkio. Onuntzean, aien artetik igarotzerakoan, ala esan diet, nai zuenak entzun:

–Ez amak, ez aitak, ez dute orren errurik. Ni bakar-bakarra naiz errudun, mutil ori biotz-biotzez maite detalako. Baita beren baserria ere benetan atsegiña egiten zait; eta, eskubide osoa daukadan ezkerro, etxean iñork ez badu ikusi nai ere, ni orrekin ezkonduko naiz, ez bada ustegabekorik gertatzen.

–Entzun al dezu ori? -oiu egin dio aitak amari.

–Bai; ondo alare. Eta arrazoi du. Zu nerekin ezkondu ziñanean, aitak galerazi balizu, eta beste batekin ezkontzeko agindu, etzan atsegin izango etxe ontan. Baiña zuk izango zenduen arrazoi. Maitasun

garbiari bidea zabaldu egin bear zaio; ez itxi –erantzun dio bixi-bixi amak.

–Bai. Alperrikako berriketan jardungo dira –dio Inaziok–. Baiña neri laguntzera ez dira asko azaldu. Guk irabazten ditugun txanponak, gu baiño geiago maite dituzte. Betiko leloa! Ez ote da beste zer itzegiñik?

–Alperrik dabilta, bada: ez didate galeraziko.

–Baldinbetan orixe. Aita ez besteak alde dauzkazu. Biotzeko aukeratik itzegiten omen du mingaiñak. Zuretzat, bada, Ines, tantua; eta jarraitu maite dezunari.

Beren lanak bukatuta, bidean topatzen zituztenak agurtuz, sukaldera joan ziran anai-arrebak. Anari ziran apaltzeko moldaketan ama eta erraiña.

Anairik zaarrena ere etorri zan, bi baldekada esne eskuetan zekarzkiela. Andik pazi batean artu zuen amak apaltzen bear zutena, eta larazetik zintzilik egosten jarri. Bi baldeak, berriz, ortarako zeuzkaten bi kakoetatik zintzilik, arratoi edo katuak arrapatu etzezaten.

Eta, itxuraz beiñepein, denak pake-pakean exeri ziran. Etzan iñor ere palta. Baiña laster asiko ziran aitaren sudur-txistuak. Anaiak ez baleuzka ondoan, Inesek igesi egin bearko luke andik. Aiek sartzen zioten errespetoa aitari.

Onek bedeinkatu zuen maia aita gure batekin, eta “on dakizuela denei”, oitura zuen bezela, opatuz.

Beti bezela, erraiña zuten serbitzari. Lan aundirik ere etzeukan. Baserrietako apariak arin samarrak izaten ziran. Arratsalde erdi aldera merienda-lege bat egiten baizuten. Gurean, beiñepein, olako oiturak ziran.

Beren apari-legea pakean zijoa, baiña laster sortu zan okasioa. Inesek eskatu bezela, amak aitzatu zuen etxeko pakeak autsiko zituen arazoa, laster aitak ez besteak ontzat emango zutena.

Aitak etxean ta kanpoan etzuen beste izketarik, "alabak etsaietara saldu nau", ortarako egokiera eduki edo ez; eta ajolarik gabeko jendeak zirikatu egiten zuten Ernesto, beren fameliko gora-beera guziak atera eraziz.

Inguru aietan bazekiten laster ezkontzekoak zirala. Bikote bikaiña egiten zutela ere bai, Baita geienak ere bi sendiak, Jainkoak zekien ezkeroztik, asarre bizi zirala.

Agurea, Ernesto alegia, maitea zuen erriak, eta benetan min ematen zion gizon-modu ura artaraiño naastu ta eroria ikusteak. Izan ere, alabaren ezkontzeko arazo ori besterik etzerabilkien aspaldi artan buruan.

Amak ori aipatu zuenean, bada, laster asi ziran maieko jendearen ezin egonak, bereala lertuko zarenen ezaugarriak. Amak garbi esan zuen:

–Aurki joango zaigu Ines alaba etxetik.

Maieko ezin egona azitzen zijoan. Elkarri begiraka denak. Bazekiten denaren berri; baiña garbi esan arte, urduri.

Gazteak, bi anaiak eta erraiñak alegia, etzutela parterik artuko promes egin zuten; ama-alabak aski zirala aitaren arrazoiak zapaltzeko. Baiña alaba jo nairik asten bazan, babestuko zutela.

–Bai. Laster aldegingo det etxetik. Neretzat leku atsegin batera, ordea. Baiña emen uzten ditudanak ez ditut aztuko, Urbil samar geratuko naiz, gaiñera; eta nere bixitatxoak egingo ditut, emen geratzen diranak agurtuz.

–Nora oan, bada? Nora? –oiu egin zuen zakar aitak, alabari begiratzuz, berak aoan zeukan jakia ezin irentsirik.

–Ai zer nolako ateraldia! Guk bezin ondo dakizu orren berri. Beste berriketarik bai al darabilkizu etxean ta kanpoan? Nora joango naiz? Pelixekin ezkondu ta Zurdingira.

Ori entzun zueneko egin zuen lenengo sudur-
-txistua aitak:

-Gu ez al gera iñor, ori jakiteko?

Inesek ala erantzun zion, eta lenengo masaille-
koa artuko zuen, ez bazan bitarteko Inazio sartu.
Alako begiratu amorratua egin zion Ernestok:

-Aita, garbi-garbi esango dizut. Amaika aldiz
neronek dena esateko zalantzak erabili ditut. Baiña
olakoan nor urbiltzen da zuregana? Ez daukat zuk
emandako masaillekoak artzeko gogorik. Bestela,
aitortza batean bezela, pozik esango nizun dena.

Ango aulki ta azpil-otsa! Baiña dena alperrik:
Inazio tartean.

-Aita bati esateko arrazoiak al ditun oiek?

-Nai badezu sinistu edo ez, egi-egiak dira.

-Aita al den azkena jakin bear duena etxe on-
tan?

-Ez al degu orain denen artean aipatu?

-Ik nai denana esan zan; baiña jokatu niken
apustu etxe ontan denak nik baiño lenago ikasi du-
tela -aitak.

-Orren berri denok genekien. Erri ontan guzian
eta inguruetan ala diote: "Noiz da, bada, zorioneko
eztai ori? Aitak ez darabilki beste berrikerarik". Ez
dizutela esan ta kejatu? Inesek garbi azaldu du zer-
gatik ez dizun berak esan: ausartzen etzalako.
Orrek, Ernesto, ez dauka bueltarik. Alaba badijoa.
Urrengo ostegunean, amaiketan, erri bertako elizan
denak konbidatuak geratzen zerate.

-Ines, gazteok zure inguruan an izango gaituzu,
eta benetan izan zaitez zorionekoa, aukeratu dezun
bizimodu berrian. Ea aita lasaitzen dan.

-Bai; baiña bere burua ta etxeakoak saldu ta ge-
ro.

-Ori, Ernesto, ondo dakizu ez dala egia; eta ge-

zur kontari aritzea, berriz, ez da zillegi. Pekatua da. Beste guziak bezela, zorionekoa izan dedin opatu bear diogu. Orixe da gurasoen eginkizuna: seme-alabak Jaunaren izenean azi eta ezi eta etorkizun on bateko martxan jarri.

–Gero oiek etsaietara?

Amak zorrotz erantzun zion:

–Zuri itzegin edo Txoritokietako arkaitzari berdin-berdin da. Botillari kortxoa sartzen badiozu, barruan zegoena an geratzen da, kanpora ez, barrura, ondo itxia. Zuri ere orixe gertatzen zaizu. Inesen saldukeria beste pentsamenturik ez daukazu barruan, eta kanpotik datozen beste arrazoientzat ez daukazu lekurik. Eta ori txarra da, Ernesto. Betiko leloa.

–Alabak ez nau maite. Orrek, bere buruarekin batera, saldu egin nau.

–Ori, Ernesto, ez da egia. Lenago umea zan, irripar ta musua besterik etzuen gure etxean, aingerutxo bat bezela; eta umea bezela maite ziñun. Orain emakume egin da; eta, neska-mutil guziei bezela, beste maitasun bat piztu zaio, eta asi da etorkizunean pentsatzen. Baiña ez zu maitatzen etzaitulako. Jainkoak olakoak egin gaitu. Ez daukagu indarririk, eskubiderik ain gutxi, ezkontza au galerazteko. Ni zurekin ezkondu nintzanean, ez nuen nere buru ta etxekorik saldu. Ezta zuk ere. Gure maitasuna eldu egin zan, eta berak elkarganatu giñun; eta ona non daukagun aurrean maitasun orren frutua. Ines ere bide ortatik dijoa, iñori kalterik egin gabe. Maitasunak bildu ditu, eta guk lagundu egin bear diegu, zorionekoak izan ditezen. Ni zurekin ezkondu nintzanean, gurasoak etzidaten ezetzik esan, ni lenbailen ezkontzea aientzat buruauste bat gutxiago zan ta. Zure gurasoak gure maitasun ori mozten asi balira, etzan atsegin izango. Zeru-lurrak astinduko zenituen, zure eskubideen gaiñetik jar-

tzen asi ziralako: "Guk ezkondu bear degu, eta ez gurasoak". Auentzat ona dana ezkongaiantzat izan liteke aldrebesa. Ori ukatzen etzera asiko noski. Utzi, bada, Inesi ere berak nai duenarekin ezkon-tzen. Ez oztoporik jarri. Ezagutzen det mutilla. Ine-sek eta arek ai zer nolako bikotea egiten dutena!

-Bai. Ez dizut ori ukatuko. Beste batekin ez-konduko balitz, biotz-biotzetik bedeinkatuko ni-tuen.

-Onek, ordea, ura maite du.

-Benetan gorrotoan daukadana eta beti eduki detana.

-Zuk bai. Inesek ez, ordea; eta ori ezkontzen da. Bada ordua, Ernesto, ondare bezela datorkigun gorroto zikin ori bein betiko mozteko; eta, ortarako, ez da auek ezkontzea bezelakorik. Zure gorroto zi-kin orri eusteagatik, Jainkoak daki zer kalbario da-ramazun, eta zer nolako kalbarioa daramakigun zu-re ondoan bizi geranak. Ez dakit alabak maite gai-tun edo ez; baiña zure postura ez da ontzat artze-koa. Badakit mutillaren amak oso ondo itzegiten duela onetzaz. Ziur nago zu ere etzerala aurka jarri-ko, alperrik da ta. Ori egiña dago ta purrustadaka aritzea, berriz, etzaizu komeni. Oroitu zaite atzo zer gertatu zitzaizun. Lenengoan onera etorri ziñan; urrengoan ez agian. Gorrotoan dagoenak daukanak baiño geiago supritzen duela-eta, pentsa ezazu gai-xo zaudela eta ez geiegi jolastu osasunarekin, eta Jaunaren aurrerako txarra dala ori.

Ixil-ixilik entzun zuen emaztearen itzaldia; eta, ondo pentsatu ondoren, ala erantzun zion, benetan damutua:

-Arrazoi dezu, Xeledoni. Nik ere ederki ulertzen det zuk esan dezuna. Aspertua nago aurreragi sar-tua eta ezin atzeratua. Ori da nere setarik txarrena. Etxe ontan nik nai detana egin da, baiña indarkeriz.

Orain ere ala uste nuen. Baiña lertuko ez banintz, pauso au eman bearra neukan. Beazuna biotz egiñez esaten dizut: Ines maitea, ondo dago. Joan zaite pakean eta izan zaite zorionekoa. Denak etxean ezin geratuko gera. Baiña ni bizi naizen arte, ez etorri mutil orrekin etxe ontara. Joan zaite, eta dena barkatzen dizut eta barkatu zaidazu.

Azkeneko itz auek txaloka artu zituzten maiekoak. Inesek, berriz, atsegiñez malkoak zerizkiola, musu maitekor bat eman zion aitari. Arri-eraso baten ondoren eguzki gozoa bezela erori ziran maiera Ernestoren itzak; eta, zirudienez, benetakoak. Jesussek Zakeori bezela, ala esan zuen Xeledonik, arrituta:

—Gaur sartu da etxe ontan pakea.

Zer pentsatu etzekitela geratu ziran denak. Ixkanbil gaiztoan sartuko ziralakoan beldurrak bildu ziran, eta pake-pakean bukatu ainbeste supri arazitako arazoa.

Aldaketa ori zerk egin ote zuen, bada? Barta sukaldean eduki zuen biotzeko ximiko gaizto arek zer pentsatua emango zion Ernestori: etzitzaiola alako okasiorik komeni; eta, beste alakoren bat etortzen bazitzaion, agian arek eramango zuela mundu ontatik; etxeko guziak aurka zeuzkala; bera supritzen eta ingurukoei supri erazten ari zala; galdua zeukan arazo bat etxeko guzien aurka babestu nairik ari zala setatsu; eta, batez ere, emazteak egin zion itzalditxoa: berak, ezkontzerakoan, nai zutena egin zutela; gurasoak etzirala ezertan ere naastu; al zuten aiñean lagundu bai. Ori dena gogoratuko zitzaion; eta urte artan, etxean arro samar agertzeagatik, zurrutari eman ziola, eta lantegitik gaiztotua etortzen zala. Baiña, batez ere, purrustadaka asten bazan, bertan lertuta geratuko zan beldurra.

Dana dala, atsegin ederra artu zuen fameli arek. Esan bezela, zutitu ta zoramenez malkoak ze-

rizkiola besarkatu egin zuen Inesek aita. Onek ere bai alaba; eta beste guziak ere bai, amatik asita, denak zorionak emanez; eta denak benetan eskertu zuten aitaren biozkada.

Bein pakeak egin ziran ezkerero, eztaiak bitarteko egun-aleak laster igaroko ziran.

Ustegabekoa

EGUNA igaro ta etxerakoan, aste betteren bat lenago izan zuen bezelako biotzeko ximikoa eduki zuen. Berritu egin zitzaion. Larri zan gizarajoa, oiñaze biziak eta arnasik ezin artu. Bakarrik, arrunt izutu zan antxe il bearko ote zuen, eta gorrotoak berekin zeuzkan oraindik.

Pelixekin asarre zegoen. Onen amarekin, zer esanik ez. Alabarekin ere, erdizka oraindik. Maite zuten guziei ainbeste supri erazia, eta denekin pa-keak egin baiño lenago etzuen gorrotoan Jaunaren aurrera azaldu nai. Benetan izua ematen zion.

Kobratu bearrak ere bazeuzkan. Oroipen auek guziak igaro zitzaizkion burutik. Biotza korapillatua, arnasari bueltarik ezin eman eta oiñazetan. Noizbait, ordea, eraso txar ura igaro zitzaion. Gurdian etzanta, idiak ekarri zuten etxeraiño.

Ikusi zueneko, emazteak antz eman zion asarre gaiztoren bat norbaitekin edukia izango zuela, edo bestela biotzaren ximiko larriren bat; eta orrek ematen ziola estuasuna.

-Etzaude zu ondo, Ernesto.

-Arrazoi dezu. Bidean geratuko nintzala-ta, naikoa beldurtu naiz.

-Eta zergatik etzera etxean geratzen? Semea joango litzake zure ordez.

-Etxean ere, zer atsegiñik daukat nik emen?

Etzeukan izketarako gogorik. Katillokada bat

esne artuz datzera zijoala, betiko pekatua bota zion emazteak arpegira, baiña goxo-goxo:

–Ernesto, arraixku txarrean zabiltza. Inesekin izan zenduen biozkada bat, ez oraindik osoa. Bioztaren ximiko ori noiznai berrituko zaizu, eta zu gero ta aulago. Bein betiko denekin adiskidetu zaite, etsaiak nai badute beiñepain. Zuk orrekin zerea kunplituko dezu. Or konpon bitez nai ez dutenak. Orrekin gu denok irabaziko degu, eta zuk geiena.

–Ori izango litzake, bai, denontzat onena. Jainkoak astirik ematen badit, beiñepain, nere asmoak ala dira. Baiña biar ezin ninteke etxean geratu. Nai ta nai ezko egin bearrak dauzkat –esanta, lotara joan zan, eta goizean arindu eta lasai samarra azaldu zan. Itxurak ala ziran beiñepain.

Gosari-lege bat egin ta idiak lotutakoan, ala esan zion semeak:

–Ezin badezu, ni joango naiz, aita.

–Ez. Arratseko atsedeen orrek asko lasaitu naxiok. Baiña alare ez niñuke joango, kobratu bearrik ez baneuka. Uste gabeen ilko banintz, agian ukatu egingo litekeek, eta etzeukat gerorako uzterik.

–Asko al daukazu kobratzekoa?

–Bai. Idi-parea eta okindegian iru illebetekoa.

–Beldurrak bazaude, okindegiraiño joango naiz eta elkarrekin etorriko gera.

–Etzegok eskeiñi ori gaizki. Baiña nork jakin bear dik nik dirua dakardala?

–Beldurrak bazaude, beiñepain, esan. Ni joango nintzake.

–Utziok. Ez dit iñoren bearrik.

Benetako arraixkua zeukan, baiña alare etzuen laguntzerik nai. Beti izan zan olakoa.

–Zuk agintzen dezu.

-Alaba sukaldean badago, esaiok etortzeko.

Semea larritu zan: "Aita gaizki zebillek, eta mundu oni agur egin baiño len pakeak egin nai ote ditu?".

-Ines, aitak ukuillura deitzen zaitu.

Daldaraka jarri zan gaixoa, aitak madarikapen bat emango zion beldurrak.

-Asarre al dago? -galdetu zion anaiari.

-Serio zegon, beti bezela. Baiña etzeukan asarre-itxurarik. Atzo erdizka egiña, gaur bukatu naiko din. Ezbearren bat izan ote duen zalantzan natxion. Erori samarra zirudin. Agian pakeak egin naiko dizkin.

Alare, beldurrak aidean joan zan Ines, zer esango ote zion. Lekukorik gabe biak geratu ziran; baiña aurrera baiño atzera egin naiago zuen Inesek.

-Gora begira, aitaren iges al zoaz, Ines? Atzo asia gaur bukatu nai det. Zurekin adiskidetu gabe ez det mundu ontatik joan nai. Zaartu egin naiz eta naigabe auekin biotz zapalduak ezin du geiago. Ez daukat egun bateko segurantzirik. Gaur aterako naiz eta baliteke bizirik ez biurtzea. Atzo, etsi ta gero, arnasak buelta eman zidan. Kristaua naizen aldetik, ez nuke Jainkoaren aurrera gorrotoan joan nai. Pelixekin ere egin nai ditut betiko pakeak, semea izango detan ezkerro.

Aitaren agur ura entzunda, malkoak asi zitzaizkion alabari.

-Atoz aurreraxeago, aitak len ainbestexe maite zaitu ta, baizik-eta orain geiago, laguntzaren bearrean zeralako.

Alaba lotsatuta bezela urbildu zitzaion, eta besarkada batean lotu ziran.

-Zerbait esan nairik zaudela igertzen dizut. Baiña zaude ixilik, denaren berri ikasia nago ta.

–Orduan, aita, dena barkatzen didazu?

–Alabatxo bati ez barkatzezkeroz, nolako aita nintzake ni? Bai. Elkarri barkatu bear diogu. Nik ere baditut nere erruak; ez txikienak, gaiñera. Ez barkatu bakarra; bedeinkatzen det zuen bien ezkontza, nik ez det ikusiko baiña.

–Onesten bagaituzu, zergatik ez ikusi?

–Ordurako mundu ontatik joana izango bainaz, eta ez uste maite etziñudanik. Arrokeri mada-rikatu onek lotzen niñun, eta makurtu nai ez. Agur, bada, alabatxo. Ez banaiz etortzen ere, badakizu benetan maite zaitudala. Eta otoi egin Jainkoari nere alde, denaren bearrean arkituko naiz ta.

Bere ogei urte aietan, orduantxe lenengo begietatik masaillean beera irristan malkoak ixuritzen ikusi zuen aita. Alaba atsegiñez, dena barkatu ziolako.

–Ines, emaiozu aitari musu bat, baliteke azkenekoa izatea eta.

Azkeneko agur onek lertu zion alabari biotza, eta lasaitu arte bere gelara joan zan, ixillean an negar egitera. Aita, berriz, betiko lanera.

Alaba andik atera zanean, amak antz eman zion alai ta irripartsu zetorrela. Bai-baizekien aitak ukuillura deitu zuela.

–Alai zatoz. Berri onen batzuk badituzu noski.

–Ez duela mundu ontatik gorrotoan joan nai, eta dena barkatu dit. Eta gure ezkontza ere bedeinkatzen duela. Baiña aita gaizki dago. Agian ez degula geiago bizirik elkar ikusterik izango esan dit abian.

–Gaur eduki dezakedan berririk atsegiñena ori da, Ines. Benetan pozten nauena. Ez gera betiko etorriak. Noizbait dena utzi bearco degu. Baiña kristau bezela beti sinistu izan degun gisara, maita-

sunaren aurrerako laguntzaille txarra da gorrotoa. Alare, zoritxarrez, oso denbora gutxirako daukagu aita gure artean. Biotza gaixotu zaio. Alare, lanari utziko balio, baliteke lasaitzea.

Len egundaiño ez bezela, denak agurtuz, gurdian exerita joan zan aitona, bein arrokeria utzi ta arrazoitara lertu zalako pozez, inguruz inguru txakurra erdi jolasean zebilkiela.

Bazkaldu eta siestako denboran kobratu zuen Ernestok idiena. Okiñak zor ziona ere bai. Lasaitu zan. Diru ori dena zekarrenik nork jakin bear zuen? Baiña Inazio berekin baleuka, lasaiago geratuko zan.

Tabernara gabe etzuen etorri nai, antxe ordu laurdenen bat igarotzeko. Ordurako an zegoen Pelix, legoi gazteak kargu artu ta bere berriak eman zizkion ezkerro, tabernariarekin izketan.

-Jainkoak gabon dizutela -agurtu zituen.

-Baita zuri ere, aitona. Idi-pare bikaiña ekarri dezu.

-Pezetak balio dizkik, baiña pollitak eta bixiak dituk.

Baxoerdi bana edan ondoren, ala esan zion aitona Pelixi:

-Aizak, Pelix: mesedez, ator unetxo batez kanpora.

-Ondo dago -esanta, biak atera ziran.

Oparia

BIAK tabernatik atera ziranean, etziran berriro sartu. Minutu batzuk elkarrekin igaro ondoren, eta beren eginkizuna bukatutakoan, bakoitzak bere etxe alderako bidea artu zuen.

Atarian izketan ari ziran edo ez jakiteko, atera zan tabernaria. Aiek palta ziran andik; eta berreunen bat metrora, sekulako zaunka ta ixkanbilletan igaro zan goraxeagotik txakurra, inguruetako baserrietakoak ere laguntzen ziotela audika ta zaunka, abaila guzian mendi aldera.

-Ernestoren txakurra izango dek lasterka dijon ori -esan ta tabernaria barrura sartu zan, aiek agurtu etzutelako arrituta.

Iñor etorriko zan itxaropenik etzeukan eta lotarra joan zan.

Pelixek ere entzun zuen zarata ura, baiña etzuen aintzakotz artu.

Baserritar asko aizkatu zituen ixkanbil arek; eta leiora atera zan gazte batek ikusi zituen bere ataritik igarotzen txakurra, jauzi egin nairik, eta gizona, al zuen bezela, bere burua ezin babesturik.

-Iñondik ere txakur ori Ernestorena dek. Gizona ez dit ondo ezagutu. Baiña Arbiondo zirudiken -zion berekiko gazteak.

-Utikan, txakur zikin ori! -oiu egiten zuen gizonak. Illun baizegoen, eta esku utsik eta ezin iges egin, atze alde artan izango zituen bere arramaskak.

-Ez nitek apusturik egingo, baiña Arbiondo iruditu zaidak -zion berriro mutillak-. Zer gertatu ote dek or, txakurrak nagusiari iges egiteko?

Orduan artan geratu zan ori. Gero, gertatuaren berri jakitean, etorriko ziran jendearen esamesak eta zalantzak. Olakoetan denak badakite zerbait, eta eman nai izaten dute beren iritzia.

Txakurraren bat-bateko zaunka, karraxi ta ixkanbillak, idien buruetatik egingo baizuen jauzia, Ernestoren idiak zerbait aizkatuko ziran. Baiña, zalaparta ura urrundu zanean, beren betiko txango motel ta patxarosoan jarraituko zuten. Bide aietako berri ondo zekitenak, batez ere etxerakoan, etziran beste okerreko bidetik sartuko. Itzai bearrik etzuten. Txuxen asko etorriko ziran etxeko atarira, beti mokadu goxo bana emateko oitura baizuen aitak.

Beti bezela ukuilluko lanak egin ta kontu kontari ari ziran sukaldean, apaltzeko zai aitari itxogiten. Bazekiten lengoak baiño atsegiñagoa izango zala apari ura. Ala, gurdiaren otsa nabaitutakoan, bi semeak atera ziran zetorrenari laguntzera. Idiak askatu ta jan eman ondoren, gurdia estalpera sartzerakoan, arritu ziran, txakurra etzala ageri. Idien uztarri gaiñetik jauzi bat eginta, lenengo bera ongi-etorrika azaltzen baizan. Itzairik ere etzan ageri.

-Aita tabernan geratuko uan. Bitartean, idi gaixoak aspertu ta nagusi gabe etorriko ituan. Aitak bazekik olakoak egiten. Baiña txakurra idiekin batera ez etortzea arritzekoa dek. Oraindik ez dik olakorik egin.

Semeak, benetan beldurtuak, ala zioten:

-Aita, dagoen bezela, ez dek parrandan geratu. Ez diagu gauza onik, Joan Joxe.

-Ire iritzikoa nauk ni ere.

-Bazekiagu gaizki dagoela, eta edozer ezbear gerta dezaiokela. Baiña saldutako idiak eta iru illebeteko pagota-lanak gaur kobratuko zituela, goize-

an abian esan zidak aitak. Baita nik okindegiraiño aterako naizela nere burua eskeiñi ere. Ez dala bearezkoa erantzun zidak; dirua dakarrenik ez duela iñork jakingo. Susmur txarra artzen ziot nik oni. Biak palta baidira.

–Au bukatutakoan, taberna alde ortara bueltaxka bat egin bear diagu, aspaldi ontan biotzetik gaizki zebillek eta.

–Izan ere, setosoa dek. Ikusten ezin duela, ta alare ezin utzi.

Idiak lotu ta jan eman ondoren gurdia sartzera-koan, oso illun baizegoen, gurdian etzanda arkitu zuten aita.

–Aita emen zegok, baiña illa! –esan zuen batek, benetan larritua–Au bear genin orain, etxeko pake-ak egin da gero!

Oraindik berez illa zala uste zuten.

–Biotzeko eraso gaiztoren baten lana izango dek noski, bakarren batekin asarretuko uan ta –zioten.

–Amaika aldiz esan ziogu etxean gelditzeko; us-te gabekoren batean eroriko zala bestela. Baiña, za-ar geienen antzera, egoskorra uan. Gaitza zer zanik etzekien gizona, eta orra azkenean zer gertatu zaion.

Etzan orduan baserriko atarietan gaur bezelako argirik. Aita, berriz, negu aldean beiñepein, illundu ta gero etortzen zan. Lenago ere, askotan, idi-parea etorrira, itzaia palta izaten zan. Orrek etzituen arri-tzen. Baiña bertara joan ta ukuitu zutenean, oartu ziran aita nola illa zan. Jasotzerakoan, ordea, bere odoletan gorritu zituzten eskuak.

–Aizak: au odola dek. Il egin ditek aita.

Il egin zutela oartu ziranean, zaarrenak, indar-tua bera ere, onela zion:

-Oraintxe bertan, aren etxera joan ta nik itoko dit mutil ori.

Pelixengatik alegia, aren lana izango zalakoan.

-Lasai, Joan Joxe, lasai! Utzi dena epaillearen esku. Arek arkituko dik nor dan onen eriotzaren erruduna. Au ez dek Pelixen lana. Ari etzaiok olakorik komeni. Aita ta mutil ori txakurra ta katua beze-la ibiltzen baziran ere, elkarrekin itzegin ta konpondu samarrak zeudeken, Inesekin asi zan ezkeru. Au ez dek, inondik ere, mutil orren lana. Diru asko zekarreken aitak, eta lapurtzeagatik il ditek noski. Urderen batek bazekiken onen berri, berak ez bazuen uste ere. Arategin badek bat lapur-otsa daukana.

-Gure zarrasta gaiztoa pasa dek. Sukaldean dauden emakumeei nork abisatu bear ziek onen berri? Negar-marraska ta karraxika asiko zaizkiguk.

Malkoak zerizkiola, naigabez eta eziñaren amorruez, bi eskuak aitaren odoletan gorrituak zeuzkala, sartu zan sukaldera zaarrena. Etxeko martxa berak artua zeukan ezkeru, ura zegoen beartuena. Semea izketan asi baiño len, amak asarre eraso zien:

-Zer dezute atari alde ortan orrenbeste denboran? Aparia oztutzen ari dek; eta gu, berriz, zuen zai emen gaudek, apaldu ta lotara joateko. Aita non ezkutatu zaizute, sukaldera ez dek etorri ta?

Semeak bi eskuak gorrituak erakutsi zizkien:

-Aparia balegoke gerorako.

-Zer gertatzen zaizute eskuak orrela gorrituak edukitzeko?

-Mesedez, ekatzute argi ori, odol au aitarena da ta. Illa dago.

-Baiña zer diozu? -oiu egin zuten iru emakumeak batera.

-Zoritxarrez, nik esan dizutedana besterik ez: aita norbaitek il digula, eta ekatzute parol piztua, barrura sartu dezagun.

Entzun bazuten entzun zuten, an ziran iru emakumeen negar-marraskak eta karraxiak!

-Mesedez ekatzute argi ori. Aita barrura sartu ta taberna alde ortara joan bear degu, ezeren aztarrenik arkitzen degun.

-Len zaindu bear zenduten aita; ez il da gero! -zion, Madalen bat egiña, amak.

-Ama, jakin gabe ez itzegin. Aitak diru-mordoska polita zeukan kobratzekoa; eta, beldurrak baze goen, ni joango nintzala esan diot. Ezetz esan dit; asko daukala kobratzekoa. Okindegiraiño joango nintzala, bada, ta elkarrekin etorriko giñala. Ez duela laguntzaren bearrik erantzun dit. Zer egin bear nuen nik?

Azkenean, semeak artu bear izan zuen argia.

-Neregatik il dute! Neregatik il dute! -oiu egiten zuen, berriz, ero batek bezela, Inesek, arpegia bi eskuekin estaliz.

-Zaude ixilik zu ere, Ines, zuregatik ez dute iñor ere il ta! Zuk beldur dezuna ere ez da. Lapurretagatik il dute, noski, aita.

Gero amak karraxika, bere beazun gaiztoa ixuriz:

-Bai! Zuek, gazte aingeru oiek, egingo omen zenituzten pakeak! Len gorrotoa bazegoen, ez dek onekin asko arinduko! -senarrari arrazoi eman ez.

-Zaude zu ere ixilik, ama, min ematen diguzu ta. Ez dezute arrazoirik, ez batak eta ez besteak, oraindik ezer ez dakigu ta. Baiña, nere iritzi apalean, eriotz ontan ez dauka gorrotoak parterik. Lapurretagatik il dute.

-Ez dit sinisten nik ori! -zion berriro amak.

Onek naiago zuen noski Pelixen lana zala esatea. Aitaren aurrean mutil ura babesten zuen, baiña orain ez.

–Ama, lanak egin arte utziguzu pakean. Gero lasaiago itzegingo degu.

Baiña ama etzegoen ixilik egoteko. Berriro eraso zien, samindua ta samingarri:

–Oiek dituzute begiko! Orra zer egin diguten! Zaarrok ero gaiztoak gaituk! Ez diagu pakerik maitte! Deabruak gaituk! Gorrotoa erein diagu seme-alabetan! Orra or ondorenak, mikatz askoak!

–Zaude ixilik, ama, eta utziguzu pakean. Aita sartu dezagun; eta, ezer jakin baiño len, ez gaizki esaka jardun. Nora eramatea nai dezute? Molda zazute lekua –eskaten zuten bi semeak.

Ama, berriz, kargatu ta tira ari zan:

–Ondo agirian zegok. Aitak etzin beste etsairik.

–Ama, lepoa ere jokatu dizut ez dala au Pelixen lana.

–Alperrikako kontuak dituk oiek. Irabazten badet ere, ez dit leporik moztuko.

–Mesedez, jar zazute lekua, aita sartu dezagun emendik. Au or utzita, taberna-bide ori ondo aztertu dezagun.

–Garai onean! Arraia pasa ta gero sarea! Zertarako dituzute zuen sasoi ta indarrak, gurasoak arraixkurik txarrenean bakarrik uzten dituzute ta?

–Beti gauza berarekin ez gera ariko. Len ere esan dizut zer gertatuko zan. Bada ixilik egoteko ordua.

Ama-alabekin etzegoen kontatzerik. Aiek bere onetatik atereak zeuden. Semeen agindurik etzuten entzuten. Orduan, gorputza gurdian utzita, semeak berak joan ziran. Eta erraiñak ere lagundu zien. Negar ta negar ari bazan ere, lasaiago zegoela zirudien.

–Atera zagun mai aundi ura erdira.

Aita gizarajoa ara ekarri zuten. Argiarekin kanpora atera ziranean, ama ere joan zan aiekin. Bere senar maite illotzari amaika musu eman zizkion.

-Uste dit justizia egin naiko dezutela. Iltzailleak gazteak diralako, orregatik ezin barkatuko ziegu.

Amak ezin zuen itzik egin gazteen alde, kristau ikasbidea bezela gaztetan itsatsi zioten gorrotoari lotua. Baiña amaren beazunezko itz aiei iñork etzien erantzuten. Eun da amar kilotik gora izango zan orduan ere Ernesto. Manta batean bilduta sartu zuten, eta mai gainean jarri.

Lenengo ustualdia egin ondoren, emakumeak lasaitu ziran. Amak ere, asko maite arren, bazekien etzerala betikoak.

Eskubiko muin-txulo guri ortan zeukan golpe ikaragarria emana. Lo etorriko zan agian. Illa alde guzietara. Muiñak zipriztinduak, kanpora ateratzeraiño; eta arpegi guzia odol-zerrendaz betea. Baiña ordurako ziatua.

-Ez diote nolanaiko zastakoa eman, txapelaren gainetik olako zauria egiteko.

Aitaren gerrikoan arkitu zuten dirua. Etzioten ostu. Arrigarria, denak zalantzan jartzeraíño. Ez ote zuen gero amak arrazoi izango?

-Lapuraren lana omen uan. Ikusten al dezute au? -diru-poltsa erakutsiz-. Arrigarria benetan. Zeron buruak engaiñatzen ari zerate. Au dena gorrotoaren lana dek -zion garratz amak, zaarren eskola babestuz.

Amaren isekak ez entzuteagatik, saminduak, ala erantzun zioten semeak:

-Txakurrari eskerrak. Arek ez dio utzi.

Emakume gaixoak illarekin utzita, bidera joan ziran, parol txiki bat eskuetan zutela, ea bidean ezeren aztarrenik billatzen ote zuten. Bai arkitu ere tabernatik berreunen bat metrora.

-Iñondik ere, aita lo etorriko uan; edo agian, len esan degun bezela, illa. Kroskatik beera joa noski.

Ezeren erremintarik ez bazuten arkitu ere, gutxi gora-beera bai zerekin il zuten: mailluarekin edo arrobiko borratxo txiki oietakoren batekin. Kirtena zuena beiñepein. Bestela, kroskatik ezin ziteken modu artara arrapatu.

Txeetasunak aztertzen ari ziralda, etorri zan txakurra arnaska, ler egiña, zauritua, odola zeriola, baiña ezer gutxi. Arra erdiko mingaiña zintzilik zekarrela, egin zien beren ongi-etorria.

–Noraiño jarraitu ote dio orrek? –zioten elkarri bi anaiak–. Seguru asko, etxeraiño. Ik bezela baneki nor dan, ez likek bizirik biarko goiza arrapatuko.

Bertan zeukaten taberna eta, txakurra berekin zutela, txuxenean ara joan ziran, tabernariak zerbait bai ote zekien jakitera.

Atea jo zutenean, norbait ote zebillen leiotik begiratu zuen tabernariak; eta, bi anai aiek ikusi zituenean, txakurra berekin zutela, txarrena pentsatu zuen. “Illunabarreko txakurren ixkanbil aiek eta orain bi anaiak datozenean, garai ontan gaiñera, zerbaiten bear-eza baditek” zion berekiko.

–Banatorrek –oiu egin zien leiotik.

Lau jauzitan jetxi zan. Gaztea baizan oraindik.

–Gabon, Permin; eta barkatu.

–Baita zuei ere, eta etzeukat zer barkaturik. Zer zabilzate garai ontan? Odolez mantxatutako alkan-dorarekin, gaiñera.

–Emendik bertan, or, bide-bazterrean, aita il zigutek.

–Benetan laguntzen dizutet naigabeen.

–Ezeren berririk bai al dek edo?...

–Zuen aitaren txakurrak inguru auek guziak aizkatu dituela besterik ez.

–Oraintxe etorri zaiguk, arra beteko mingaiña zintzilik dakarrela. Pelixen edo beste iñoren susmurririk bai al dek?

-Nik ez beiñepein Pelixenik.

-Emen al itun biak?

-Bai. Ernestok ala esan zio: "Ik eta nik, daki-gun arazo batez testamentua egin bear diagu; eta, mesedez, ator nerekin kanpora". Baiña argi, irriparez, asarrerik gabe. Eta Pelixek, zertara baleki bezela, atzetik jarraitu zio. Minutu batzuk elkarrekin igaro dizkitek. Baiña ez dituk berriz tabernara sartu. Andik minutu batzuetara atera nauk, eta ez uan aien aztarrenik emen. Baiña goi ortan sekulako txakur-ixkanbillak, zaunka ta karraxi, nabaitu dizkit aldapak gora. "Ernestoren txakurra dek ori -pentsatu ere bai nerekiko-. Pelix bean bizi dek, eta txakurra patar ortan gora joan dek. Aurretik igesi zijoana larri joango uan".

-Eta nola dakik ez dala Pelixen lana?

-Etzin denborarik. Gaiñera, egunak dituk mai ortan exerita lasai beren txurruta egiten dutela; eta emendik beti batera ateratzen dituk kanpora. Gaur Ernestok deitu egin dik, gaiñera. Ixilleko berriren bat emango zioen, noski; baiña, pasio geiago gabe. Mutil orrek ez dik ukuitu ere, nere iritzian beiñe-pein. Beste arrazoi bat ere badek, nere iritzi au indartzeko: Ernestok deitu dik kanpora; eta, gaztea balitz illa, pentsatzekoa uke. Zaarra dek, ordea, illa. Il bear ta ere, etzeukaken araiño joan bearrik. Nik ez dit zalantzarik. Mutilla bearbada ara ta onera erabiliko ditek, baiña gu bezin errugabea dek.

-Eskerrik asko, Permin. Ire iritzi orrek ez dik gutxi balio.

-Orduan zuek mutillaren alde zaudete? Aitaren alde zer egin bear dezute?

-Illa dan ezkerro, ezer ez. Mutilla, berriz, gure arreba Inesekin zebillek. Esan litekek etxekoa degula. Dena oker geratu ez dedin, bizi danari lagundu.

-Ederki pentsatua. Nik etzeukat, bada, ezertxo ere, ez baten eta ez bestearen aurka.

-Dirua ondotxo zekarreken, eta lapurtzeagatik il ditek ura -zion Inaziok-. Alare, diruak berekin zeuzkaken. Nonbait txakurrak etzioken utziko.

-Ixkanbil ikaragarriak itun. Zuenak asi dik, eta auzoko guziak lagundu ziotek. Zerbait artu nai al dezute?

-Oraindik apaltzeko gaudek; baiña onera etorri geran ezkeru...

-Biar, orren berri zabaltzean, izango dituk kon-tuak.

-Laster arrapatuko duten itxaropenik ez dit gal-du nik. Txakurra izango dek testigu. Ikusten duen lekuan ikusten duela, orrek ezagutuko dik iltzaillea.

Baxoerdi bana artuta, zalantzaz beteak etxera joan ziran. Pelixen joera etzuten garbi ikusten. Ta-bernako atarian asarrealdiren bat eduki ta bidera aterata ez ote zuen egin lan ori?

Aita ildako lekura iritxi ziranean, berriro txaku-rrak aldapak gora eraso zion, erbi baten atzetik be-zela. Bai norbait ikusi ere sagastipean ezkututzen.

-Urdea aleena! Emen zebilleken diru billa, nos-ki, aita illa emen arkituko zuelakoan. Zeleta egin bagenio, bertan arrapatuko genin.

-Ori ez dek Pelixen lana. Besteren batek baze-kiken aitaren berri.

-Naiago dit iges egin duen. Bestela, nik bertan ito gabe ez nin utziko. Baiña eroriko dek. Etzirudik oso urrutikoa danik.

Atzera-aurrera batzuk egin zituzten, badaezba-da, zerbait billatzen ote zuten. Baiña dena alperrik.

Tabernariak, il zutenak eta etxeakoak bestek etzekiten oraindik gertatuaren berri. Baiña goizean zabalduko zuten lau aizeetara.

Epaillearen errenkurak

ILLETAK egiteko moldaketak egin ondoren, epaillea-ri bialti zioten abisua, Bidegaiñen zer gertatu zan adieraziz. Eguerdi aldera etorri ziran epaillea eta sendagillea. Illa etxean ikusi zuenean, eta jantzia eta il-kaxan sartzeko ekarri zai, sumindu zan jueza eta arpegira bota zien:

-Zertako ez dezute ildako lekuan bertan utzi, nik an ikusi nezan bere inguruko txetasun guziekin, eriotz orren berri obeto ikasteko?

-Epaille jauna -erantzun zion Inaziok-, zuek otzak zerate. Ez diozute legeari besteri begiratzen. Zuentzat ez da maitasunik bizi. Alare, gertatuaren berri jakin gabe, zertan asten zerate erritan?

-Oraindik arro mintzatzen al aiz? Nik ere nere eskubideak badizkit gero...

-Baita guk ere. Au illa gurdian idiak ekarri digute etxeraiño. Zer uste dezu: txakur bat bezela atarian edukitzea? Emakumeak ere badira gero emen, eta oiek beti atarian negarrez ikusteko?

-Nola litekek ori? Egitan ari aiz edo iruzurtu egin nai gaituk?

-Beti susmur txarretan bizi zerate. Au mendira joaten zan egunero, eta andik pagota-zamarekin okindegiraiño. Gero, etxera datorrela, seguru asko gurdian etzana, idi auek badakite itzairik gabe txuxen etxera etortzen, aitak etzuen nabaituko, baiña idien buruetan zetorren txakurrak bai; eta atzetik jarraituko zion lapurrari. Atze alde artan bere arra-

maskak izango ditu. Au zuretzako, sendagille. Bitartean, idiak illa, aita, etxeraiño ekarri ziguten.

-Ia sinistu ezin litezken ipuiak dira oiek.

-Emen ez dago ipuirik. Egi biribilla da au guzia. Zuek bai al dakizute, bada, nekazari beartsuak nola bizi geran? Lapurretara etorria izango zan. Aitak dirua ondotxo zekarren, baiña etzion lapurtu.

-Gizon ori eroa al da, bada?

-Ez da eroa izango; baiña txakur onek utzi ez. Oartzen al zera, lapurra gizona il da dirua ebasteko bere ustez lasai aztertzen ari dala, illunpean txakur aundi onek idien buruetatik gaiñera jauzi egitea zer dan? Egundoko ixkanbilla sortu zan. Txakur onen zaunka-karraxiari inguruko baserri guzietakoak lagundu omen diote.

-Ez da orduan ori urrutikoa -zion epailleak.

-Ez det uste. Lapur nabarmenak badira inguru auetan -zion Joan Joxek.

-Txeetasun oiek guziak onak dira lapurra edo gizon-iltzaille ori arrapatzeko. Gizon onek bai al zuen etsairik?

-Gu guziok bezela gizon indartsua zan au, eta bazituen bere zakarraldietan jipoituak. Baiña nik ez det aien susmurrik egiten. Len ere esan dizugu aita diru asko zekarrela; eta, zalantzarik gabe, diruagatik illa da au. Oraindik aguroegi da ortarako; baiña badaukat, txakurrak aurrean ikusten badu, ezagutuko duen itxaropena.

-Ori arrapatzen ez det uste orren zailla danik. Baiña, ortarako, nai ta nai ezkoa zait zuen laguntza.

-Orri merezi duena ematea iñork nai badu, gu gera lenengo.

Non il zuten Inaziok erakutsi zien, eta sendagille ta epaillearekin tabernara joan zan. Ernesto bizi-rik azkeneko an ikusi baizuten.

Pelixen kezakak

PELIXEK aitonaren testamentuaren berri ikasi zuenean, esna eta lotan ametsetan geratu zan. Orain etzeukan etsairik.

Etxean laster antz eman zioten, batez ere amak. Baiña Pelixek etzion arrebari besteri kontatu, Ernestorekin eduki zuen elkarrizketa. Orentzat ere berri ona zan ori: orain berak ere bidea libre zeukala.

Goizean Pelix mendira joan zan. Bart gertatuaren berririk etzeukan oraindik, eta triste eta pentsakizunez betea igaro zuen eguna: "Zer gertatu ote zaio Ernestori?". Txakur-zaunka ta ixtilu aiek entzun baizituen etxerakoan. Arek bezela, beste langille lagunak ere ezer etzekiten.

-Aita eziñean bazan, len askotan bezela, semea etorriko uan. Etxe artan ezbear gaiztoren bat gertatu dek, andikan iñor etorri ez danean.

Bere eguneroko buelta egin ondoren, azaldu zan, beti bezela, etxera, idiak an utzi ta tabernara joateko asmoan.

Ama agurtu zuenean, onek oso zorrotz begiratzon. Zerbait bazuela bai semeak aguro antz eman ere.

-Zer dezu, ama? Ni ez ote naiz, bada, lengoa?

-Esan didaten guzia gezurra dek edo sentimenturik gabeko gizona aiz i?

-Zer esaten ari zera?

-Orduan ez dek ire lana.

-Zer da ori? Ni goizean mendira joan ta oraintxe nator etxera. Emengo gora-beeren berri ez da igotzen araiño.

-Gezurra esan zidatek neri orduan: Bidegaingo Kaskaillua -amak ala deitzen zion-, tabernatik etxera zijoala, zerbaitekin buruan jo ta il dutela.

-Oraintxe entzuten det ori lenengo. Arritu naiz, bai, etxe artatik ez dala iñor ere mendira azaldu. Baiña ori nik egiña dala esaten duenari lepoa biuruko diot. Ortarako ez dago eskubiderik.

-Erriko geienak il bearko dituk orduan.

-Bart aitona ta ni konpondu giñan, eta arengatik itz txar bat esateko ez daukat arrazoirik. Elkarri barkatu genion. Arek, bere testamentuan, Ines eman zidan, bere alaba maitagarri ura neretzat, gure ezkontza bedeinkatzen zuela. Pake-pakean elkarri esku eman genion, eta biar arte agurtu giñan.

-Noiz ilko zan bai al zekiken? Edo ea bere burua il duan...

-Biotzeko bi edo iru zimiko gaizto izanak zitu. Atzo azkenekoa, etxera zijoala. Etsi ta gero, berak esan zidanez, bizirik geratua. Len, zaarra geratzen zanean, gaztea etortzen zan. Gaur, berriz, iñor ez. Banuen zerbaiten beldurra.

-Len berak besteak ondatu zizkin, eta orain berari etorri zaiok ordaiña.

-Ura il dutela ta poztu egiten zera noski, ama.

-Naigaberik ezin sartu dek beiñepin nere biotzean. Nere senarraren borreroari ere agidanean ordua iritxi zaiok. Or konpon ditezela.

-Gizon batek ori esan balida, alare gaizki artuko nuen. Baiña nere amaren aotik ori entzutea oztopogari da neretzat. Alako eziketa eman diguzute. Gorrotoa itsatsi beiñepin. Orregatik, ni ere lotsaga-

rri ibili naiz. Nik ez dakit zenbat supritu erazi diodan aiton gizarajoari. Eskerrak bere semeei, ez nintzan aurreragi sartzera ausartu, zure naia ala zanta. Baita nere buruari ere supritu erazi diot alperrik.

-Dana dala, merezia eman ziotek. Bere arrokeriak ere bukatu dituk.

-Baiña berriro bere semeak jasoko dute bandera.

-Bai, xoritxarrez. Bazekiat ori.

-Zuri ere dena barkatzen zizula esan zidan.

-Barkazio ori jaso dezala beretzat, denaren bearean arkituko uan ta.

-Bada, nik Ines asko maite det, testamentuan bere aitak eman didana. Nere arrebak ere bai Inazio. Mutil ederragorik ez du arkituko. Txapela ere urbil samar geratuko da. Etzera, noski, eragozpenak jartzen asiko.

-Biak ere nazka ematen didazute. Baiña, zuekin konfiantza ori badute, ni ez nauk iñor ezkontzak autsi edo konpontzeko. Ezta maitasunari ateak itzeko.

-Bereala noa zer gertatu dan jakitera.

-Ez adilla, motell, legoi-zuloan sartu.

-Zure buruko iduripenak besterik ez dira oiek. Mutil oiekin maiz itzegin det, eta gazte mazal pake-tsua dira. Naiago nuke ez baneuka etsai gaiztoagorik.

Ama agurtu ta tabernara joan zan lenengo, amak esandakoak egiak ote ziran jakitera, onuzkero denean zabaldua izango zan ta.

Sarreran "Gabon deizuela Jainkoak!" agurtu zitu en orduko, an zeudenak arriturik begira-begira jarri zitzaizkion.

-Baita iri ere -erantzun zioten.

–Orren serio begiratzeko zer dezute?

–Ez al dakik zer gertatu dan?

–Bai, amak esanta. Dena kontatu zidak ares-tian. Ni egunsentian mendira ateratzen nauk, eta illunabarrera arte ez gaituk onera etortzen. Emengo burrundarik, berriz, ez dek irixten araiño.

–Arritzekoa. Erri guziak beatzarekin i apuntatzen au; ta i, berriz, ezer ez baekike bezela, lasai samar ator.

–Orren eroa naizela uste al dezute, nerekin ainbeste burruka eta ainbeste ixillutan ibilitako gizona bidera atera ta iltzeko? Ez dizkit nere egunak urkamendian bukatu nai. Aitona gizarajoak pake-pakean bere alaba Ines testamentuan neretzako eman zidaken; ta pakeak egin ta gero nere andre-gaiaren aita iltzera joango ote naiz, bada?

–Bart emendik atera ta lareun metro baiño lenago il ditek Ernesto, erremintaren batekin buruan jota.

–Urdea aleena! Ori egin duenak leku onean uzten natxiok. Bertan illa erori nadilla, ortan nik parterik badet! Entzun nizkin txakurren zaunka ta ixkanbillak.

–Bai; ori egia dek. Aldapak gora igo uan, ez bein bakarrik, bi aldiz ere bai, norbaiti jarraiz. I beean bizi aiz. Ez intzan, bada, gora joango.

–Ori dek egia. Ni txuxenean etxera joan niñun, emengo ixkanbillak utzita.

–Errian geienak ire susmurra egingo ditek, bada.

–Eta bere semeak ere bai.

–Ez. Bart, aita illa billatu ondoren, onera etorri ituan, ezer banekien-edo jakitera. Inguru ontan aiek bakarrik izango dituk ori ez dala ire lana diotenak. Eta garbi esan ziteken gorrotoagatik ildakoa ez dala.

Lapurra dabillega or tartean, diru asko omen zekarreken ta. Semeen iritziak indar ikaragarria zeukak ire alde, bi famelietako gora-beeren berri ondo zekitek eta.

-Eskerrik asko. Pozten nauk. Beste esamesa guziengatik etzidak bost ajolik. Oiek nizkin etsairik gogorrenak. Bazekitek, ordea, nere berri. Nik oien arreba Inesekin ezkondu nai nizek. Inaziok, berriz, Terexa nerearekin. Ea ezin ikusi txoro au betiko bukatzen dan, zertatik eta noiztik ezkerro datorren ez dakiguna.

-Ik sekulako aldaketa egin dek.

-Maitasuna zebillek tartean, eta ezagutu ditudalako ere bai. Zoritxarrez, nik geiegi itzegiten dit, biotza batera eta mingaiña bestera. Ni orrek galtzen niok. Bart aitonak neri esan dikzkidanak entzunda, nere iritzi txar guziak aldaketa osoa egin ditek. Benetako gizona uan Ernesto; eta, gaur mendira joan izan balitz, gure eztaietara konbidatuko nin. Orregatik etorri nauk onera. Biok gaizki ibili bagera ere, errurik geienak nereak dituk; ez arenak. Etzidatek ezagutzen utzi. Oraintxe bertan niak beren baserrira.

-Garbituko aute, motell.

-Mutil orrek ez dik egin olakorik.

-Bestela, ez dek komedianta txarra.

-Ez dek lurraren gaiñean olako lan gaizto bat eginda ain ajolagabekorik. Leku onean sartuko uke bestela orain.

-Epailleak, bada, lenengo bera lotuko dik.

-Baiña ez luzarorako.

-Orain legoi-zulo ortan sartzeko mutil ausarta dek orratik. Gozoak egongo ditek. Txikituko ditek. Len ere Inaziok, ez bazion bere aitari pakean uzten, aurrez aurre berarekin izango zituela kontuak zema egin ziokeen.

-Arazo ura ta au ez dituk, alderatzekorik ere, berdiñak. Gaurkoan ondo artuko ditek, ez ditek onen susmurrik eta -zion tabernariak.

Maitasuna garaitu

TABERNARIAK Pelixi egoak jarri zizkion maite zue-naren etxera joateko. Benetan asko maite zuela Ernestoren alaba, eta arraixku guziak igarotzea gutxiegia iruditzen zitzaion neskatxa ura bereganatzeko. Inazio ere ez al zebillen bere arrebarekin? Maite bazuen, arek ere etzuen galdu naiko.

Arrazoi txarren bat emango ziotela? Etziran ola-koak. Artara dijoan gizonak garbi erakusten du bere errurik eza.

Gazteak benetan nai zuten zertatik zetorren etzekiten eta eriotzak eta guzi ekarri zituen gorroto zikin ori moztea.

Bidean erne joan zan Pelix, illun samar baizegoen, bart arratsaldeko eriotzaren aztarrenik billatzen ote zuen. Bere etxerako erdi-bidean arkitu ere bai odol-arrastoak. Alegia, iltzailleak ezker aldetik kroskatik beera joa zegoen. Illun samar egongo zan, eta alare asmatu. Bestela, berak eta txakurrak konponduko zuten lapurra.

Diru asko baizekarren, eta norbaitek ikasi. Etzan arritzekoa izango. Inguru artan baziran lapur ezagunak. Espetxean egonaldiak egindakoak ere bai. Aietako bat, Arbiondo esaten ziotena.

Susmurgarrienak ekarri zituen gogora, Arbiondoz gainera. Apustu ere egingo zukean aietakoren bat izango zala. Baiña nola arrapatu? Diru asko darabilkitenak askotan nabarmentzen dituk. Pelixek etzekien oraindik etzizkiotela diruak arrapatu.

Gurdi-bide zakar batean gora igo zan. Oso gutxi ezagutzen zituen inguru aiek. Beldurgarriak iruditzen zitzaizkion. Semeekin konpondu zan, baiña aitarekin nekez; eta naiago zuen alperrik arraixkuan ez sartzea,

Bidegain aldera begira zetorrela, Ernestoren txakurra atera zitzaion bidera. Oso ezaguna bai-zuen. Ongi-etorri bero bat egin ondoren, erdi jolasean lagundu zion etxeraiño. Gizonak baiño argiagoak dira askotan.

Sukaldean, eta goian ere bai, argiak ageri ziran. Gaubelako jendea ibiliko zan. Une estua zan, baiña etzegoen atzera egitekotan. Zuzendu nai zuen oker egiña. Maitasunak zabalduko zizkion ate guziak. Baiña biotza daldaraka zeukan. Alare, etziran ain itxuak. Izketan utzi gabe etzioten erasoko. Neska ere an egongo zan. Ari ere bere begirunea izango zioten.

Goian errosarioa ari zuten. An edukiko zuten gorputza. Baiña sukaldean ere izketan ari zirala ederki nabaitzen zuen.

Atea jo zuenean, bada, erraiña atera zan. Lendik ezaguna zuen. Mutil ura, nor aterako atean zai zegoela, txakurra inguruan jolasean zerabilkiela arkitu zuen. Ura aurrean ikusirik, benetan arritu zan. Laster antz eman zion Pelixek. Alare, aurrera: "Nola aterako ote naiz emendik?"

–Jainkoak gabon, Erramona.

–Baita zuri ere, Pelix. Ongi etorria.

–Benetan laguntzen dizut naigabeen.

–Eskerrik asko, Pelix.

–Zure etxekoekin itzegin nai nuke. Artuko ote niñuteke?

–Kupirik gabe. Zure kontrako iritzirik ez dago emen. Itxogin apur bat. Abisatuko diet.

Baserriz baserri illetarako abisuak egiten aritu ziran bi gazte zeuden sukaldean. Aiei serbitzen, berri, erraiña.

-Illaren aurrean ez al dituk txarrean asiko.

Erraiña errosarioa esaten ari ziran lekura igo zanean, "Nor da?" galdetu zioten. Geiago ere bazebiltzan an sartu ta atera.

-Pelix Zurgindegikoa, txakurra ondoan jolasean darabilkiela. Zuekin itzegin nai duela esan dit -zion erraiñak.

Bi anaiak elkarri begiratu zioten, ea igo ziteken amari galdetuz.

-Bai orixe. Esaiozu sartzeko aurrera. Orrela ausartzan danean, ez da itxura txarra. Orrela datorren mutillak ez du txarrerako asmorik.

-Bai. Orren susmurrik ez genduen. Orain garbi erakutsi digu errugabea dala, gure txakurrarekin etorri danean. Ori izango da testigu -zion Inaziok.

Erraiñarekin batera igo zan errosarioa esaten ari ziran lekura. Aurrez aurre an arkitu zuen fameli osoa, beste aide batzuekin. Erdian zeukaten gorputza, bere il-kaxan sartua. Zer esan etzekiela, moztua geratu zan Pelix.

-Jainkoak gabon -atera zitzaion.

-Baita zuri ere -erantzun zioten.

-Biotz-biotzez laguntzen dizutet denei naigabe-an -malkoak zerizkiola esan zien.

-Eskerrik asko, Pelix -denak erantzun zioten.

Baita amak ere; eta, onengandik asita, banaka-banaka denei esku eman zien. Denak artu zioten. Illaren aurrean gorroto txarrak apaldu ziran, baiña ez oraindik zearo moztu.

-Goazen sukaldera. An itzegingo diagu.

Maitasunak egin zuen aldaketa ori dena. Lenengo aldiz sartzen zan sukalde artan. Aukeran txi-

kiegia alako fameli batentzat. Aulki bat aurreratu zioten, eta an lengo etsai amorratuak goxo-goxo ar-
tu zuten.

–Zer esan didate gaur neri etxean?

Gutxi gora-beera, auxe, gertatu dana: gure ai-
taren eriotza.

–Txunditua ta izutua geratu nauk. “Guk bart
egin genduen agur goxo aren ondoren, orain berri
triste au?” nioken nerekiko.

–Etxera arte ez al ekin?

–Ezta ezertxo ere. Egunsentian mendira joan ta
arratsean etorri. Baiña banizkin nere zalantzak.
Zuen aita lantegitik palta dala oartu naizenean, “Zer
gertatu ote zaie?” nioken nerekiko. Arekin itzegin
nai nian, okerrak zuzentzeko. Atzo esku bat luzatu
baizidan. Arek, il baiño lenago, pakeak egin nai zi-
tuen. Eta bidea libre neukala. Alabaren maitasuna-
gatik arrokeri guziak uzten zituela. Nik ere egiteko
arek bezela esan zidaken, eta gure ezkontza bedein-
katzen zuela. Zoritzarrez, ez dit beste modurik edu-
ki. Lanak bukatuta etorri nauk etxera, eta amak
zuen aita il duten berri triste ori eman zidak. Txuxe-
nean tabernara etorri nauk; eta baietz, egia dala
esan zidatek. Luze ta zabal berarekin itzegin nai
nian; eta, ala jainkia, auxe dek ustegabekoa!

–Bizi zala ere konpontzeko asmoan al intzan?
–galdetu zion Inaziok.

–Ines ezagutu nuen ezkeroztik bai. Aiek ez
ituan axaleko arrokeri batzuk besterik. Eta askotan
biok batera sartzen giñun tabernara baxoerdi bana
edatera. Biok supritzen eta bat makurtu zai pakeak
egiteko. Garbi esango dizutet: nik ez dit orain arte
zuen aita ezagutu, etzidatek etxean utzi ta. Beti
aker zakar baten antzekoa erakutsi zidatek zuen ai-
ta. Eta, asarre ibili bagera, errurik geienak nereak
dituk. Nik zirikatzen nin; eta asko supritu diagu

biok, elkarren lagun maiteak izan bear genduenak. Norbaitek etxez kanpo zakarra zala esan zidaken, baiña biotz onekoa uan. Egunak itun ondo konpon-tzen giñala. Baiña atzoko elkarrizketa ortan ederki erakutsi zidak ori. Mesedez, ez gazteei eskola txar-rik erakutsi. Nik oraindik etzekit zergatik geunden asarre. Bein baiño geiagotan galdetu dit, baiña etzi-dak iñork arrazoi garbirik eman.

–Ez, motell. Eta, zoritxarrez, ez dek geiago are-kin itzegingo. Konpontzezkeroz, guk elkarrekin zu-zendu bearko dizkiagu okerrak. Arek zabaldutako atetik sartu nai badegu beiñepein, ez uste iñor gale-razten asiko zaikenik.

–Eskerrik asko. Beldurrak etorri nauk, baiña maitasunak eraginda. Elkar ezagutzeak on egin zi-guk denoi.

–Bere zakar-itxura guzian, gelan illa dagoen ori olakoxea uan. Barkatzeko biotza beti eskuan zeuka-na.

–Etxera etorrira, oraindik etzidak, bada, amak bi famelien betiko ezin ikusi gaizto ori arpegira bo-ta? “Utziozu ama, ainbat naigabe eman digun gorro-to zikin orri pakean –erantzun ziot–. Orrek berezi egiten gaitu. Maitasunak, berriz, batu”.

–Ez daukak arrazoi makala. Gure bi sendietan, beiñepein, ez dik on aundirik egin. Beti okasioan eta gaizki esaka.

–Ez dezute, noski, nere susmurra egingo.

–Ez aiz orduan nolanaiko komediantea. Alare, erri ontan geienak ala usteko ditek. Baiña guk, ala egon bagiñan ere, i onera apal-apal etorriarekin, uxatu dizkiagu gure susmur guziak. Bagenekiken, gaiñera, al uan guzietan Inesekin itzegiten uala, be-rak esanta. Ori itxura ona dek.

–Aita illa etxera sartu ta tabernara joan giñun. Andik etxerakoan, iltzaillea an zebileken. Tximistak

egiñez aldapak gora eramán zin txakurrak. Aita oraindik an ote zegoen ikustera etorria, diruak lapurtzeko asmoan.

–Neri ongi-etorri gozo askoa egin zidak, bada.

–Ori dek beste arrazoia, eta erne ibiltzekoa. Txakur onek ikusten duen lekuan ikusten duela, onek ezagutuko dik, eta ori izango dek benetako testigua.

–Nere berri badakizute, bada. Asarre txoro oiek utzita, aurrera jarraituko dit, ama asarretuko balitzaidake ere.

–Gure aita gaizki zebileken, eta amaika aldiz esan genioken lantegi ori uzteko. Baiña urtea bukatu arte etzin nai. Eriotzak aurrea artu ziók.

–Onuntzean ikusi dit il zuten lekua. Nola deskuidatu ote da?

–Seguru asko, gurdi gaiñean lo etorriko uan, agian illa, atzo ere gaizki ibili uan ta. Laguntzerik, berriz, etzin nai. Diruak beiñepein etzizkioteken kendu. Iñondik ere, lapurtzeagatik illa dek. Jainkoak dakien lekuraiño aurrean eramango zin txakurrak iltzaillea. Atze alde artan izango dizkik ozkadaren batzuk. Berriz ura aurrean ikusten badu, ezagutu baietz.

–Etxerakoan nabaitu nizkin, bai, orko ixkanbilla. Eta, anaiak esan zidanez, aldapak gora joan omen zala txakurra zaunkaka ta karraxika. Arbiondo ere goi ortan bizi dek. Arategian lana egiten dik, eta lapur ezaguna.

–To! Erdiz erdi asmatu dek. Guk ere orren susmurra egiten diagu. Aita il diguten baiño goraxeago badakik baserri bat badala. Ango ataritik igaro omen uan, txakurra orpoz orpo zekarrela.

–“Etzekit seguru esateko; aitortzeko, alegia. Baiña apustu egin bear banu, Arbiondo zala esango nitek. Illun zegoken, baiña alde samar ikusi bai-

nuen". Ala esan ziguk gaur bertako mutillak. Ik len-txeago esan dekanez, gizon ori lapur sonatua dek. Baita espetxeko berri ikasia ere. Sekulako otsa zeukak, gaur oraindik ere, besteren gauzen jabe egiten danarena. Baiña pake-pakean lanak bukatu ta etxera datorren gizon bat, diru pixar batengatik iltzera ausartzea ikaragarria dek neretzat. Susmurgarriena, beiñepein, ori dek.

–Nik orko jendearekin artu-eman gutxi dit. Baiña ori lapurra dala askotan entzun dit.

–Illetara etorriko dituk arakiña eta okiña ere, Bai noski. Ainbeste urtean serbitu ziek, eta ordaindu ziotela bazekiagu. Ea txeetasun geiago ikasten ditugun.

–Suerte txarreko umea nauk ni. Lenengo ni lotuko niotek, eta Jainkoak jakingo dik noiz arte. Neska gaixoa, berriz, nere zai.

–Guk etxean zeukagu naiko tristura. Baiña ire uste gabeko ori zuzentzeko gure paltarik ez dek izango. Ta espetxera eramango autela litekena dek. Epailleak beti norbait lotzen dik, Erriko jendeari entzuten badio beiñepein, orko tabernetan ire izena besterik ez omen dek aipatzen.

–Arakiña ta okiña ere ibili bearko ditek atzera ta aurrera. Guri barkatuko zigutek noski.

–Aitaren benetako iltzailleak ere erori bearko dik. Txakurrak bere bidean jarri gaituela uste dit. Baserri aren aurretik igaro bazan, seguruena Arbiondo.

–Gizarajoa! Oraindik bizi bear zuena!

Eta illaren aurrean mutil mazalari malkoak asten zitzaizkion.

–Il bear degula bazekiagu. Baiña orrela?

–Bai. Gaizki zebileken. Alare, etxeko atsedenean pasako zizkin oraindik beste urteren batzuk.

-Illetak noiz dituk?

-Erri ontako oitura danez, amarretan.

-Or izango nauk. Anaia bialiko dit pagotara nere ordez.

-Onenak egin dik, bada, famelia azita. Denok bezela, munduari agur egin bear. Etxeko martxak, orrekin edo ori gabe, berdintsu jarraituko dik. Illetak ordaindu, erori dan lekuan gurutzea jarri ta kitto. Gorputzarekin batera bere oroipena ere galduko dek, indartsu bezela ots aundiko gizona izan dek baiña.

Etxekoak agurtuta, triste ta alai joan zan andik Pelix. Alai, Jainkoak zekien ezkeru ondare bezela zertorkien bi sendien ezin ikusia moztu ta adiskidetu ziralako, gazteak beiñepein. Aitaren opariak egin zuen lan ori. Triste, berriz, pakeak egindako orduan aitaren iltzaille biurri ori azaldu zitzaielako. Lapurretagatik gizona iltzeraiño ausartu ere.

Illetako berriketak

AMARRAK-amarretan ospatu ziran illetak. Bere errian eta inguruetan ere ots ikaragarria zeukan Ernestok. Kupela meta-ziri-puntan jartzera eta Bizkai, Gipuzko ta Napar aldeko idi-apustu geienetara deitzen zuten gizona. Iru probintzi auetan oso ezaguna; eta badakigu kirolzale batek adiskide asko egiten dituela.

Jakiña, gaurko erreztasunik etzegoen. Alare, jendeak oso erantzun ona eman zuen, eliza alderik alde betetzeraiño. Berarekin ibilitako apustu-jende ori gelena etorri zan.

Bere semeak ere zabalkunde aundia egin zion, aita zan baiño ere indartsuagotzat zeukaten eta.

Illeta aurretik eta ondoren bazeukan Inaziok galdera-egille ugari. Gertatuaren berri jakin nai zuten guztiei erantzuten etzan erreza, oraindik ez baizekiten etxeakoak ere il zutela besterik.

Santiren eta Ernestoren seme-alabak ikusi zituzten elkarrekin; baiña bi alargunak batera etzituzten ikusi.

Santiren alarguna etzala joan zabaldu zuten. Baiña norbaitek Inaziori baietz esan omen zion. Alare, etzan Xeledonirengana azaldu. Aiek, beti bezela, gorrotoan bizi ziran. Illaren aurrean ere ez samurtzeko, gorrotoak ondo lotuak zeuzkan.

Ernestoren seme gazteenak ere bazituen bi edo iru ikusi nai zituenak itzegiteko. Oietako lenengoa,

arakiña; eta bazekien etzuela utsegingo, bere aitarren lagunik miñenetakoa zan au ta. Lanean nekatutako idi zaar guziak oni saltzen zizkion, Baiña baita besteak ondo ordaindu ere. Eta txuxen aren billa zebillen, bada, semea. Bera etorri zitzaion dolu-miñak eskeintzera:

-Izugarria gertatu zaizute -eskua luzatuz-. Benetan laguntzen dizutet naigabeen.

-Eskerrik asko. Bai orixe. Uste gabekoa gaiñera. Aspalditik biotzetik gaizki zebillen. Alare, ez diote utzi pakean iltzen. Zerbaitekin jo ta muiñak ateratzeraiñoko zartakoa, ala jainkia! Iltzaillea ez da oso gozo ibilia.

-Garbi aitortuko dit nere lagunik maiteenetako bat galdu detala. Idi zaarren prezioan ez diagu egundo eztabaidarik eduki, orko pezeta aleen gorabeeragatik berdintsu izango giñun biok eta. Txikitan ezagutu genin elkar. Geroztik amaika parranda kokor ta adar-jotze egiñak gaituk, ordu alaiak igaroz. Gizon atsegiña uan, neretzat beiñepein. Idi-apustu askotara joaten niñun ni arekin batera. Jainkoak zeruan dezala.

-Etsairik amorratuenei barkatuta joana da.

-Ez nin uste, Santi il ezkerero, orrek olako etsairik zeukanik.

-Azkeneko urteak garrastu dizkiona bat bai beiñepein.

-Ez dek, bada, Santiren seme zaarrena izango.

-Orixe bera. Baiña orrek nere aita jotzeko zaartzaro ontan ez du kategoririk eduki. Azkeneko urtera arte arpegia ematen zion. Besteak, berriz, beti atzeraka, igeska aldegingo zion. Tristeza zan ori nere aitarentzat. Langilleekin ez baizeukan konfiantzarik. Urte auetan, batez ere azkenekoan, biotzetik gaizki zebillen; eta asi zan beldurtzen eta okasioetatik iges egiten. Orduan nik Pelixi ala eskatu nion: "Utzi

akiok nere aitari pakean, ez badek legoi gaztearekin topo egin nai”.

-Mutil orren lana dala ziotek.

-Ez, inondik ere. Etzitzaion komeni. Bai-baizekien lenengo berari elduko ziotela. Ez dek mutil orren lana. Gazte orrekin pakeak egitea izan da eriotz orren fruturik onena. Pelixi malkoak asi zitzaizkion aita illaren aurrean. “Zoritxarrez, etxean zirikatzen niñutelako, ez dit ezagutu gizon ori -zion benetan naigabetua-. Biok ondo konpondu bear genduenak alperrik supritu diagu”. Ez da, bada, mutil ori. Naiko probak eman dizkigu. Nere arreba dauka andregaiia ere. Gazteak beiñepein adiskidetu gera. Zaarrak ez oraindik.

-Zuen aitari nik ordaindu nioken, beti bezela.

-Idi onak al ziran?

-Bai, ire aitak saldu dizkidan guziak bezela.

-Inork bai al zekien ordaindu zenionik?

-Nik esanta ez beiñepein. Goikoetxeko Arbiondok or egiten dik lana; eta, ire aitarekin izketan ari ginala, entzun ote zigun badizkit nere zalantzak.

-Orrek lapur-sona aundia ez dauka?

-Lapurretagatik bi aldiz espetxean egona dek. Ori alperra dek beiñepein galanta. Atzo ta gaur ez dek onera azaldu. Min artu duela ere esan zidatek. Aitzakia izango dik, bai, guzia, noski.

Itz bitan kontatu zion Inaziok beren txakurrak batedobat bi aldiz nola eramane zuen aurrean, mendi-egal aietan gora, zaunka ta karraxi.

-Ernesto il zuten tokitik?

-Antxetik bertatik. Baiña ori ote dan edo ez oraindik ez da susmur bat besterik, beste gutxiena uste degunen bat izan liteke ta.

-Ez niñuke batere piatuko, esan bezela, entzun ote zigun badizkit nere zalantzak eta.

–Aldapak gora iges zijoala ikusi zuen goiko gazte batek. Illun zegoela, baiña ura iruditu zitzaiola. Ori da guzia, baiña gauza ziurrik ez.

–Ondo zegok. Askotan egiten zizkidak olako utsegiñak, eta nik ordaindu egiten zizkiot, berriz. Oraingoan, zer duen sendagilleak azter dezala. Lan-tegitik bialtzeko asmoan asten nauk; baiña pena ematen zidak eta errukitu egiten nauk. Alare, orain-goan, medikuaren agiririk gabe etziot ordainduko. Epaillearen aurrerako ere ori dek seguruen.

Sumindua joan zan andik arakiña, “Arbiondo ori ote da orko borreroa?” esanez. Medikuaren agiririk gabe etziola ordainduko.

Okiñarekin ere egon zan. Arek etzeukan zertan nasturik. Ordaindu ziola, alegia.

–Lapurrari beia antzu atera zaiok, eriotz triste bat egin da gero. Dana dala, olakoak urkamendian bukatu bear dizkitek egunak.

–Ni ez naiz eriotz batengatik bestea egitekoaren aldekoa. Baiña eskarmentua jartzezkeroz, zerbaiten bearra badaukagu.

Ezagun geienak eman zizkioten beren dolu-miñak. Aien artean, Arbiondoren aitak. Oso serio etorri zitzaion.

–Naigabean laguntzen dit, Inazio –esan zion–. Ederra gertatu zaizute!

–Ez genduen olakorik asko pentsatzen.

–Pelixen lana dala ziotek.

–Noski, bera lotuko dute lenengo. Baiña ez det uste ori danik. Erri guziak ala badio ere, guk seguru badakigu ez dala Pelix. Aitaren eriotzak beste iñori baiño kalte geiago egin dio orri. Biak ibili dira txakurra eta katua bezela; baiña adiskidetuak ziran.

–Nor izan liteke, bada?

–Ez dakit or tartean nor sartuko zan. Baiña Pe-

lix ez, iñondik ere. Gure txakurrak bezela baneki... Ikusiko dezu nola ori izango dan eriotz ontako leku-koa.

-Txakurrak aizkatu zin orduan iltzaillea?

-Bai; lapurretara aterea noski. Baiña esku utsik joan zan.

-Nola ez uan aitona oartu?

-Ura gurdia ren atzean lo etorriko zan. Iltzaillea ikusitakoak bai omen dira. Baiña ez ondo ezagutua. Zalantza.

-Eta nor dek ori?

-Barkatu aita bati arpegira esan bearra: zure semea irudi omen zitzaion.

-Ez niñuke batere arrituko, lapur ezagutua dek ura ta.

Baiña gizarajoa moztua geratu zan, ori entzun zuen orduko.

-Estu samar ibilia izan bear zuen.

-Ik dioken seme orrek atze alde a minberatu samarra ote daukan badizkit nere zalantzak. Ez dek bi egun auetan lanera joan. Eseritzeko ere ixtilluak erabiltzen dizkik. Eta, zoritzarrez, izen txarra zeukak, gaiñera.

-Erru gabeko gizon bat orrela diruagatik iltzea ere... Arratsean bidera atera ta erremintaren batekin buruan jota muiñak ateratzeraiño, baditu barrenak. Ortatik oraingoan ondo ateratzen bada, kontuz orrekin. Dana dala, arrapatuko banu, nere atzaparretan itotzeko ere gaiztoa datorkit. Senti-mentu geiago ez izateko ere, iñondik ere ori bere ezagunen baten lana dek.

-Utziok pakean orri, Inazio. Ez ortan ire konzientzirik zikindu. Justiziak ez dik soka baten pal-tarik edukiko. Erremintaren batekin jota ez didak esan?

-Bai. Maillua edo borra txikiren batekin. Kirten duena beiñepein. Bide bazterreko kroskatik joa zegoen, goitik beera.

Ori entzun zueneko, buruari eldu ta lurrera begira geratu zan gizona, benetan serio.

-Zer dezu? Zarrazta gaiztoa egin dizu berri orrek?

-Bai, Inazio. Aundiegia lasai geratzeko.

-Zergatik jakin al nezake?

-Iretzat etzeukat ezkukurik. Nere semea bada ere ori egin duena, paga dezala. Etxetik kanpora ez adilla kontatzen ari. Nik arrobi txiki bat badaukadala badakik noski. Baserrian lan-girorik ez dagoenean, an aritzen nauk arri txikitzen, auzo-lanetan bideko zuloak berdintzeko eta abar. Udalak ondo sartzizen zidak. Atzo ezkeror, ez dit inon arkitzen borra txiki oietako bat. Ik dakiken bezela, nere semea lapurra dek. Bere probak eman dizkik. Alare, arategian lana egiten dik. Ari kontra egitera ez gaituk auzartzen. Nai duen bezela zebillek. Etziogu beti utziko. Lan ori orrek egin badu, or konpon dedilla. Zigortu dezatela, beste olakoren bat egin baiño len. Nik, aita naizen aldetik, ez dit salatuko. Berri auek ikasi ditudanean, biotza oiñetara erori zaidak. Baiña, al badet, ni ez nauk ixtilu oietan naastuko.

-Ez dezu zertan naasturik. Salatu, ain gutxi. Txakur mazal batek aurrean ikusten badu, eta ori bada beiñepein, laster salatuko du. Lepora jauziko zaio. Nik lenbailen moduak egingo ditut testiguen aurrean topo egiteko.

Bide-bazterreko taberna batean baxoerdi bana artuta, bakoitza bere bidean joan zan, eguneko gertakizunak ausnartuz.

Bazkal orduan, seme zaarrena etorri zanean, aren babesean Arbiondoren aitak berritu zuen arazo biurri ori.

-Etzekit zer gertatzen dan: lapurrak ibili dituk edo...

-Etzuten emendik ezer askorik eramango -zion zaarrenak.

-Etzekit ori. Baiña ia egunero bear izaten detan puska bat eraman zidatek. Etzekit ebatsi duenak zertarako duen.

-Etxe onen barrundik?

-Bai; ta ate atzetik gaiñera. Ernesto maillu edo arrobiko borratxo oietakoren batekin il dutela esan zidak goizean bere semeak; eta nik erabiltzen detana palta dala oartu nauk. Nork eraman bear zuen ura? Ate atzetik gaiñera? -arritu samarra eta Arbiondori zorrotz begiratu-. Lanerako eramana ez dek izango noski; eta zer pentsatu ikaragarria ematen zidak, arekin ez ote duten il Ernesto.

-Baiña nork?

-Ori baneki, dena bukatua legoke.

-Gizon bat iltzeko ez ote zeukan erreminta oberik?

-Lanetik ler eginta lo datorren bat iltzeko zer oberik?

-Eta nork billatu bear zuen ori ate atzean?

-Etxeko ezik, iñor ez; eta emengo berri ondo dakiena.

Etxeko guziak Arbiondori begiratu zioten. Ura, berriz, ajolik gabeko erdi txoro oietakoa izaki, etzuen, itxuraz beiñepein, aitaren salaketa gaiztoa aintzakotz artu; eta zalantza ezik, ziurtasuna ere bazuten etxekoak.

-Ez intzan, bada, i izango -galdetu zion aitak.

-Agure bat iltzeko ez det nik borra bearrik.

-Nork eraman bear zin, bada? Aidean ez uan joango.

–Arategitik naiko saria ekartzen det nik nere-tzako.

–Len ere ekartzen uan; baiña bi aldiz lapurre-tan arrapatu aute.

–Eta dirua al zeraman?

–Bai; idi-pare batena ta okindegiko iru illebete-koa.

–Dana dala, ez du nolanaiko mauka egin.

–Etzizkiok, ordea, arrapatu, txakurrari eske-rrak.

–Eta dirua zeramala nola jakin bear nuen nik?

–Arakiñak dionez, ura Ernestorekin izketan ari zala, ik dena entzun ote uan bazituela bere zalan-tzak.

–Orduan nere susmurra egiten dezu?

–Borra txiki ura palta dek emendik, eta Inaziok ala esan zidak: gizon-iltzailleak atze alde ura urratu samarra edukiko duela; bi aldiz lau ankako batek mendirik mendi goi alde ortan aurrean erabilia due-la. I, berriz, atzo ezkerro ikusten augu ezin aizela eseri.

–Erlekisten gaizto bat daukat lertu zori ta...

–Ik nai dekana esan; baiña, zoritxarrez, laster arrapatuko aute. Ez guk salatuta, ordea. Ez nitek sinistu nai ire lana dala ori. Lapurreta gaizki zegok; baiña, alare, orregatik errugabeko gizon bat bidera atera ta gauzez pakean datorrela iltzea, Euskal Errian egiten dan pekatu gaiztoenetakoa dek ori. Orain edorrek atera kontuak. Ez aiz umea.

Denak igerri zioten semearen lana zala ori; eta amak ala esan zion aitari –ama izaki; bestea, berriz, semea–:

–Eta salatu egin bear al dezu?

–Nere kontzientziari begiratuko banio, bai. Bai-

ña aita naizen aldetik, ez banaute beartzen, nik ez det itzik aterako, ez alde eta ez aurka. Eldulekurik etzeukak ortarako. Emendik kanpora, nere iritzian, okerreña sendagillea dauka. Arek aztertu bear baitu.

Eta ondoren semeari:

-Aitzaki-maitzaki ez aizela lanera joaten zioke arakiñak, eta medikuaren ageririk gabe ez dikela ordainduko. Ezta lanean artu ere. Ik jakingo deko nola-ko erabakia artu. Jakiñaren gainean aiz berri gaizto olek etxetik atereak dirala.

Illunpetako lana orra uste baiño len argitu. Il-tzailleak, egin aurretik, etzuen ala pentsatuko. Uste gabekoak gertatzen, ordea, ari guziak ondo korapilatzen jardunagatik. Azkenean txakur batek dena naastu.

Inaziok ori dena kontatu zuen etxean, eta ala erantzun zioten:

-Utzi dena Justiziaren eskuetan.

Ines ere benetan lasaitu zan. Orko atzera-aurrerak eta gora-beerak etziran luzarorako izango. Bitartean, pazientzia.

Aitareen orde

ETXEAN denak bazekiten aita zanak nolako asmoak zituen: urtea bukatzean utziko zuela lana. Bere idiak eta lantegia, berriz, nai bazituen beinepein, Inazio seme gazteenari utziko zizkiola.

Arek eskeiñia ontzat artzen zuela adierazi zue-nean, aitak egindako testamentuari baietza eman zioten. Etzion inork eragozpenik jarriko. Denak ao batez eskubide osoa zeukala aitortu zioten. Urteak aurrera ta lanikan gabe zegoen, etxera ezkondu-tako anai zaarrenaren morroi.

Illetak bukatu ta urrengo egunean, langille bat berria lanera azaldu zan. Okindegira joaten zanean konponduko zala ango nagusiarekin. Seguru baizegoen biotz-biotzez artuko zuela.

Lenengo aldia zan lagun-talde artara azaltzen zala. Besteak joaterako, bere gurdi astun ura erdi betea zeukan. Banaka-banaka etorri ziran besteak; eta, ongi-etorriaren orde, "Naigabeen laguntzen dit, Inazio" esan zioten serio.

Enborreko ezpala zala bai laster antz eman ere; andik aurrera gazte ta zaarren artean etzala alako ixkanbillik ibiliko.

Berak uste zuen baiño urrutiago zegoen lantegia. Alako ibillaldiak egin ta artzen zuten saria parragarria zala.

Aitzaki orrekin, ordea, etxeko morrontzatik ateratzen zan, lantegi egokiagorik billatu ezkerro zaarra utzi ta berria artzeko asmoan.

Ernestok txango ori dena ia nekatu gabe egiten zuen. Joan-etorriaren lautatik bi gurdi gainean noski.

–Arek ainbeste irautea aski dek ik ere –esan zioten.

–Ni, beiñepein, lenago aspertuko nauk. Irabazbide ohea billatzen saiatzea ez dek izango pekatua noski. Urruti zegok ura, idi ta guzi dabillenenarentzat, irabazi geiago gabe.

–Ortan arrazoi ematen diagu, motell. Guri ere zer pentsatua ematen ziguk. Ez dituk, ez, ik arek bezela idiak maitatuko. Seme-alabak bezelaxe maitatzen zizkin. Egon bear zutenean ere, otz bazegoen beiñepein, beren mantak bizkarrean zituztela. Akui-llua bai nekez dantzatu ere, eztenaren ziztakorik gabe. Olakoxea uan gure Ernesto gizarajoa.

–Alegiñak egingo dizkiagu tratu ona ematen. Aziendak ondatzeak galera besterik etziok ekarriko itzaiari. Gure aurrekoen irabazia ere azienda-lanetik zetorreken. Beste gainarakoan, zergatik idiak presaka ibillerazi, eguneroko gurdikada bat besterik ez ditek eramango ta? Guk sukaldekoa bezin ondo zekitek auek emendik etxerako bidea. Aitak atzeka artzen zizkin, bera gurdian eserita txuxen asko joango zirala bai-baizekien. Txakurra, berriz, idien burutan itzai.

–Apustueta deitzen al aute?

–Aita ezagutu zutenak etzidatek pakean uzten. Nere zabalkundea, berriz, berak egin zin. Zaartuta erretiratu zanean, bere ordeko ni jarri nioken. Iñork deitzen bazion, bere erantzuna betikoa uan: “Legoi zaarra galdu dek. Baiña ni nere urterik onenetan baiño ohea dan seme bat bazeukat. Nere lekuko ura bialiko dit”. Ni ere, arrokeri pixka bat edukita, pozik joaten nauk indarrak erakustera. Mantenu ona eta diru pixka bat ere emago zidatek.

-Eta barkatu galdera: aitari zer egin ziotek?

Berak zekien bezela, al zuen ondoena kontatu zien.

-Urdea aleena! Goxoa ibili uan!

-Ez dek arrapatzen zailla izango.

-Pelixen lana dala ziotek.

-Utziozute pakean gizarajoari. Eriotz ortan berak etzeukak zer ikusirik.

-Guk ala entzun diagu. Gure aieka ortan ots ori zebillek.

-Oiek etzekitek ezer ere. Bazetorrek bere gurdiarekin; baiña zalantzarik gabe sinistu zenezateke ori errugabea dala.

-I emen ikustearekin batean arrituko dek.

-Ez dit uste. Elkarren berri bazekiagu. Egun batzuk badituk pakeak egin genituela gazteak beiñepein, oraindik bi atsoak lengoan egongo dituk baiña.

Bere lekuraiño iritxi zanean, denak agurtu zituena Pelixek:

-Egun on.

-Baita iri ere.

-I ere emen, Inazio? Aitaren ordeaz asiko intzan?

-Bai. Baiña au ez dek lanbide ederra, eta ez dit oso gogozkoa. Urruti zegok eta eguraldi txarra edo ona etorri egin bear. Eta emen irabazten degunarekin ez diagu praka berri asko egingo. Baiña anaia-
ren morroi bizi niñun, ta orrela askatu beiñepein nere burua.

-Arrunt eroria natorrek, edozer astakeri egiteko zorian. Txori bat ez dit il oraindik; bide ortan, ber-
riz, denak ni apuntatzen niotek emengo iltzaille bezela. Orain egun batzuk etsai neuzkanak dizkit gaur

adiskiderik onenak. Oien babesean jarri bear nere itxaropena. Zuei ustua bear nere kezka eta naigabeak. Ama, beiñepein, gaiztoa zegok: nere andregaiia ederra ta ona dala, baiña naiago likek kartzelan urteak nik igarotzea, arekin ezkontzea baiño. Bidean nentorrela ikusten niñutenak ala zioteken: “Ara non dijoan Felix. Ori dek Ernestoren iltzaillea”. Bati baiño geiagori entzun ziet orrela izketan ari dirala. Dena gezurra dek, berriz.

–Esan dezatela nai dutena. Laster aspertuko dituk, egia azaltzen danean. Kontzientzi garbiak pakea ta lasaitasuna zekarrek biotzera. Ez adi, bada, batzuen esamesagatik geiegi larritu. Olakoxea dek jendea. Ezer jakin gabe, dena dakitela uste ditek, eta beti gaizki itzegin bearra.

–Ortan arrazoi dezute. Baiña ni beldurrak aidean nabillek, noiz edo noiz guardiazibillak azalduko ote diran nere galderak egiñez.

–Ori ere ez uke arritzekoa izango; baiña ez luzarorako. Nik beiñepein alegiñak egingo dizkit, ire arreba Terexak zirikatzen niok eta.

–Ez banu Ines orrenbeste maite, dena dagoen bezela utzi ta Ameriketa alde ortara iges egingo nitek.

–Eta gizon-iltzaille bezela azaldu. Lasaitu adi, motell, berri onak dizkiagu ta.

–Lengoz gaiñera, beste berri onen batzuk badi-tuk orduan.

–Bai, motell. Txakur mazal onek lan gaiztoa egin zioken iltzailleari. Ezeren aztarrenik utzi gabe egingo zuelakoan, entzun detanez, onen ortzak ederki jorratu omen diola bere atze aldea. Beraren aitak esan zidak arrobiko borratxo oietako bat palta omen duela bi egun auetan. Au dena txakurrari zorziogu; eta ez dit zalantzarik egiten, onek aurrean ikusten badu, ezagutu ta erasoko diola. Auzi ontan txakurra izango dek testigu.

-Arrobiko borratxoarekin jo ta il gizona? -esan zioken batek-. Ala jainkia, gozo ibili dek pake-pake-an zijoan gizonarekin.

-Ernesto, berriz, lo joango uan etxeraiño, askotan bezela. Baiña nik bazekit gutxi gora-beera bere erreminta nork ebatsiko zion arrobizaleari.

-Nor dek ori, bada? Esaiguk.

-Ez dit oraindik bere izenik zabaldu nai, proba txiki bat egin arte: gure txakurrak ezagutzen badu, etzeukak ukatzerik.

-Eta ez badu ezagutzen?

-Arraixku ori ere bazeukagu. Baiña beste proba geiago ere bazeudek: geroztik ez dala joaten lanera; eta, lengo lekuan lan egin nai badu, sendagillea biailiko zioek etxera. Nagusiak, berriz, orrek zer duen jakin nai likek lantegian artzezkeroz, eta lanetik egiten dizkion utsegiñak barkatzezkeroz. Berak seme-rik ez ta ia seme bezela artua zeukaken. Konfiantza emateak ez dik zenbaitekin asko balio.

-Ez diguk orduan nor dan esan nai. Ez giñuke gu kontu kontari ariko. Berdin laster zabalduko diran gertakariak dituk.

-Oraindik ez. Bego ixillean.

-Ala jainkia! Olako misterioz itzegiten al dek beti? Ez diagu jango, ez, bere ipurdia larrutua badauka ere.

-Zabalduko balitz, agian iges egingo likek, eta etzaiguk komeni. Berdin egun batzuk aski dituk egia garbi jakiteko. Aitak beiñepein semearen susmurra egiten dik. Lenago ere esku lotuekin ibilia dala, eta ez dala oraingoan ere geiegi izutuko.

-Baiña Pelixentzat, iges egingo balu ere, berdin uke, iltzaillea nor dan jakin ezkeru.

-Nik gutxi gora-beera bazekit nor dan. Arakiña-rekin lan egiten dik. Lapurretatagatik espetxean ego-

na. Bere aitak arrobi txiki bat bazeukak gaiñera.

-Txist! Ago ixilik! Urdea aleena! Ala ote da? -zioteken.

Ezagutzen zuten. Aietako bati, Pelixi, etzion berri orrek nolanaiko lasaitasuna eman.

Aoa bete ortzekin lagunak utzita, gurdia betea zeukan ezkerre, bazkalondoan aldegin zuen Inaziok okindegiraiño.

-Ongi etorria, Inazio -agurtu zuen okiñak.

Luze ta zabal itzegin zuten, ta aitaren egiñez geratu zan okiña, ustez iltzaillea nor zan esan ziotenean.

-Ni ere oraindik deituko niotekek auzitara -zion okiñak-. Baita galdera txarrak egin ere, lenengo al-dian bezela. Baiña alperrikakoa dena. Nik bazekiat eriotz ori Euskal Errian gutxi egiten diran bezelakoa dala, eta zigorrik gaiztoena merezi duela orrek. Orain ik diokenez, gutxi gora-beera badakizutela nor dan. Azkenerako, banaka-banaka deituko dizkit orrekin artu-emanak edukitakoak. Arakiña ere bazekiat izana dala. Baiña ez dit berarekin itzegin. Egin duenak ordain dezala. Eta i, Inazio, gaurtik aurrera nere langilleetan lerrotuko aut.

Errugabea espetxera

B EIN okiñak baietza eman zionean, bere bizibidetzat artu zuen lan ori Inaziok, irabazi gutxikoa bazan ere. Lantegi obe bat billatu arte or jarraituko zuen. Etxeko morrontzatic askatzen baizan orrela.

Egun batzuk, bada, lengo bi etsaiak lagun bezela igaro zituzten, patxaran eta pakean elkarrekin bazkalduz.

Aitaren antzera, beti lenengo joaten zan Inazio lantegira, eta lenen betetzen zioten. Atera ere, jakinā, ala egiten zan.

Pelixek, ordea, etzeukan pakerik. Bazekien epailleak banaka-banaka deitzen zituela illarekin igurtziren bat izandakoak, eta bere txanda noiz etorriko larri zebillen. Oartzen baizan erri guzia aurka zeukala. Inoizka berak entzuteko moduan, gaizki esaka gaiztoak nabaitzen zituen, eta inori kargu arizerik ez. Askoz okerrago geratuko baizan aien aurrerako.

Zergatik il ote zuten aiton gizarajoa? Askotan zetorkion ori bere oroimenera. Gorrotoagatik ez, beinēpein. Berak bestek bai al zion erra gaiztorik? Amak zion bezelakoa bazan Ernesto, nolakoa izango zan bere aita ere? Okasiozale amorratua, ikasi zuezez. Eta berak zertan naasturik bai al zeukan gurasoen gaztetako arazoetan? Zergatik zeuden asarre etzekitelarik, gainera. "Eta orain orretxegatik espetxera eramango aute" zion berekiko.

Bere onetatik ateratzeraiñoko beldurra zeukan, noiz edo noiz ertzaiñak etorriko ote zitzaizkion. Orregatik, bere anaia jakiñaren gaiñean jarri zuen: ertzaiñak etxera azaltzen baziran, laguntzeko aiei mendira, etxerakoan zama eramateko.

Inaziok kontatutako berriak asko lasaitu zuten Pelix, gutxi gora-beera ori nor zan bazekiten ta. Lengo etsairik gaiztoenak lagunik onenak atera zitzaizkion orain. Etzuen uste bera lasaitzeagatik ari zanik. Arek bazekien lentxeago edo geroxeago kome-ri ori nola bukatuko zan.

Egun batzuk orrela joan zitzaizkion itxaropen-tsu baiña beldurrak. Laster orrekikoa erabakiko zan, eta pazientzi artu bear.

Egun oietan epaillea patxaran-patxaran bere martxan zijoan, eta Pelixen txanda ere iritxi zan. Ordurako artu zuen amaika salaketa onen kontra; baiña denbora bear epaitu ta erabakia artzeko. Alare, arritua zegoen ildakoaren artetik etzetorkiola mutil orren aurkako salaketarik, eta ezin ulertu zuen zergatik izan ziteken ori. Baiña ainbeste salaketa zetorkion andik eta emendik, eta lotzeko agindu zuen azkenean. Gero askatuko zuela, errugabea bazan.

Gurdia zamatu ta abiatu baiño lentxeago, eguerdi-eguerdian, goibel ta lanbro pixar bat asteko itxuran, baiña aize gozo-epela zebillen mendiko pagoetan dantzari.

Pago aundi baten azpian ari ziran giro goxo artan bazkaltzen, itza ta putza, pake-pakean, baiña beti ere erne, erritik gora zetorren bidera. Bildurrak bizi danari, etzaio aztutzen txapel oker oietakorik ikusiko ote duen aldapak gora.

Inguruan txantxangorriak ari ziran txorrotxioka eta jira-biraka ezin egonik, bein lurrera, urrengoan zugaitzera, jetxi ta igo, bazkaldarrak andik noiz al-

degingo zai, aiek utzitako ogi-papurrak jateko pozez.

Berak zeuden lekutik urruti samar, olako beldurrik gabe, birigarro bat ari zan kantari gaztain erdi soil baten gainean, bazkaldarrak poztu nai balitu bezela. Nonbait an edukiko zuen maitea arrautzak berotzen. Bera, berriz, lan ortatik aske; eta, nai zue-nak entzun, bere txistu eder artan kantari, alaitu nai zituen besteak, bere atsegiña mendi aietan zabalduz.

Ura aske zegoen. Etzion iñori gorrotorik, eta Jainkoak denentzat egin zuenetik mantenduko zan. Gero, umeak jaiotzean, lagunduko zion bere umeen amari, aiek mantentzeko jan billa. Baiña bitartean, bere zorionaren berri jakin nai zuenari, abestuz adieraziko zion.

Bazkaldarrak oartu ziran, eta atsegiñez entzuten zioten.

-Ez dek noski Euskal Errian beste olako egazti kantari goxorik.

Egoera goxo artan aizearen igurtzi atsegiña artuz, eta sartu-erten zebillen eguzkiaren muxu epe-lak ere bai, lasai kontu kontari ari ziran.

Alako batean, egatu zan birigarro kantaria, eta Inaziok begiratu zuen aldapak beera.

-Madarikatuak aleenak! Oiek errurik ez badute ere, birigarroak laster ezagutu dizkik ez dirala parte onekoak -amorruez esan zuen.

-Nor dituk madarikatu oiek? Zer gertatzen zaik? Ametsetan ari al aiz edo?

-Laster azalduko dituk aldapaxka ortan gora.

Azaldu ziranean:

-Orra nere etsaiak. Baiña ez dituk txapel oke-rak noski -erantzun zuen urduri Pelixek.

-Ez; erriko agoazilla ire anaiarekin batera.

–Aizeak eramango al dik geiago ikusiko ez detan lekuraiño. Orixe bear nin orain biotz erori au la-saitzeko. Nere asmo on guziak ankazpira ziazik. Alare, alde-alde naiago dit, erriaren ikusgarri ibili baiño. Nere betiko salaketak ez dizkit entzungo. Errugabea nauk eta ez dit igesik egingo.

–Nik illetan entzun nuenez, i jotzen aute iltzaille bezela, eta salaketa ugari joango uan epaillea-rengana –zion batek–. Berezko ajola gabeko oieta-koa omen aizela ere entzunak gaituk, bada.

–Espetxera eramanta badakik nola geratzen naizen ni?

–I ta besteren bat ere bai. Baiña lasai adi. Ez dituk egun asko pasako. Orain nik ire andregai ta nere arreba maiteari berri kaxkar au emango ziot; eta, jakitean, bazekit negar egingo duela.

–Ea iges egiten detan.

–Errugabea aizen ezkerro, etzaik komeni. Orduan bai denak ire kulpa egingo lutekela. Emengo ixtillu auek laster bukatuko dituk.

–Eta urteak espetxean igaro bear baditut?

–Ez olakorik pentsatu ere. Iltzaille bezela artuko baiñute, urkamendian sokatik zintzilik bukatuko ituke ire munduko egunak. Lapurretagatik gizona iltzea danik pekaturik larrienetako bat dek. Ori egin duenak etzeukak gure erriko legeetan barkamenik. Neretzat ere, nazkagarrienetakoa. Alde aringarririk etzeukak. Soka bat lepotik lotuta, erri guziaren aurrean, ostikoka eta arra erdiko mingaiña dilindan daukala, eriotz lotsagarria emango ziotek.

–Nai dutena egin dezatela. Ez nauk igesi joango. Inazio, nik ez dit olakorik egin. Goiz edo berandu nere kulparik ezak azaldu bear dik.

–Gure laguntzaren paltarik ez dek izango. Len ere esan dit nik badakidala ori nor dan. Txeetasun batzuk palta zaizkidak. Aita ildako erreminta galdu

egin zin arek. Baiña, jakin detanez, guardiazibillak billatu ditek; eta ori epaillearen eskuetan zegok. Sendagilleak ere aztertu omen dik; eta aren ipurdia ain larrutua omen zegoken, ikusitakoan ala omen zioken: "Txarrantxaren gaiñean zaldaleak irabazten ibili al aiz edo zerk larrutu dik ipurdia orrenbestera-riño?". Ez omen zioken itzik erantzun. Bi gertakari edo txetasun oiekin, eguerdia baiño argiago zegok iltzaille ori nor dan.

-Orduan zergatik ez dik nere orde z eramatzen bera?

-Arakiña eta okiña ere izanduak dituk. Aren txanda etortzean, joango dek ura ere. Orduan, orain lotzen baute ere, i kalean aiz; eta ura, berriz, urkamendira, zalantzarik gabe. Erremintaren jabeak ere bazekik bere semea dala iltzaillea. Ura ere deituko ditek. Arek noski ez dik salatuko. Baiña nolabait babestu bearko dik bere burua. Lasai egon adi, bada, arazo au konpondu arte. Ez dek amabost egunik ere pasako. Bitartean, atsedena artuko dek. Etzaik gaizki etorriko. Garaiz agertuko aiz.

-Inesek ematen zidak pena. Aita bizi zala, dena konpondu genin. Eguna ta ordua aukeratu ere bai. Luze badijoa nere espetxea, etsiko dik.

-Ez au orduan asko maite.

Beste lagunak entzuten zuten elkarrizketa au; baiña ezin ulertu aiek biak elkarrekin zeukaten ezkutua.

-Ez oietan pentsatu. Ez adi geiegi larritu. Biotz on, bada, Pelix; eta ekatzak bosteko ori. Etsaiak giñanak maitasun berak bildu gaitzik, eta Jainkoak nai dezala gure ezin ikusi txoro ori gure artetik betiko uxatzea. Amabost egun baiño lenago emen bilduko gaituk. Gaur ostiralean gaudek. Agian urrengo astean bertan.

Ori esan eta gurdia artuta, okindegira abiatu

zan Inazio. Esan bezela, erriko agoazilla zan Pelixen anaiarekin zetorrena. Noizbait iritxi ziran. Beren agurrak eginta, inguru-minguru ibili gabe, xuxen Pelixengana jo zuen agoazillak, ordurako ondo eza-gutzen baizuen.

-Egun on, Felix. Ire billa natorrek.

-Eta zer nai uke nerekin?

-I lotuta espetxera eramateko agindua eman zidak epailleak.

-Gure errian ez dek ni lotuta eramango nauen agoazillik.

-Iri deitzeko agindua artu dit epaillearen alde-tik. Arratsaldeko bostetan auzitegira joateko, galde-ra batzuk egin bear dizkikela ta.

-Ondo zegok, ez diagu erru aundirik baiña.

-Bai. Denak inozenteak dituk. Gero an agertzen zaizkiek pekatuak.

-Nai al dek apustu txiki bat egin? Ni errugabea banaiz, ik ordaindu nik galtzen ditudan egunak. Bestela, idi-pare au iretzat.

-Txorakeriak utzita goazemak emendik.

-Bazkaria bukatzen utziko didak noski.

-Nik nere egitekoa bukatu dit. Badakik: arratsaldeko bost eta erdietarako, aztu gabe, Errenderiko auzitegira.

-Ori dek arrazoia. Emendik ara joateko ez dit laguntza bearrik, begiak estalita ere txuxen asko jo-ango niñuke ta.

-Ik eramango dituk noski idi auek okindegirai-ño. Nai badek, baita jarraitu ere, ni berriz etorri arte -agindu zion Pelixek bide-erakusle etorri zitzaion anaiari.

-Eskerrik asko. Pozik, gaiñera. Eta berriz etorriko aizen itxaropenik ez al dek oraindik galdu?

Itxu-itxuan i jotzen aute errudun erritar geienak. Ama goiko kaskaillua madarikatzen geratu dek.

–Arenak ez dek batere arritzekoa. Baiña ala zankoa! Ni ezkorra banaiz, ez aiz i gutxiago. Nik egin detala uste al dek eriotz nazkagarri ori?

Bere lagunei esku eman ez, bakar-bakarrik joan zan.

–Agur, Felix, eta laster arte –agurtu zuten lagunak.

–Jainkoak entzungo al dizute orixe.

–Errugabea aizen ezker, entzuna zegok.

Aiek joan ziranean, lengo abar-puntan kokatu ta kantatu ta kantatu jardun zuen birigarroak, aiek ezkutatu ziran arte, bere agurra egingo balie bezela. Etzegoen aren biotzean gizonen gorroto aundirik. Ezin ikusirik ain gutxi. Munduko errege, mutil gazte bat espexera zijoan bitartean, birigarroa lasai kantari ari zan askatasunean.

–Obe nin birigarro jaio banintz –pentsatuko zuen Pelixek.

Gaurko aurrerapenik etzegoen orduan; baiña laster zabaldu zuten, errian eta inguru artan guzian, Felix Arabolaza Ernestoren iltzaille bezela espexera eraman zutela, eta kitto. Esames ugari sortuko zuen berri orrek, auzia bukatu artean. Bateko bat zana, bestera orduko amar, eta dena atzekoz aurrera.

Borratxo aren jabe zanak ala omen zion, Felix espexera eraman zutela entzun zuenean, arrituta:

–Epaille alperra, noizko gordetzen dek zuzentasuna?

Beste lagunak serio lanean jarraitu zuten.

Egunak bazijoazen, kate-maillak bezela, etenik gabe.

Erriko errementaria oso langille tajutsua omen

zan, eta burnizko gurutze bat egin zuen; eta, ortara-
ko bear ziran baimen guziekin, eta bide-ertz batean,
il zuten lekuan bertan, jarri idazki onekin:

Ernesto Makazaga jauna,
emen erori zan
biurri billau batek erailla,
bere irurogeigarren urtean.

Erriko bikarioak bedeinkatu zuen, eta bide ar-
tatik zijoazenak, jarri berri artan beiñepein, aita gu-
re bat errezatu gabe etziran joango.

Polliki-polliki, ordea, aztutzen ari zan, gertatu
berrian alako zarrastada egin zuen eriotz triste ura.

-Alare, or dago, oroigarri bezela, txutik jarria
eta eskerrak neri -zion kontatzen ari zitzaidan aito-
nak-. Ondo zaindua dago. Neretzat zer esan-nai
aundia baidauka gurutze orrek.

-Eta zergatik ori?

-Ixtori onen bukaeran, oraintxe ez dago urruti,
ikasiko dezu dena.

Txakurra testigu

ESAN degunez, egunak igaro aiñean, ezer txarrik gertatu ez balitz bezela, aztutzen ari zan aitoren eriotza. Gurutzea ikusten zutenak oroituko ziran noski, gurutzean idatzia zegoena irakurtzean. Esan ere bai noski norbaitek aurrean:

-Gizarajoa! Oraindik bizi bear zuena.

Seme, alaba, senide eta bere artekoak beiñepein oroituko ziran. Lore-sortarik ere etzitzaion paltako berri artan; eta ortan txintxoena Terexa zan, Pelixen arreba, Inazioren andregaiia, amak iñoizka erritan ematen bazion ere. Baiña ez alperrik! Gazteak moztu zuten ezin ikusi ori.

Gaizki esakarik ere etzitzaion paltako il ta gero-
ra ere. Gorrotoan zeudenak ere bai.

“Garai batean, eta baillara ontan guzian, ez uan au baiño gizon aipatuagorik. Orain beste batek artu dik ire lekua. Ixillak, alegia, bere mende artu du. Betiko begietatik galdu ezkerro, biotzak ere aztua zeukak. Alare, obe dek goi ortan ondo bizi, agon lekuan, emen omenak artzen baiño” pentsatuko zuten askok.

Oso etsai gutxi zeuzkan Ernestok, baiña gaiztoak. Adiskideak bai ugari. Euskadi guzian, gaiñera. Bere sasoia joan arte, etzuen eskari ta bisitatzailleen paltarik edukitzen. Bere indar eta mazaltasunak adiskide asko egin zizkion.

-Aizak: idi-apustua diagu eta etorriko al aiz la-
guntzera?

Noiznai urbilduko zitzaizkion eskari orrekin etxera.

–Bai, motell. Orain ez aprobeztatzezkeroz, zertako dizkiagu Jainkoak duan emandako indar auek?

Baiña ez bein ere itzai ta akuillua dantzatzuzale; bultzagille bezela beti. Ortarako, ura autsiko zuenik ez omen zegoela Euskal Erri guzian.

Olaxe joan zan Ernestoren bizimodua mundu ontan, beste guziena bezela: beste aldera joan zan arte, goraka bere izena.

Apustularien artean ezagutua benetan, eta indartsuenetakotzat joa. Zebillen lekuan, beti pake-tsua. Broma ta jolasa maite zuena. Bertsolari-aire pixar bat ere bazuen. Jendeari parra egin arazteko ona.

Bere zaartzaroan billaukerizko eriotz triste arek sekulako naigabea eman zuen Euskal Erriko kirolzaleen artean.

Santirekin izan zituen okasioak beti damutu izan zitzaizkion. Batez ere, geiegi joa. Alare, denak Ernestori ematen zioten arrazoi. Beti besteak, eta gaiñera billaukeriz, ematen zion asiera. Onek bere burua babestu besterik etzuen egiten, bein geiegi itxutu bazan ere.

Gutxiena uste zuenean, biotza neketan asi zitzaion, oraindik ain zaarra ez bazan ere. Gorputz aundiko gizon indartsu oiei askotan gertatzen zaien-na. Lanetik erretiratzeko aurrean, orain gurutzea dagoen leku ortan, lapurtzeagatik, alper ta gizatxar batek illunpeetan bidera atera ta illa. An txutik zegoen gurutzeak ori dena esan nai zuen.

Ernestok andik aurrera mundu ontako goratzareak alperrik zituen. Bere emengo eginkizuna ondo edo gaizki bukatu ondoren, joan zan betiko. Alare, otoitzak on egingo zion. Jainkoak badauka denen kontua.

Orain bere semea zegoen puntta-punttan, apustu guzietara deitua. Alare, iltzaillearen arazoa bukatu arte etzan asiko.

Ernesto aztu bazuten ere, ez Pelix, bere alabaren senargaia, etxeko ondaretzako artua. Baitua zeukaten, gizartetik berex eta errugabea, supritzen zegoena. Arengatik bere alaba ere zer esanik ez, ura noiz etorriko zai, ezkontzeko.

Uraxe lenbailen aske ikusi nai zuten Ernestotarrak, gazteak alegia.

Amaren biotza oraindik zeken samar zegoen, ura etxean alabatzat artzeko. Gizaldiz gizaldi ondare bat bezela piztu zieten gorrotoa, elkarrekiko ezin ikusia, seme-alabei; eta zailla iruditzen zitzaion amari amor ematea.

Inesen malkoak zerbait samurtzen zuten bere amaren biotza: baiña ez oraindik mutillaren ama. Ura alatsu zegoen, edo okerrago noski. Etzion semearen eginkizunak alako kiliskarik egiten. Bere etxean Ernestotarrak ez sartzea nai zuen. Arritzekoa, emakumea izan ta ortara pentsatzea. Gorrotoaren lanak.

-Ire aita il-etsia utzi zuenaren alabarekin ezkondu bear al dek?

-Ez banu maite, oraintxe bertan utziko nuke. Baiña oso biotzean daukat neskatxa zoragarri ori. Oso ona da, ta goxoa. Ez dago olako neskatxarik inguru ontan guzian. Eziñak utzi erazi bearko dit. Bestela, ni, etxeko eragozpen guzien gañetik, orrekin ezkonduko naiz. Baita maiorazkoa ere utziko nuke.

-Eta etxetik bialiko baiñuket?

-Esan ez dizut, bada, etxea eta guziak utziko nituzkela? Berdin-berdin zait. Elkar maite badegu, aideko txoriak bezela kabia billatzea etzaigu oso zaila izango.

-Erantzun egoskor ta erekoia dek orratik ori.

-Zure arrazoi ori ez da etxerako txarra. Zure desapioak ez dute besterik merezi. Alabak ere Inaziozirengana aldegingo dizu. Seme gazteena bakarra geratuko zaizu, eta ura ere nolakoa dan badakizu. Ez dezu noski etxera ekartzea naiko. Zuk uzten banazu, baita nik ere zu, ama.

Etzion erantzun itzik. Berak etzeukan biotza libre gorroto gaizto ortatik, semeak bezela; eta etzuen aiek etxean sartzerik nai.

Maitasunak lotu zituen, bada, lau gazteak; eta itxura gabeko eta zertatik zetorren etzekiten ezin ikusi ura utzi zuten betiko. Baiña, betiko pakeak egitezkeroz, Pelix ta Ines ezkondu bearrak zeuden. Bestela, okerrago geratuko ziran; eta, mutilla askatu arte, ezin ziteken ori.

Lantegitik etxerakoan, len Ernesto ta Pelix bezela, orain onen anai gaztea ta Inazio betiko taberna artan biltzen ziran. An baxoerdi batzuk edan ta lagunartean itzegin. Pelixen berririk bazuten anaiari galderaren batzuk egingo zizkion. Arazo ori ezin zuen burutik kendu.

Onek, al zuen bezela, zekiena kontatu, eta katean zegoen ura askatzeko etzegoela pulamenturik. Inaziok antz eman zion amak etzuela bolada batean semea espetxetik ateratzerik nai, eta onen andre-gaiaren fameliak bere gain artu zuen.

Igande batean, bada, au bere txakurrarekin tabernara joan zan. Izan ere, ia beti berekin erabiltzen zuen. Oso otxana zan, eta benetan mazala.

Arbiondo ere askotan ara etortzen zala jakiñaren gaiñean zegoen. Amorratua zebillen, arakiñak medikuaren berri gabe etzuela artuko esan ziolako. Berak, berriz, sendagilleetako konturik etzuen entzun nai ere. Baiña azkenean, epaillearen partetik eta ixil-ixilik makurtu egin bear.

Tabernan an zan Pelixen anaia. Arbiondoren aita ere bai, borra txiki aren jabea.

–Kaixo, Inazio. Txakur bikaiña daukak. Au al dek ire aitaren iltzaillea aurrean erabili zuena? –galdetu zioten.

–Bai. Onek bezela baneki iltzaille ori nor dan...

–Aizak: aurrean ikusiko balu, ea ezagutzen lukeen...

–Ez nuke ezetzik esango ortan, baizik-eta guk baiño ezaguera ohea daukatela lau ankako auek. Aita lapurretatagatik il baizuten.

–Bai; ta ez oso urrutikoak gaiñera.

–Bai. Baiña, denekin jolasean dabillen oni eskerak, etzion xentimorik lapurtu. Milla duro ta geiago zekarzkien berekin.

–Ala jainkia! Gizon ori etzebilleken esku utsik.

–Idi-pare bikaiña kobratuta zetorreken etxera.

–Ori dena ebatsi balio, ai zer mauka!

–Urkamendirako soka erosteko bestetarako ez.

Inazioren txakurra an zebillen denekin jolasean, ongi-etorriak artu ta emanetz. Ezagunak eta ez ezagunak denak adiskideak zituen. Etzion iñori ere alako burruna gaiztorik egiten.

Alako batean, denak arrituta uzten zituela, denen artetik igarota, katamotz baten antzera, jauzi batean, karraxika ta zaunkaka, tabernan zetorren bat, Arbiondo alegia, lepondotik artu ta ankaz gora bota zuen, trapu zaar bat bezela astinduz. Animalia aundia baizan.

Itoko ez bazuen, lasterka joan ta leptik kendu zion Inaziok.

–Arritzekoa dek txakur onen joera. Denon artean emen zebilleken jolasean; eta, i ikusi orduko, katamotza bezela ire gaiñera etorri ez dek, bada? Bar-

katu, motell. Ik onentzat zer ote dek?

–“Barkatu” diok? Ikusten al dek au?

Lepotik ozka egin baizion, eta odola zerion.

–Ori ez dek aske ibiltzeko modukoa. Salatu egingo aut.

–Eta nere ator beltz au ikusten al dek? Ik baiño eskubide geiago zeukak onek aske ibiltzeko. Lau ankako auek begi zorrotza ditek, motell.

–Zer esan nai dek orrekin?

–Gure txakurrari galde iok.

–Neretzat ori ta batere ez berdiñak dituk. Ikusi-ko diagu. Nik beiñepein salatu egingo aut. Pake-pakean dagoen bati eraso ori egin!

–Salatu? Au edo ere burua?

–Misterioz ari aiz izketan.

–Bazekiat, bai, ik ederki ulertzen didakela.

–Nik etzeukat orrekin zer ikusirik.

–Onek bai, ordea, irekin.

–Nere kontrako susmurrak bai al dituk?

–Nik bakarrak? Au uan nere azkeneko proba. Au ikusi duten guzien aurrean, nik ezer esan gabe, edorri ari aiz dena aitortzen.

–Aitortu? Zer? Nik txakur orri etziot ezertan txarrik egin.

–Onek maite zuenen bati bai, ordea. Ez ote aiz gero i onen aurrean gutxieneko bi aldiz igesi ibilia?

–Ipuiak besterik ez. Animali ori eroa dek, eta il egin bear dik.

–Ori dek! Buruan borratxoarekin jota, nere aita bezela. Ikusten al dek or non datorren gizon bat? Ez diola sarrera txarrik egiten!

–Lendik ezaguna izango dik eta.

–Ori etzekit. I beiñepein bai.

-Urbildu zanean, txakurrak ongi-etorria egin zion. Jende geiago ere sartu zan tartean; eta, lepondo odoletan zeukala ikusirik, ala esan zion jendea-ri zaurituak:

-Ikusten al dezute nolako ozkada egin didan txakurrak?

-Nik ez banio eutsiko, txikituko iñuke. Dalda-raka zeukak gorputza, eta amorruz eta burrundara-ka iri begira zegok.

-Nagusia bezelakoa dek ori ere. Indartsua dala-ko, ixildu erazi nai. Baiña au ez dek ortara geratu-ko. Salatu egingo aut.

-Motell, neri lana aurreratu besterik ez didak egingo.

-Oraindik ere ik al daukak arrazoi?

-Al dekan azkarrena salatu, motell. Orduan ta aguroago ekarriko diagu Pelix etxera. Astebete baze-ramak espetxean; eta nik seguru bazekit errugabea dala, eta iltzaillea aske dabillega tabernan, ezer egin ez balu bezela.

Ozkada lotu ta garbitzeko barrura sartu zan or-duan, Arbiondoren aitak ala esan zion Inaziori, in-guruko jendeak entzuteko moduan:

-Txakurra egin dik asiera; eta soka batek, be-rriz, bukaera. Orrek bereala salatuko au, oso petra-la dek eta.

-Obe, zenbat eta lenago, neretzat. Berak galdu-ko du dena.

-Eta orren seguru al ago? -galdetu zioten.

-Bere aitari ez al diok entzun? Au uan azkene-ko proba.

Maian zeukan baxoerdia edanez eta tabernan zegoen jendea agurtuz, etxera joan zan. Arrebaren-tzat bazeukan berri bat bikaiña.

-Bejondeikela! -zion txakurrari-. Lan askotan

gizonak baiño argiagoa aiz i. Iri eskerrak, orain se-
guru bazekit gure aita nork il zuen.

Zauria garbituz eta espirituarekin errez, etxera
joan zan Arbiondo. Etzegoen bere gogozko gizartean.
Baiña jendearen biotzetan kezka gaizto bat utzita.
Egindako proba ondo atera baizan.

Inazio auzitan

ZEMAI egin bezela, salatu zuen Arbiondok tabernan gertatu zitzaiona; eta sekulako gorrotoa artu zien Inazio ta bere txakurrari. Bai auek beren burua ondo zaindu ere, bazterren batean tiroren batekin ilko zituen beldurrak.

Larrialdi ikaragarriak pasa zituen Arbiondok ere txakurraren aurrean, bere burua ezin babesturik. Norbaitek bai ikusi ere erasoaldi aietan nola bide-ertzeko txabola batean ezkutatu zan, jarraika zertorkionaren ortzetatik iges. Baiña etzuen usteko ezagutuko zuenik.

Animali ura bizi zan arte, ezin ziteken aren ondora urbildu. Bestela, berriro erasoko zion. Ain artu zuen begitan.

Inaziok, arratsalde batean, bada, epaillearen partetik auzitarako deia jaso zuen. Eguna galdu bearrak ematen zion naigaberik aundiena. Etzekien, ordea, aitaren gora-beeren batzuegatik edo Arbiondok salatu zuelako izango ote zan.

Gurdiarekin jetxi zanean, okiñari ala esan zion: nola deitu zuten eta urrengo egunean etzeukala pagota ekartzetik. Lasai joateko, naikoa bazeukala erantzun zion.

–Gure epaillea lanean ari da orduan? –galdetu zion okiñak. Berari ere galdera zorrotz batzuk egin zizkiola.

–Bai, noski, nik abisua artu det beñepein ta.

–Ezer garbirik aterako ote da ixkanbil ortatik?

–Amabost egun baiño lenago Pelix etxean degu. Dena garbi-garbi geratuko da epaillearentzat. Ez dauka buruauste aundirik. Pekatua egin duena dijoala urkamendira; eta errugabea, aske etxera.

–Ez dek orduan ori Pelixen lana.

–Ura zu ta ni bezin errugabea da.

–Ea suerte on bat izaten dezuten. Ez dizutet besterik opa.

Pelixen anaiari ere kontatu zion etzala urrengo egunean mendira joango.

Abisatu bezela, bere garaian joan zan zai zeukan epaillearengana. Erri txiki oietan bezela, au lenagotik ezaguna zuen. Erdi adiskide, gaiñera. Aita ilzutenean, bere baimenik gabe etxera sartu zutelako purrustadaren batzuk egin zituen. Euskaldun garbia, eta berez gizon alaia.

–Iñaxio Makazaga dituzu noski izen-apelliduak?

–Bai, jauna, nai duenari serbitzeko.

–Emen zuretzat salaketa bat dago.

–Seguru asko, nere aita il zuenak salatuko niñun.

–Ez da iñoren susmurrik orren errez egiten.

–Zuk Pelixena egin zenduen, bada.

–Gero itzegingo degu ortaz. Lenengo, beste galdera batzuk egin bear dizkizut; eta zuretik asiko naiz.

–Bide txarretik eriotz au ondo garbitzea nai badezu...

–Ez dakit, bada, zu ere zuzen ote zabiltzan. Norbaitek esan dit aitari jipoi gaiztoren bat eman zeniola.

–Ez da oraintxeko kontua. Nork salatu ote du ori?

–Zuk erantzun zaiozu nere galderari. Egia al da ori?

–Bai. Olako zerbait bada. Baiña ez nion nere aitari jipoirik eman.

–Eta zergatik ori?

–Aita, errikoa ezik, inguru guziko indartsueneztat joa zeukaten; eta, orregatik, beti arrokeri ori kontatzen ari zan. “Oraindik ez dek inguru auetan nik bilduko nauen amaren semerik, berrogei ta amar urte badizkit ere. Gaurko gazteak, izan ere, emakume, zurruta, zigarroa ezpainetan, bizioa besterik etzerabilkitek. Euskal enda aultzen ari zai-guk”. Ori zion indar-kontuan asi orduko, bat nazkatzeraiño. Neri, berriz, aita baiño geiago nintzala iruditzen zitzaidan, eta proba txiki bat egin nai nuen. Baiña desapiatzzea izugarria nerizkion. Orregatik, bidera atera nintzaion, arpegi estaliarekin, arratsean, ez ezagutzearren. Baiña onez-onean. Proba txiki bat egin genduen, eta ni gaillendu nintzan.

–Eta, zu bidera aterata, non dago guraso bati bear diogun begirunea? Ez ote du gero orrek zigorra merezi?

–Nork menderatu zuen ikasi zuenean, zoriontsu, esku eman ez, ala esan zidan: “Bejondeikela, seme! Oraindik ere urte batzuetarako txapela etxean zeukagu”. Olakoxea zan nere aita gizarajoa. Arrokeri puska bat bazeukan. Baita izana ere, ordea. Azaiña onak egin zituen, zaartu ta gerora ere.

–Eta zuk uste dezu ez duela orrek zigorrik merezi?

–Berak entzungo balizu ori, asarretuko litzake. Bere atsegiñik aundienetako bat zan ori. Txapela etxean geratzen zan. Baiña bere arrokerizko oiua bukatu ziran betiko, eta pakea eman zuen. Azkene-ko bi urteetan, berriz, biotzetik ondoezik jarri zan, eta etsai amorratu bat atera zitzaion bere lantegian. Geroztik aita nik babesten nuen, eta bestea orduan atzeratu. Bestela, nik txarrera joko nuen.

-Eta nor zan etsai ori?

-Orain aitaren iltzaille bezela espetxean daukazu ori.

-Alare, zure babesaren ajola aundi gabe egin zuen arek berea.

-Orrek etzuen nere aita zana ukuitu ere, benetan adiskidetu ziran ta.

-Geienak baietz diote, bada.

-Baiña illaren alargun ta seme-alabak ez. Badakigu beste bat dala.

-Etzera, bada, zu izango, indarrak probatzera joan da egin zenduena.

-Besteren bati ere entzun diot ori: diru asko zekarrela eta bidera aterata nik il nuela. Orixe baiño geiago maite nuen nik aita.

-Orduan, ura lapurretatik illa da?

-Zalantzarik gabe, epaille jauna. Ez gorrotoagatik, batzuek kontatzen duten bezela.

-Ondo dago. Pozten naiz etxeakoak ortara pentsatzea.

-Seguru bazeundeke, bada, egia diodala.

-Ez det zure susmurrik. Salatu egin zaituzte.

-Nolakoa da, bada, salaketa ori?

-Lepoa lotuarekin, zuen txakurrak ozka egin diola-ta, etorri zait gazte bat.

-Badakit or nor dan: Arbiondo esaten dioguna. Lepoa, zapiarekin ezik, aurki sokarekin lotzeko nola ez ote dezun aginduko...

-Aren salaketa baiño aundiagoa dakartzu orduan zuk.

-Lenengo, nik ez daukat txakur orrekin zer ikusirik. Baserrikoa da ta ez det ni arekin agintzen. Baiña ni salatu nauen ezkerro, erantzungo dizut. Mutil orri ozka egin zionean, bere aitak ala esan zi-

gun: "Txakurrak egin ziok asiera; eta, zoritxarrez, soka batek bukaera".

-Ondo dago. Alare, auzi ori asi baiño len, txee-tasun batzuk geiago jakin nai nituzke. Bear-bearezkoak zaizkit.

-Orregatik galdu bear al nuen eguna?

-Len ere esan dizut salaketa bat daukazula egiña, ta orregatik deitu zaitut.

-Ni ere aitaren eriotzean naastu bear al nauzu?

-Tabernara zijoala, ez bat, ez beste, atzetik etorri ta animali orrek sekulako ozkada egin omen zio-la.

-Bai. Egia da ori.

-Nola gertatu ziteken ori?

-Zu gure etxera joan ziñanean, ozkarik egin al zizun?

-Zaunka bat edo bi, bai, egin zizkidan. Gero, jolastu. Orrekin zer esan nai didazu?

Itz gutxitan kontatu zizkion txakurraren eta mutil orren ibillerak.

-Ori dena egia al da?

-Bai, epaille jauna. Egi-egia. Ikusitakoak asko dira.

-Eta zerbait ostu al zion?

-Saldu berritako idi-pare baten balioa zekarren gerrikoan. Baiña idien burutan zetorren lau ankako ori, eta orri eskerrak. Etzion lapurtzen utzi.

-Salaketa gaiztoa da orratik ori. Ez bazion lapurtu, nola dakizu lapurretara aterea zala?

-Ez nik, ez. Berak salatu du bere burua. Mutil ori berezko lapurra da. Bi aldiz, gutxieneko, espe-txean egona. Bere gurasoak bildurrak aidean dauzka.

-Eta lanik egiten al du?

–Arakiñaren morroia da, eta an ikasiko zuen aitak dirua zekarrela. Bere nagusiak, illetara etorri ginenean, ala esan zigun, txakurraren berri eman genionean, oso serio gaiñera: “Sendagillea bialiko ziot etxera, bi egun auetan ez dek lanera azaldu ta. Arek igerriko dio zer duen”. Arbiondoren aitak ezagutu zuen iltzen erabilitako erreminta berea zuela, eta etxe barruan edukitzen zuena. “Au nork atera bear zuen andik?” esan nionean, ala erantzun zidan. “Eguerdiko eguzkia baiña argiago zegok ori nereztat”. Eta malkoak asi zitzaizkion. Oraindik ez det bukatu. Mutil ori, txakurraren iges zijoala, etxeko leiotik begira zegoen gazte batek ikusi zuen bere aurretik pasatzen. “Illun zegoken, baiña inñondik ere Arbiondo uan” esan zidan. Seguru jakiteko, txakurrarekin egin nai nuen proba. Bai onek garbi-garbi ezagutu ere. Eta, ni ez banintz an gertatu, itoko zuen. Txakur onek, iltzeko partez, eskerrak merezi ditu. Eriotz triste orren egillea arrapatzeko bidea erreztu digu. Txakurra izan degu testigu.

–Eskerrik asko. Ondo. Banaka-banaka deituko ditut denak.

Eta bere izen-abizenak eman zizkion Inaziok.

Epaillearen lana

PELIX espetxean zegoen. Bederatzi egun bazeramazkien. Aspertua, etxeko gela txiki batean baitua, metro gutxiren barruan, mendirik mendi oitua dagoen gazte batentzat benetan tristea. Pentsamentu bat buruan, eta ezin kendu. Askatasuna nai zuen bere bizimodua ateratzeko. Baiña inor ari ote zan bere alde lanean? “Alare, etzeukat kejatzerik, Mundu ontan etzegon maitasunik”. Amaika aldiz bere baitan pentsatua ori. “Nik berdin egin ziet nere lagunei; eta auek berdin. Arritzekoa al dek?”.

Bakar-bakarrik, bazkaria gelara, aparria berdin, gizartetik berex, zer txarrik egin zuen artara edukitzeko?

Etxekoak erdi aztuta zeukaten. Bisita bat edo bi egin zizkioten, baiña etzioten berri on bat eman. “Ama ibiliko dek or tartean” zion berekiko.

Inaziorekin zeukan bere itxaropena. Ez ote zion gero arek ere billaukeriren bat egingo? Arrebaren maitasunak ez ote zuen zirikatuko?

Noizbait joan zitzaion bere anaia bisitatzera. Etzion suspergarri aundirik eman. Otzak zeuden bereak.

Amak ezer gutxi zekien inor lanean ari zanaren berririk. Bera ez beiñepein, eta etzeukan semeak aren itxaropen aundirik. Inazioren andregaiari bai; alako tanta mikatz batzuk bota zizkion:

–Ernestotarrak beren eskutik zeukaten ogei ta amaika. Beren apentza egin naiko ziguten. Beti izan ditun olakoak: etsaiak –zion.

Alabak etzion sinisten olakorik. Amaren ezin eraman bat besterik etzan ori. Etzuen ango mutillarekin ezkontzerik nai. Semearen bisitara joanda ere, olaxe jardungo zuen:

–Baago puska baterako, Inazioren itxaropentetan bizi baaiz. Dabilen lekuan, i aizela iltzaillea zabaltzen ari omen dek; eta ordurako ortzak jaioko zaizkiok ire semeari.

Ola ariko zitzaion, gezur ta abar, ama.

–Zuek, bai, zaarrak, oraindik elkarren gorrotoan bizi zerate. Baiña gu, gazteok, ez. Beste bide batetik goaz, azkena jo arte. Eta, ni emendik ateratzezkeroz, aien itxaropena daukat; ez zuena –erantzuten zion Pelixek.

–Aita ondatu zuenaren semearekin ondo al ator i ere?

–Bai. Kontra ibiltzeko idisko onak daude an. Emendik ateratzeko, laguntzailleak etxe artan dauzkat. Zoritxarrez, ez nerean beiñepein. Badakit ez dala Inazio geldirik egongo. Aren aitak gurea ondatu bazuen ere, zuk semea ondatu nai dezu.

–Arrazoi gaiztoak dituk oiek, seme. Etsaiak tartean naasten asten badira, barrurago sartuko aute.

–Len ere naiko sartua nago; eta zuk, ateratzeko gogorik ez.

Ama otz zegoen, eta joandakoengatik gorrotoan. Oraindik etzuen biotzetik kendu. Ezta nai ere noski. Ondare bezela zeukan erra gaizto ura, eta urduri uzten zuen semea, bisitatzera joaten zitzaion bakoitzean, eta arrunt etsia. Etzuen amak oraindik semea aske ateratzerik nai. Berak jakingo zuen zergatik.

Inaziok bazekien Pelixen ama bakarrik joaten zitzaiola bisitatzera, eta semea urduri eta naigabentan utziko zuela. Len ere esana degu Pelixen arrebarekin ibiltzen zala Inazio. Terexa izenekoa au.

-Anaia bisitatzera zergatik etzera joaten? Ama bakarra dabil or, eta arek gure aurka itzegingo dio. Zoaz zu ere, ea poz pixar bat ematen diozun. Itxaropena sartu aren biotzean.

-Zuk laguntzen badidazu, joango naiz. Pozik, gaiñera. Bai-baidakit amak beltz jartzen diola etorkizuna, eta zuengatik gaizki itzegin.

-Lagunduiko dizut, bada.

Arreba espetxeko mintzategira sartzen ikusi zuenean, benetan poztu zan Pelix.

"Au Inazioren partetik etorriko uan, eta anbat berri onak ekarriko zizkidak" pentsatu zuen Pelixek. Eta beren agurrak egin ondoren:

-Ongi etorria, Terexa.

-Ondo arkitua, Pelix.

-Zer molduz zabilzate? Zu etzera bakarrik etorri.

-Ez. Bertaraiño Inaziok lagundu dit. Gure etxe-ko gora-beeretan ez duela naastu nai, eta guk biok nai degun bezela itzegiteko askatasuna izan dezagun, bakarrik sartu naiz, bukatu arte itxogingo didala aginduta.

-Ori da gizona, nik etsaitzat neukan baiña. Orduan berri onak dakarzkidazu?

-Ezin obeak. Nor dan badakigu seguru iltzaillea. Epailleak ere bai noski. Gaur asteartean gaudede. Iganderako kalean zera.

-Ez dizu nor dan esan?

-Bai. Arbiondo dala.

-Urdea aleena! Lapurretatik gizon odol otzean iltzeraiño ere bai?

Inaziok esandako guzia kontatu zion.

-Orduan, txakurra testigu.

-Bai. Baiña gogorrena: Arbiondoren aita bere

semearen aurka. Inesekin ere itzezin det, eta goraintziak bialtzen dizkizu. Diru pixar bat ere bai, utzi dit, zuretzako emana. Inazio, Ines, denak, gazteak beñepein, zure zai gaude.

–Nere partetik ere emaitzietzu goraintziak denei, Terexa, Ez gero Inazioekin asarretu. Mutil gazte, eder ta piñagorik ez dezu arkituko.

–Ez orixe. Amak, orrekin etorri naizelako, erri-tan emango dit baiña.

–Gure etorkizuna guk billatu bear degu. Ez amak.

–Epailleak lekuko guziekin itzeziten duenean, zu kalean zerala esan dit.

–Bejondeizula, Terexa. Sua piztu dezu nere biotzean; eta bizi-poza ere bai.

–Emaitzietzu nere aldetik Inaziori eskerrik beronenak. Maitasuna bear da orrela ibiltzeko, eta orrek benetako maitasuna dizu.

Zoratua utzi zuen, itxaropentsu, arrebaren bisitak. Lasaitu ere bai. “Arbiondo da orduan orko itzaillea, Lapurraren otsa ere bazeukan, ta orain aurrrerago sartu zaigu”.

Askoren iritzia, alare: oraindik, errugabea izanagatik, luzaroan egon bearko zuela espetxean. Galdi eta motel egiten omen dutela epailleak lana. Asi zan beñepein; eta, Inaziotok esandako lekukoak itzezitean, garbi geratuko zan ori.

Lenengo, txakurraren aurrean igesi zijoala ikusi zuen mutil gazte ura, bere izen-abizenak eman ondoren:

–Egia esan zak, eta beti egia, gizon baten bizia zebillek jokoan eta.

–Bai. Ez daukat gezurretan aritzeko gogorik. Nik denak lagunak ditut, eta oso ondo nator bi aldeekin.

–Eta nor zan ezagutu uan?

-Ez nuke ziñik egingo. Baiña, jokoa egitezkeroz, bai: Arbiondo zala esango nuke, zalantzarik gabe. ogei metro baiño alderago ikusi nuen, ta ordu beteren buruan bi aldiz. Beste gaiñerakoan, nik ez dakit ezertxo ere. Ori ez da nere egitekoa.

-Eta zer moduzko fama zeukak?

-Lapurrrarena, gure aiekan beiñepein.

Bere aitortpena izenpetu ondoren, joan zan andik.

Urrengo deia arakiñak izan zuen. Oni ere, besteari bezela, galdera batzuk egin zizkion, bere langillea zuan ta.

-Zure morroi ori salatu didate Ernestoren iltzaille bezela. Zuk orretzaz zer diozu? Jendearen esames oiek egiak dirala?

-Nik ez dakit orrenbesterik. Itxuraren kontra koa izan liteke. Askotan ariñegi itzegiten degu. Erreza baita gaizki epaitzea.

-Orduan zuk ez dakizu ezer?

-Nik badakit bat espetxean dagoela, eta erruga-bea izan litekela. Nik dakidana aitortuko det. Gero zuk nai dezun bezela epaitu. Urtearen barruan askotan geratzen da lanera etorri gabe nere morroia, zergatik arrazoi garbirik eman gabe. Alare, pakearengatik, nik ordaindu egiten diot beti. Baiña, ildakoaren illetan izan nintzanean, nere dolu-miñak semeari ematerakoan, ala esan zidan arek: "Dana dala, iltzaille orrek atze alde ura ederki larrutua edukiko du, bi aldiz gure txakurraren aurrean igeska ibilia da ta. Bide askoan gaiñera". "Aizak, erantzun nion: bi egun auetan ez dek lanera etorri". Ordaintzekotan, jakin nai nuela zer zuen; eta sendagillea biali nion. Ona non daukazun arek bialitako agiria.

Eta eskura eman zion. Artu ta irakurri ondoren, onela esan zuen epailleak.

–Ondo dago. Orain arte mutil ori gaizki ari da geratzen.

Eta agiri ura berak gorde zuen.

Arakiña ere joan zan. Ustez bere kontzientzira egin zuen lana: beste inor salatu gabe, sendagilleak egindako agiria eman.

Irugarrena, berriz, mutillaren aita, Onek ere, gizarajoak, estuasuna ekarri zuen. Seguru bazekien iltzaillea semea zala; eta, kontzientzira begiratu ez-kero, aitortu egin bear. Beste errugabeko bat baizegoen espetxean; eta, auzi ortatik semea ondo ateratzen bazan, beste okerragokoren bat egingo zuen beldurra.

Onekin ere, besteekin bezela, beren etiketak bukatu ondoren, ebatsi zioten borra txiki ura erakutsi zion epailleak.

–Au norena dan bai al dakizu?

–Bai, jauna. Nerea.

–Onekin jota il omen zuten Ernesto.

–Baita; ori ere badakit.

–Ez da, bada, zure lana izango?

–Olako azio txarrik egiteko, maiteegi nuen nik Ernesto.

–Orduan beste norbaitek ebatsiko zizun.

–Ori bai ez dagoela ukatzerik.

–Atarian edo arrobian, non edukitzen zenduen?

–Ez. Etxe barruan, ukuilluko ate atzean.

–Nork eraman bear zuen ori andik?

–Semeak edo beste etxekoren batek.

–Etxeko noren susmura egiten dezu, bada?

–Bakarra da etxean azio txar ori egin lezakenik: semea, Arbiondo, izen orrekin ezagutzen duena erriak.

–Orduan gizon ori orrek illa dala uste dezu?

–Nik ez det semerik salatuko. Ez bainuen iltzen ikusi. Ortik aurrera zedorrek epaitu.

Eta aita gizarajoari malkoak asi zitzaizkion.

–Ondo dago. Naikoa esan dezu.

Urrikaldu egin zan epaillea, eta etzion beste galderarik egin, etzuen bearrik ere ta.

Bere semearekiko maitasuna eta kontzientzia eztabaidan ibili zitzaizkion. Bai-baizekien erru gabe-ko bat espetxean zeukatela; eta malkoak ixurtzerai-ño kezkatua.

Epailleak etzeukan Arbiondo deitu besterik. Lekukoak garbi-garbi agertu zuten eriotz ori noren lana zan.

Bere eginkizuna bereala bukatu nai zuen epailleak, errugabea aske etxera bialtzeko; eta gure Arbiondo deitu zuen. Jesus Epalza bere izena.

Abisua biali zionean, ukatu egin zuen: etzeukala berak eriotz orrekin zer ikusirik. Baiña urrengo egunean bi ertzain biali zizkion, eta indarrean lotuta ekarri zuten. Aiei iges egiteko alegin guziak egiten zituen, orrekin bere burua salatuz.

–Ai, seme! Iges egiteko orduak joan zaizkik. Orain alperrikako indarkeri orrekin ere burua salatu besterik ez dek egiten –esan zion aitak.

–Andik etortzean, obeto itzegingo degu biok.

Zemai ori egin zion aitari. Semeak bere egunak non bukatuko zituen ondoegi zekien aitak.

–Etortzen baaiz ere, ez dit nik atzerarik egingo, ez nauk bakarrik geratuko ta.

Galdera batzuk

ORDURAKO aren berri bazekien, eta serio artu zuen epailleak; eta, beraren izen-abizenak galdetu ondoren, egin zizkion galdera batzuk.

Arbiondok etzion bat bakarrari erantzun nai izan. Baiña dena alperrik. Eguerdiko eguzkia bezin argi zegoen iltzaillea bera zala. Alperrik galdezka aspertu zanean, espetxera bializuen, andik ateratzeko itxaropen aundi gabe. Gaiztoa zan, baiña ez txoraa. Bazekien zer egin zuen eta epaillea jakiñaren gaiñean zegoela.

Egoera tristea da ori benetan. Idazten ari dan au proba txiki bat egiña degu.

Pelix ere an zegoen, bada, luzetetsirik, lau metroko gelan, atea itxita. Goian leio bat, gaiñera burni-sarez itxia. Uraxe bakarra zeukan askatasunera begiratzeko. Besteren mende, aren barruan ibili. Egunaren ordu guziak neurtuak. Katean dauden idiak bezela, ateratzeko deia noiz iritxiko zai beti. Pentsamentu bat buruan, eta ezin kendu.

Egunak ziran etzuela bisitarik eduki. Azkenean berri zoragarriak ekarri zizkioten. Sinisteko onegiak. Ez ote ziran bera suspertzeagatik asma-tuak izango? Egiak izatezkeroz, onuzkero kalean be- ar zuen.

Itxaropenik gabe, orduak luze joaten zitzaizkion. Gaur bezela biar, eta biar bezela etzi, asper-tua, beti zai epailleak noiz deituko.

Goiz batez, patiora egurastera atera zanean, etzuen, bada, Arbiondo ikusi? "Au sartu dutenean, laster aterako niotek ni" zion berekiko.

Esku emanez, agurtu zuen. Baita besteak eran-tzun eta artu ere.

-Leku txarrera ekarri aute, Jesus.

Len esan bezela, Arbiondok ala zuen izena.

-Emendik ateratzen banaiz, bakarren bati era-kutsiko ziot nik mingaiña gutxiago dantzatzen. Etxekoak eta okerrenak.

-Asmo orrekin baabil, eta aiek jakiten badute, barrurago sartuko aute. Ni ere emen nabillek erru aundirik gabe. Alare, etzeukat iñori txarrik egiteko gogorik. Inaziori eskerrak. Bestela, ementxe ustel-duko niñuke.

Orixe esaten ari zala, oiu bat egin zuen espetxe-ko mezulariak, Pelixen izena aipatuz.

-Noizbait orratik nitzaz ere oroitu dituk.

Ixil-ixilik urbildu zan oiulariarengana, eta ala galdetu zion:

-Norako deia det au?

-Epailleak deitzen au.

-Zertara ote narama?

-Ez arritu. Txarra edo ona, laster esango ditek. Besteren supri bearrak etziek zarrazta aundiegirik egiten auei.

Aitzindariak atea zabaldu zion, eta sartu zan aurrera. An arkitu zuen, bada, atzera edo aurrera nora joan aginduko ziona.

-Eseri, eseri, galdera batzuk egin bear dizkizut eta. Zuk il duten Ernesto ori ezaguna al zenduen?

-Bai, jauna. Gaztetik.

-Esan didatenez, ezin ikusi gaiztoa omen ze-nion.

-Ikusteko modukoa zan, bada. Baiña arrazoi dezu. Gorroto aundia nion.

-Zergatik ori?

-Gizaldiz gizaldi zetorren ondare bat bezela sartu ziguten bi famelien elkarrekiko gorroto ori gure gurasoak. Nik, txikitan, il duten gizon kankaillu ori deabruzat neukan. Ala erakutsi ziguten beiñepein. Il zuten baiño ordubeteren bat lenago, biak bakarrrik lasai itzezin genduen. Bai ezagutu ere nolakoa zan gure Ernesto. Azpildurarik gabeko gizona, alegia. Errian ez da bolara batean aztuko gizon au.

-Bere semeak ezagutzen al dituzu?

-Len etsaiak, orain lagunik maiteenak. Aien arreba daukat andregai ere.

-Eta iltzeraiño zuk eraso al zenion?

Galdera orrek zer pentsatua eman zion; baiña egia zertako ukatu?

-Ari adarra jotzen askotan aritzen nintzan. Baiña arek kopeta alde ura zimurtzen zuenean, kontuz arekin. Baiña, epaille jauna, lan ori ez da nerea. Ez nuen ukuitu.

-Eta Arbiondo esaten dioten mutil ori ezagutzen al zenduen?

-Bai, jauna. Aspaldi ontan.

-Orain, ura zuk utzi dezun lekuan geratuko da.

-Bai. Berarekin arestian itzezin det. Eta susmurgarri bezela?

-Ez dit itzik trukatu. Baiña alperrik. Ain garbi dago bera dala erruduna. Zu, beraz, aske zaude, ezeren konpromisorik gabe.

-Eskerrik asko. Banekien ez nuela luzarorako loturarik izango.

Paper bat luzatu zion epailleak izenpetzeko. Iraurri zuenean, ala zion:

–Pozik, pozik alare!

Epailleak eskeiñi zion eskua zorionak emanaz; eta, gelan zeuzkan traste pixarrak artuta, laster aldegin zuen andik, saretik iges egindako usoa bezela.

Egoartea zan. Bazekien etzuela Inazio etxean arrapatuko; eta txuxenean bere etxerako bidea artu zuen. Benetan poztu ziran, itxuraz beiñepein. Baiña ez ainbesterañoko arrera noski. Otz samarra egin zion amak. Ez espetxean egotea nai zuelako. Naiago zuen etsi ta betiko utzi zezan kaskailluaren alabak. Anaia, berriz, mendian ibiliko zan, pagota billa joana.

–Zorionak, beraz, seme. Iretzat eta guretzat berri alaia dek au. Aske etorriko intzan noski.

–Benetako iltzaillea an geratu da gizarajoa, lepotik soka noiz lotuko dioten beldurrak. Atera baiño len itzegin det berarekin. Andik bialtzen badute, bakarren bati damutuko zaiola esan dit.

–Arbiondo esaten dioten erdi txoro lapur ori noski?

–Bai, ama. Eta kaskailluaren txakurrak egin du testigu. Etzan, bestela, arrapatzen ere erreza izango. Ondo pentsatuta egindako lana zan.

Dena kontatu zion amari.

–Ondo ezitako txakurrak ezaguera aundia zeukatek. Eta Inesekin jarraitu bear al dek, uzteko aukerarik onena edukita?

–Ez dezu nere begiekin ikusten. Maite det nik ori. Inguru auetan ez dago beste olako neskatxarik, eta badakit ori dala nere bidea.

–Txoro ederra aiz. I bezela banengo, bertan utziko nikek.

–Eta ni bezela bazeunde zu? Ama batek semea-ri aolku txar ori emateko ere... Deabruak ez luke txarragorik emango. Neska gaixo arek zer erru dau-

ka xaarrak asarre egotearekin? Maite det nik ura. Inaziori zor diot, gaiñera, nere askatasuna. Arek zuek bezela egin balu, banengoen puska baterako. Etxeko iñork ez du beatz bat ere jaso. Xentimorik eman ere ez. Inaziok billatu ditu nere aldeko leku-koak. Lanetik aske zan guzietan, nere alde jarduna da ori. Zer nai zenduke: nik oiek lotsagarri uztea? Nere burua ere ala jarriko nuen. Lengo etsaiak lagundu didate. Lengo lagunak, berriz, saldu.

-Arrazoi kaskarrak dituk oiek, seme.

-Baiña egi biribillak.

-Ez aiz orren umea, ta nai dekana egin zak. Baiña ni ez nauk zuen eztaietara joango. Ango emakume zimatsu arek nazka ematen zidak.

-Zaarrak nai dutena egin bezate. Gazteok elkarrekin ondo konponduko gera.

Inazioren etxean etzekiten oraindik. Baiña illunabarrean an azaldu zan Pelix. Gazteak poztu ziran. Baita ama ere, eta aolku au eman zien:

-Etiketak egiñez denbora galtzen ibili baiño, obe dezute lenbailen ezkondu, ixilik bederenik. Lutoak luto, orrela gaizki zaudete. Elizak ez dizute galerazik.

-Eskerrik asko, Xeledoni. Orixe jakin nai genduen.

Bear ziran agiriak eginta, ezkondu ziran Pelix eta Ines. Andregaiak etzeraman gaurko neskatxak bezelako isatsik. Baiña, alare, dotore askoa zegoen.

Ara ta onera ibili gabe, mutillaren etxera joan ziran bizitzera.

Bi etxeetako gazteak benetan poztu ziran. Nik uste detanez, baita zaarrak ere. Baiña disimulatu egin nai lenengo ezin makurtua; betiko seta zikin ori.

Bataioa ta ziña

Bere garaian etorri zan anka gorri ori, eta mutilla bera. Jakiña, bi alargunak amonak zirala eta badakigu amonarentzat zer esan nai duen lenengo illobatxoak.

Bataiorako, beren lengusu arteko apaiz bat ekarri zuten, bi fameli oien berri ondo zekiena.

An ziran, bai, zaarrak ere. Elizan sartzeko zeudela, ordea, amaren ama urbildu zitzaion aitaren amari; baiña aitaren amak zirikatuta.

–Utziko al didazu, Kontxezi, biok aurtxo baten amonak geran ezkerro, bataiora sartzen eta tarteka ama-semetxoei bisitatxoak egiten?

Pixka batean, arrituta, begira jarri zan, zer erabaki artu etzekiela. Baiña gazteak, denak batera, oi u egin zuten:

–Bai, Kontxezi, bai! Egun gogoangarri au etzai-guzu garraztu.

–Ekatzu, Xeledoni, esku ori.

Eta, elkarren eskuak artuz, adiskidetu ziran, eta egin zituzten benetako pakeak.

–Nik geiena irabazten det, zure alaba gure etxera etorriarekin –zion Kontxezik–. Aspaldian autsiak bear zuten gure ezin ikusi txoro auek. Seta gaiztoak artuta bizi izan gera, pozik adiskidetuko giñanak. Baiña lenengo iñork makurtu nai ez. Arrokeri txor-roa.

Aurra bataiatu ondoren, Inazio ta Pelixek elkar artu ta itz batzuk esan zizkioten apaizari. Bai onek ontzat artu ere.

–Zuek, bi fameliak, ez al zerate aspaldietan asarretuak bizi? Eta, nik entzun detanez, elkar ondartzeraíño ere bai.

–Egia da ori –erantzun zioten–. Gazteak bein elkar artu dutenean, elkar artu dute. baiña zaarrak ez, gaur arte.

Eta Pelixek berriro:

–Gurutzea dagoen lekuan il zanak zabaldu zuen lenengo pake-bidea; eta aur onen aurrean, bi famelien frutua dan ezkeru, komeniko litzake txorakeri oiek uztea, beti asarre bizi gabe.

–Bejondeizula –erantzun zion apaizak–. Eta ortarako ez da Ernestoren gurutzea bezelakorik. Arestian entzun degunez, arek autsi zituen ordura arteko molde aiek, eta pakerako bideak zabaldu.

Andik urbil zegoen; eta denak, aurtxoa besoan, gure gurutzearen ondora joan ziran, an adiskidetu ta pakeak egiteko.

Aurtxoa gurutze gaiñean jarri zuten, bi amonak esku banatatik eusten ziotela. Beste gaiñerakoak gurutzearen aurrean zirala, apaizak, une gogoangarri ura aipatuz, atsegiñez itz auek esan zituen:

–Orain arte gurutzea izan da euskaldunen ikurriña. Bestela, begiratu ondo gure inguruko mendi zoragarri auei. Jainkoaren Semeak ortik zintzilik askatu giñun gorrotozko etsaiaren menpetik, eta pakeak egin zituen gure ta bere Aitarenean. Orain zatar batzuk jarri dizkigute ikurriñ bezela. Ori ere ez da denentzat txarra izango. Baiña oiek ez dute gu gorrotopetik atera ta Aitarengana eramateko indarririk. Gurutzeak bai. Maitasunak, alegia, bai. Jarrai dezala, bada, gure ikurriñ bezela, eta maitasunean batu ditzala gaur arte gorrotoan bizi diranak. Ori da gurutzearen eginkizuna.

Ondoren bertso au kantatu zuen abots ederrean:

Gurutz gaiñean bi amon oiek
daukate txutik gaixoa,
jaio berria, bataiatu ta
garbi dakargun aurtxoa.
Asarre zeuden bi famelien
lenengo frutu goxoa,
Jaungoikoaren aurrean izan
zaite zu pake-uxoa.

Gurutzearen aurrean denak zin egin zuten andik aurrera bi sendiak pakean biziko zirala. Zaarrak elkar besarkatu zuten. Gazteak ere bai. Eta pake-pakean aitaren etxera joan ziran bazkari-lege bat egitera.

Larogei urte dira au gertatu zala, eta orain arte pake santu batean bizi izan gera. Jakiña orduko zaarrak il zirala, orduko gazteak ere larri gabiltza ta. Orixe da ixtori onen azken zoragarria.

-Bizi al da oraindik orduko pake-uxoa?

-Bai. Zaartu samarra, baiña oraindik bizi da. Pake-uxo ori ni naiz. Nere aurrean adiskidetu ziran. Gurutze au nik zaintzen det. Maiorazko bezela, aitaren etxera ezkondu nintzan. Fameli eder bat azi ere bai. Geroztik, eriotz gaizto baten oroigarri bezela, txutik dago gurutzea.

-Bide ondoko gurutze guzien kondairak aztertzen asiko bagiña, zenbat olako istori ikasiko ote gemituzke?

-Bai orixe. Zerbaitengatik jaso zituzten gure asabak.

Aurkibidea

Itzaurrea	7
Azio txarrak.....	15
Bide ondoko gurutzeak.....	19
Gure aitona.....	23
Taberna txuloan.....	27
Santi eta Ernesto	33
Irugarren eraso.....	41
Arrokeriak.....	47
Euskal Erri guzian ezaguna.....	53
Jipoia.....	59
Pagota karraio	67
Etsaiak gaillentzen	75
Ernestoren kezka	83
Santiagomendi	89
Amaren kezka	93
Ixtilluak eta ezetzak.....	103
Amaren lanak.....	107
Arri-erasoa	111
Aitarenak egin du	119
Ezin irentsia	125
Inazio ta Pelix.....	133
Etxean	137
Ustegabekoa.....	147
Oparia.....	153

Epaillearen errenkurak.....	163
Pelixen kezak.....	165
Maitasuna garaitu	171
Illetako berriketak	179
Aitaren orde	189
Errugabea espexera.....	195
Txakurra testigu.....	203
Inazio auzitan.....	211
Epaillearen lana	217
Galdera batzuk.....	225
Bataioa ta ziña	231

Auspoa-ren azken liburuak:

- 261: Manuel Lasarte: *Uztapide gogoan.*
- 262: Antonio Zavala: *Auspoaren auspoa, III.*
- 263: Antonio Zavala: *Oiñez eta jakin miñez, II.*
- 264: Joxe Mari Aranalde: *Bertso kontuak.*
- 265: Bizente Barandiaran: *Tratabideak.*
- 266: Sor Justina Aldalur: *Ama Birjiñaren bizitza.*
- 267: Ataño: *Ondareztat gorrotoa.*



1051105
G-129/16



Ona emen beste nobela bat, *Ataño* asperteziña zanaren lumatik sortua. Aitonon bati entzundako kontakizun batez baliatu dala esaten digu berak. Aotik aorako tradizio zaar bat da, beraz, liburu onen barruko muiña.

Bi famili elkarrekin asarre bizi dira. Orixe da beren aurrekoengandik jaso dutena. *Ondareztat gorrotoa*, alegia. Ez al da orixe izan, zoritxarrez, euskal etxe askotan gertatu izan dana? Gure alderdi beltz ori agertzen du liburu onek.

Asarre eta gorroto oiek bukaera txarra izango zuten geienetan. Gizaldiz gizaldi, burua leengo lepotik zutela biziak eta illak izango dira olako famili asko eta asko.

Atañoak, ordea, ez du bere kontakizuna orrela amaitu nai, irakurlea ez goibeltzearren-edo. Bere bi famili oien artu-emanak zorrozten eta garrazten badijoaz ere, azkenean, Jaunari eskerrak, adiskidetu egiten dira. Ala, liburu au pakearen aldeko oiu indartsu bat degula esan genezake.



HONDARRIBIKO UDALA

ISBN 84-95378-16-7



9 788495 378163

